ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko uztailaren 19a > Astelehena > VII. urtea > 286. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Komunitateari lotuta dauden eredu ekonomikoak iraunkorragoak dira"

**Iñazio Irizar** MUko irakaslea > 06



**G2a** Oñatiko Makalena antzezlan berria prestatzen > 29

**ELGETA** Gasa eta zuntz optikoa herriraino igotzeko aukerarekin lanean > 09

**ARRASATE** Iturriotz izena nondik datorren erakutsi dezaketen aztarnak > 14

**ARETO FUTBOLA** Doble cero garaile, Zaldibarko 24 orduko txapelketan > 22-23

KIROLA > ALPINISMOA

# Alberto Iñurrategik historia egin zuen atzo Broad Peak-en

**LORPEN HANDIA** Broad Peak-eko hiru gailurrak jarraian zapaltzen dituen seigarren alpinista da munduan

**BAKARRIK** Iparreko eta Erdiko gailurrak Vallejorekin eta Zabaltzarekin egin ostean, bakarrik egin zuen hirugarrena

**NEKEA** Era alpinoan egin ditu hiru igoerak; bere esanetan, asko sufrituta eta bidea zabalik aurkitu izanari esker > 25

## Antzuolan inoiz baino jai biziagoak aurten

Eguen eguerditik atzo iluntzera arte jaietan ibili dira antzuolarrak. Iazko berrikuntzei beste batzuk gehitu dizkiete aurten, eta horiekin inoiz baino jai biziagoak izatea lortu dute. Mairuaren Alardea izan da, beste behin, ekitaldi parte-hartzaileena eta ehunka lagunek jarraitu dute; dantzekin eta Mairuaren segizioarekin berritu dute aurtengo edizioa, eta Alfredo Gonzalez Chirlaque omendu dute, alardeari egindako ekarpenarengatik. > 10-11



**BERRIKUNTZA** Mairuak musika banda eraman du aurten lehen aldiz. JOSETXO ARANTZABAL

OSPAKIZUNA > 50 URTE

## 400 lagun 'Harristi'ren festan

Giroa ezin hobea izan zen Uarkapen: jendea zutik eta txaloka une oro > 12



Argazki-proiekzioa ikusten. J.A.

HERRILANAK > E-PLANA

## Kale eta eraikinak berritzen

6,8 milioi euro jaso dituzte Debagoieneko udalek eta Aramaiokoak Espainiako Gobernuak 2010 urterako onartu duen Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondotik. Leintz Gatzagan dagoeneko amaitu dituzte lanak, eta gainerako herri denetan jarri dituzte martxan, Aramaion izan ezik. > 02-03

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 02-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 09-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

LASTERKETA > 'EHUN MILIAK'

## Ugalde: "Amezketan, proba uztera behartu gintuzten"

Euskal Herriko lehen ultrarail proba gogorra izango zela bazekiten lasterkariek, baina euriak, behe lainoak eta tenperatura baxuek are latzagoa egin zuten. 260 parte-hartzaile abiatu ziren bariku arratsaldean Beasaindik eta erdiek bertan behera utzi behar izan zuten lasterketa; askok, antolatzaileek behartuta. Bariku gauean pasa ziren Gorlatik eta jende asko joan zen bertara parte-hartzaileak animatzera. Imanol Aleson azkoitiarrak irabazi zuen proba (25:14:18). Debagoiendarren artetik azkarrena Argider Isasti oñatiarra izan zen (31:18:43). 14. egin zuen. > 21

Goiena kluba
Euskalteleko kamiseta opari. Nahi?

Zoaz 3. orrialdera


Lizarraga auzoan, goiko aldean, egin behar dute ur putzua.


Bolinagarako bidea, Aretxabaletan.


Sagardoa egingo dute Aramaion.


Bergarako Irizar jauregia maiatzean hasi


Arrasaten, Gelmatik Nafarroa etorbiderainoko gunea berritzen dabiltza.


Santa Anako obrak, Eskoriatzan.

**HERRILANAK** > E-PLANA

# Udal eraikinak eta kaleak berritzen dabiltza E-planari esker


Oñatiko Errekalde auzoko lanak oso aurreratuta daude.

**GATZAGAN AMAITUTA** Aramaion izan ezik gainerako herrietan proiektuak egiten hasi dira; Leintz Gatzagan amaitu ere egin dituzte

**SANTA ANA ETA LAUSITTA** Azken egunotan hasi dira Aretxabaletan eta Eskoriatzan egitasmo esanguratsuenen lanekin

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Aurrera doaz apurka-apurka Madrilgo Gobernuaren Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoaren bidez, Debagoieneko herrietan egiten ari diren proiektuak. Batzuk txikiak eta beste batzuk ez horrenbeste, baina lan gehienak hasita daude dagoeneko; eta baten amaituta ere badaude.

Leintz Gatzagaz ari gara. Dagoeneko amaituta daude bi proiektuak: San Migel plaza barrenean baranda jartzearena eta gatz museoaren alboan dagoen udal eraikinari teilatua berritzearena, hain justu. Bestalde, Elgetan ere amaitzear daude lanak. Martxoan hasi ziren Amaral de Sousa enpresako langileak Espaloiko bidean barandak ipintzen. Jarraian, hezetasun arazoak zituen herri eskolako fatxadan konponketa lanak egin zituzten, eta baita teilatu-hodi egokia ipini ere. Azkenik, leiho berriak ipini dituzte udaletxean, aurrerantzean energia aurrezten lagunduko dutenak. Bitarte honetan, gainera, Artekale eta Domingo Iturbe kaleetan baranda berri gehiago ipini dituzte. Etxebizitza tasatuen eraikinaren parean dauden eskaileretan ere barandak ipintzea gelditzen zaie.

### IRIZAR JAUREGIA, ABENDURAKO

Herri gehienetan, dena dela, ekuadorrean daude lanak. Bergaran, maiatzean hasi ziren Irizar jauregia goitik behera zaharberritzeko obrak. Aldundiaren Ondare departamenduko teknikariek ezarritako irizpideak jarraitzen dituzte horiek –eraikinaren barruko distribuzioa eta izaerak mantentzea, babestutako ondare den heinean–; bestetik, berrituta dagoenean hezkuntzarako erabilera izango duenez, bada ezaugarri horiek dituen egoitza baten beharrak beteko dute. Bestalde, irisgarritasuna bermatuko dute. Hain justu, egiten ari den lan nagusietako bat da igogailua jartzea.

Lanok Goitu eraikuntza enpresak egiten dihardu; hari esleitu zizkio Udalak 1.109.478 eurotan. Abenduaren 10erako amaituta egotea aurreikusten dute.

### ERREKALDEN, 6. FASEAN

Oñatin ere maiatzaren bukaera aldean hasi ziren Errekalde auzoari itxura berria ematen. Hankaz gora dago orain auzoa. Udalak eta Obegisa enpresak egindako plangintzaren arabera, obrak zazpi fasetan egitea aurreikusita dago eta dagoeneko seigarrenean daude. Hau da, lehen hiru faseetan Moiua kaleko bidegurutzetik Errekalde herri eskolara artean, ezkerreko espaloia jaso dute. Laugarren, bosgarren eta seigarren faseak alderantzizko noranzkoan egin dituzte; hain zuzen ere, eskuineko espaloian. Azken fasea Moiua kalean egingo dute.

Proiektu hori 700.000 bat eurotan adjudikatu da eta aurreikuspenen arabera, azaroaren 30erako lanak amaituta egon beharko litzateke.

### ARRASATEN, HIRUTIK BAT

Bergara eta Oñatirekin alderatuta, Arrasaten hiru proiektu egingo dituzte. Udal eraikinak sarez konektatzearena dagoeneko amaituta dago; eta gainerako biak –Gelmatik Nafarroa etorbiderainoko gunea urbanizatzea eta Musakolako kiroldegiaren egitura sendotzea– bidean.

Azken horretan barruko igerileku handia iragazgaiztu eta sakonera egokituko dute. Hori dela-eta, Udaletik jakinarazi dute, irailean, kanpoko igerilekua itxitakoan, ezin izango dutela barrukoa zabaldu eta, hortaz, igerileku barik egongo direla herrian. Hori horrela, abonatuei eskaintza bereziak egingo dizkietela iragarri dute. Irailean emango dute eskaintza horien berri.

### ESKORIATZAN, JOAN DEN ASTEAN

Bestalde, Eskoriatzan dagoeneko Luis Ezeiza eta Gaztañaduiko argiteria publikoa aldatuta dago eta joan den martitzenean, askotariko erabilerako aretoaren lanekin hasi ziren. Goitu Eraikuntzak du horien ardura, eta bost hilabeteko epean bukatuko dituzte. Udaletik azaldu dutenez, orain lokala hustu eta sabaia, lehenengo

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin
JUAN ZELAIA
X. Saiakera saria
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
Saria: 9.000 €
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
Irailaren 30a arte
Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com




ziren berritzen.



Elgetako udaletxean leihoak aldatu dituzte.



Baranda, Leintz Gatzagako plazan.

## Egiten ari diren proiektuetarako Espainiako Gobernuak aurreikusitako dirulaguntzak (eurotan)

| | |
|---|---|
| **ANTZUOLA** | |
| Ur biltegia eraikitzea | 192.551 |
| Antigua eta Errekaldeko argiteria berritzea | 39.239 |
| **ARAMAIO** | |
| Nabe industriala eraikitzea | 100.000 |
| Goiko errotako ur zikinak Ibarrara eramatea | 55.929 |
| Olaetan suaren kontrako azpiegiturak hobetzea | 5.042 |
| **ARETXABALETA** | |
| Lausittako saneamendu eta horniduraren gaineko plana | 324.000 |
| Bolinaga auzora doan bidea hobetzea | 237.061 |
| Argiteria publikoaren energia-eraginkortasuna neurtzea | 24.000 |
| Belorrieta, Loramendi eta Mitarte hobetzea | 11.282 |
| Udaletxean dauden traba arkitektonikoak kentzea | 18.000 |
| Udal futbol zelaiko galdara gela berritzea | 50.542 |
| Ponpaketa instalazio eta ur biltegien arteko sareak hobetzea | 36.045 |
| Tailer sarea eratzea | 17.549 |
| **ARRASATE** | |
| Gelmatik Nafarroa etorbiderainoko gunea urbanizatzea | 850.000 |
| Musakolako kiroldegiaren egitura sendotzea | 1.170.000 |
| Udal eraikinak sarez konektatzea | 355.500 |
| **BERGARA** | |
| Irizar jauregia berritzea | 1.594.151 |
| **ELGETA** | |
| Udaletxeko leihoak aldatzea | 35.209 |
| Ikastetxeko itokinak konpontzea | 42.441 |
| Herrian barandak jartzea | 35.861 |
| **ESKORIATZA** | |
| Askotariko erabilerako aretoa egitea | 399.299 |
| Gaztañadui eta Luis Ezeiza inguruko argiteria publikoa berritzea | 40.805 |
| **LEINTZ GATZAGA** | |
| Plaza barreneko baranda jartzea | 4.014 |
| Museoan dagoen biltegiko teilatua berritzea | 24.180 |
| **OÑATI** | |
| Errekalde auzoaren eraberritzea | 1.169.289 |

DATUA

**6,8**

**MILIOI EURO**

Horixe da Debagoieneko udalek eta Aramaiok Espainiako Gobernuak 2010 urterako onartu duen Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondotik jasoko duten diru kopurua.

solairuko harmailak eta kanpoko fatxada txukunduko dituzte. Horrekin bukatuko dituzte lanok eta bigarren faserako utziko dituzte jarlekuak eta soinu eta intsonorizazio ekipoak egokitzea.

**ARETXABALETAN, BIDEA MOZTU**

Aretxabaletan ere egunotan hasi dira proiektu potolo baten lanekin. Lausitta kaleko etxe txikietako azpiegiturak berritzen hasi dira. Ur zikinen hodiak bideratu behar dituzte, errepidearen beste aldean dagoen zaharren egoitzako kolektorearekin elkartuz. Horretarako errepidea moztu behar dute. Lanek 223.342 euroko kostua daukate eta Erga eraikuntza enpresak egiten dihardu.

Bestalde, Bolinagako baserrietara doan bidearen lanak orain dela bi aste hasi zituen Galdiano enpresak. Bideari eusgarria jartzen dabiltza, lurrak ez daitezen behera etorri berriro. Bidea itxita dago eta Bolinagako bizilagunak Areantza auzotik bueltan egiten dituzte joan-etorriak. Udaletik esan digute hil bukaerarako bidea zabalik egon beharko litzatekeela. Antzuolan, berriz, Lizarraga auzoko Abaroko iturri ondoan ur biltegia egiten hasi dira.

**ARAMAION, EZ DIRA HASI**

Aramaio da Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Fondoarekin egingo dituen proiektuak hasi ez dituen herri bakarra. Dagoeneko esleituta baldin badaude ere, hainbat paper falta dira obrak has daitezen. Besteak beste, *Baserri Barri* proiektuarendako eraikina egingo dute horrekin.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
UZTAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ARRIKRUTZ oñatiko kobak


ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA
Bidali KLUBA PANPINA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ELHUYAR fundazioa


ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA
Bidali KLUBA EUSKALTEL [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
esait


EUSKALTELEKO KAMISETA
Bidali KLUBA EUSKALTEL [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
euskaltel Euskadi


SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA
Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01


SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*



Alvaro Arrizabalaga –indusketen zuzendaria– eta ikasleak Lezetxikitik bueltan, aurtengo lanak bukatuta. GOIATZ ARANA

**INDUSKETAK** > LEZETXIKI

# Alvaro Arrizabalaga: "Aztarnak ateratzen jarraitzea izugarria da"

Zapatuan eman zituzten bukatutzat Lezetxikiko aurtengo indusketa lanak; apartekorik ez, baina material asko atera dute oraingoan ere



Arrizabalaga datuak jasotzen, ikasleen begiradapean. ARANZADI

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

Alvaro Arrizabalagak gogoan du oraindik hasierako proiektua, bost urterako zen hura. Aurtengoa 15. ekinaldia izan da, materiala ateratzen jarraitzen dute eta oraindik ez dute hondoa jo. "Azken egunetan dezente aztarna aurkitu ditugu, gainera. Horrek erakusten du hemengo lana ez dugula bukatu; jarraitu beharko dugu beste pare bat urtetan, seguruenik", azaldu digu Aranzadiko arkeologoak. Baldintza ekonomikoak tarteko, jarraitzeko aukera izan da, hain justu, iaztik hona izan duten kezka nagusia, baina Arrizabalagak argi dauka: "Baldintza ekonomikoek ezin dute gure lana baldintzatu, bilatuko ditugu beste baliabide batzuk, baina jarraituko dugu helburua bete arte".

**17 IKASLEREN LAGUNTZA**

Hiru astetan, Madril, Bartzelona, Salamanca eta Euskal Herriko 17 ikasleren laguntza izan du Alvaro Arrizabalagak Lezetxikin. Pozik dago lantaldearekin, urtetik urtera hobera egiten duela esanez. Eta pozik ikasleak ere. 18 eta 30 urte bitartekoak dira guztiak, mutil eta neska, erdi eta erdi, gutxi gorabehera. Historia ikasten dute gehienek, baina badira Geologia edota Arkitekturako ikasleak ere. Guztiek, hori bai, oso barneratuta dute diziplina: "Ezinbestekoa da hala izatea lan honetan", gehitu du zuzendariak.

Udalako Ingurugiro Eskolan izan dute lo-lekua. Goizez eta arratsaldez jardun dute lanean egunero; zapatuetan, eguerdira arte; eta domeketan, jai. Lehen aldia izan da eurentzako batzuentzat; urteak daramatzate beste batzuek; eta datorren urtean ere bertan egotea gustatuko litzaieke denei. Hantxe izango da Arrizabalaga, hala espero du behintzat. Momentuz, Zestoako Irikaitzerako hasi da prestatzen.

IKASLEEN ESANAK



**Aritza Villaluenga**
Portugalete

"Doktore tesia ari naiz egiten hemen ateratako hartzen hezurrekin. Duela hiru urte hartz baten garezurra osorik aurkitzea sekulakoa izan zen. Fauna aldetik Lezetxiki oso interesgarria da".



**Martin Arriolabengoa**
Aramaio

"Geologia ikasketak bukatu berri ditut eta Lezetxikin ere asko ikasi dut, niri dagokidan arloari buruz eta etxe ondoko historiaz; hemen historia oso ondo ezagutzen duen jende asko dago".



**Sebastian Piedrabuena**
Arrigorriaga

"Batxilergoa egiten ari naiz ni oraindik, baina Historia ikastea da nire asmoa. Internet bidez jakin nuen Lezetxikiko indusketen berri eta animatu egin nintzen. Nire asmoak berresteko balio izan dit".

ETORKIZUNA

## Zabalkunderako proposamenak

Aurtengo ekinaldia posible egiteko erakundeetan aurkeztu beharreko txosteneko eskakizunak betez, Lezetxiki babesteko eta duen garrantzia gizarteratzeko proposamenak aurkeztu ditu Alvaro Arrizabalagaren taldeak. Babesteari dagokionez, jada egindako lanak –lurra publiko bihurtu, hesiak ipini, auzolandegiak antolatu...– eta horiek aurrera eramateko Arrasateko Udalak emandako laguntza nabarmendu ditu. Gizarteratzeari dagokionez, museo bat egiteko aukerak egon badauden arren, epe ertainera, hori baino posibleago ikusten du interpretazio zentro bat.

**ENPRESAK**

# Fagor, hizkuntza aniztasuna bultzatzen

Euskaraz, katalanez eta galegoz ere kontsulta daiteke webgune berria

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

Fagorrek Espainiarako daukan webgune berria estreinatu du. Berritasunen artean, nabarmentzekoa da lau hizkuntzatan dagoela. Katalana, galegoa eta euskara dira eguneratutako webgune horretan sartuko diren hizkuntzak, gazteleraz gain, gaztelera baita hasieratik dagoen hizkuntza.

Erabiltzaileengan pentsatuta, Fagorrek bere webguneko edukiak moldatu nahi izan ditu eta "Espainiako hizkuntza ofizial guztietan eman", adierazi dute Fagorretik. Modu horretan, webguneko informazioa "ulertzea eta erabiltzea" ahalbidetzen du, "erabiltzaile guztien premietara moldatuta", diote.

Gainera, webguneak aholkulari pertsonalizatuak dauzka erabiltzaileen galderei eta premiei modu errazean eta hurbilean erantzuteko. Etxetresna elektrikoetan aditu diren pertsonak, bezeroarendako arreta zerbitzua, nutrizioan adituak, teknikariak *on line* eta Karlos Argiñano bera, pirolisian aditu gisa, horiek guztiek lagunduko diete erabiltzaileei behar dutena aurkitzen.

**EUROPAKO BOSGARRENA**

Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldea Europan dagoen etxetresna elektrikoen bosgarren fabrikatzailea da. Espainian %18,2ko merkatuko kuota dauka eta 2009an 1.412 milioi euro fakturatu zituen. Munduko 130 herrialdetan saltzen du 12 marka komertzialen bitartez.

> LEHEN SEKTOREA

### Aizkorrko larreak zaintzeko ikastaroak ematen dihardute

Artzain eta landa langileak abeltzaintzarako jardunbide egokiak aplikatzeko trebatzen ari dira uztailean zehar Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioaren bitartez. Aralar eta Aizkorri-Aratz parke naturaletako larreak zaintzea eta hobetzea da helburua. Ikastaroan parte hartzen duteneei CD bat emango zaie, Interneten eta hark eskaintzen dituen aukeren inguruko informazioarekin.

TURISMOA > UDAKO ESKAINTZA

# Aurten berrikuntzen artean Intxorta eta espeleoabentura

Mankomunitateko Turismo sailak prest dauka aurtengo udako eskaintza. Webgunean jarri ditu bulegoen ordutegiak eta bisita gidatuen informazioa



Bergarako turismo bulegoan, lanean. JOSETXO ARANTZABAL

MAIDER ARREGI > ARRASATE

Kanpotik datozenendako zein udan herrian geratzen direnendako, badago zerekin gozatu gure ibarrean. Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek azaldu digu jendea hasi dela informazioa eskatzen: "Zaila da aurreikuspena egitea krisi egoeragatik. Hala ere, jendeak interesa erakutsi du, momentuz".

**MUSEOAK ETA BISITA GIDATUAK**

Bergaran, herriko erdigune historikoa ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko dituzte. Eskoriatzan, Ibarraundi Museoa ezagutzeko, aldez aurretik egin daiteke eskaera. Leintz Gatzagan, berriz, Gatz Museoa bisitatzeko aukera ere badago. Oñatin, Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentrotik bisita gidatuak antolatuko dira santutegira, baita unibertsitatera eta parrokiara ere. Arrikrutzen bada nobedaderik: kobak bisitatzeko ohiko aukeraz gain, horiek barrubarrutik ezagutzeko espeleoabentura eskaintza dago aurten. Eta Gomiztegin, euskal artzainaren ibilbideaz gozatu nahi duten bisitariek ateak zabalik izango dituzte. Elgetan, Intxortako Interpretazio Zentroa gertutik ezagutu ahalko da aurtengo udan lehenengoz. Gomendagarria da aurrez abisatzea bisita ezberdinetarako, taldeak egiteko. Informazio gehiago eskuragarri: t*urismodebagoiena.com* webgunean.

KONTZILIAZIOA > PROIEKTU PILOTUA

## Lan ordutegi malguak Bergarako Lazpiur enpresan

GOIATZ ARANA > BERGARA

Barikuan aurkeztu zuen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak enpresetako lan ordutegia aldatzera bideratutako programa pilotua, langileei lana eta familia-bizitza hobeto uztartzen laguntzeko helburuarekin. Lau enpresa aukeratu dituzte proba egiteko eta Lazpiur SL da horietako bat. Sailburuaren esanetan, ordutegi malgu batekin, lan-giroa eta bezeroekiko arreta hobeak dira eta produktibitatea handiagoa. Martxoan ebaluatuko dituzte emaitzak.

> PRESOAK

### Jon Agirre ospitaletik espetxera eraman dute; Basaurin da berriz ere

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi duenez, Jon Agirrek egubakoitzean bukatu zuen tratamendua eta orain jarraipena kartzelan egingo diotela esan diote. Preso aramaioarra uztailaren 7an sartu zuten Bilboko Basurto ospitaleko larrialdietan, infekzio batekin. Barikuan eraman zuten berriz ere espetxera.

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Esentziaren galtzea, oparotasunaren ondorio

Ni bizi naizen etxeko leihotik apenas ikusten den punkyrik dagoeneko, baina bada horren gaineko interesa duen jende asko. Joan den astean, Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, punkaren gaineko ikastaro bat egin zuten. Antolatzaileak ahalegindu dira batzuek mitifikatu, beste batzuek gutxietsi eta oso gutxik aztertu duten mugimendu horri bestelako irakurketak, sakonagoak, egiten. Hainbat adarretatik heldu diote gaiari eta asko izan dira berbagai izandako alorrak.

Horietako bat, zelanbaiteko morboa eragin duena, Arrasateko kooperatibismoaren eta bertako punkaren arteko ustezko lotura izan da. Ea batek bestea elikatu duen; edo, bestela, batak bestea suntsitu duen. Ni bigarren aukeraren aldekoa naiz. Kooperatibismoak Arrasaten eta inguruan eragin duen bizitza maila altuak inkonformismoa ezabatu egin du erabat; eta horrekin batera, punkak zeukan izateko arrazoi nagusienetako bat.

**"Bizitza maila altuak inkonformismoa ezabatu du gure bailaran"**

Bestalde, Arrasaten eta gure bailaran gauzak gure kabuz, bestelako laguntza barik, egiten iaioak garela ukaezina bada ere, gaur egungo kooperatibismoak eta baita punkak ere esentzia asko galdu dutela ezin da ukatu. Punka moda, itxura edo tendentzia hutsa bilakatu da kasu askotan; eta kooperatibismoaren oinarriak bidean gelditu dira zuzendari eta langile askoren pentsamenduan. Berpiztuko ditugu?

**> Bagara ekimenak lanean jarraitzen du eta emaitzak ikustear badaude ere, bailararen alor desberdinen benetako premien gaineko hausnarketa egitea guztiz beharrezkoa da. Ibarra bizigarria egiteko, soldatak ez direla nahikoa badakigu.**

**> AEDk ere jakin zuen ezerezetik dinamikak sortzen eta, ondorioz, hainbat proiektu sinesgaitz bideragarri egiten. Kontzientzia, irudimena, arriskatzea eta lan egiteko gogoa dira inmobilismo honen kontrako osagai garrantzitsuenak.**

EPAIKETA > UDALBILTZA

# Udalbiltzako auzipetuei babes sendoa ibarrean

MAIDER ARREGI > ARRASATE

Udalbiltzaren aurkako auzian 22 pertsona daude auzipetuta eta 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorra eskatzen du horientzako fiskaltzak. Eguenean, uztailaren 15ean, hasi zen epaiketa eta elkarretaratzeak egin zituzten Bergaran eta Arrasaten auzipetuendako absoluzioa eskatzeko.

**ELKARRETARATZE JENDETSUA**

*Bai udalbiltzari bai Euskal Herriari* lelopean, Arrasaten bi kontzentrazio egin zituzten: eguenean bat eta barikuan bestea.

Bergaran eguen arratsaldean egin zuten elkarretaratzea eta 120 lagun inguru batu ziren. Udaleko alderdi ezberdinetako ordezkariak –Ezker abertzalea, EA, EAJ eta Aralar–, sindikatuetako kideak eta eragile politiko eta sozial ezberdinak batu ziren, besteak beste, pankartaren atzean. Gustura azaldu dira "ateratako argazki koloretsu eta anitzagatik" eta adierazi dute akusazioak ez duela proba-oinarririk: "Egunkaria auzian bezala, bultzada politikorik gabe proba-oinarririk ez dago".




Arrasateko Herriko Plazan eguenean egindako elkarretaratzea. MIREN MANIAS

'32 claves enpresariales' liburua aurkeztu berri du Iñazio Irizarrek. Garaia berrikuntza gunean egin zuen aurkezpena: Andoni Gartziak egin zuen sarrera, eta, ondoren, Patxi Ormazabalek gaur egungo kooperatiben erronkak aztertu zituen. Irizar Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako irakaslea da. Horretaz gain, aholkularia eta idazlea ere bada.

**Iñazio Irizar** > Mondragon Unibertsitateko irakaslea

# "Komunitateari lotuta dauden eredu ekonomikoak iraunkorragoak dira"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Etorkizuna "ilun" ikusten duela esan digu Iñazio Irizarrek. Batez ere, pena handia ematen dio gazteak langabe daudela ikustea, etxean. Gizartearen erantzukizuna dela dio, "horiei aukerak eskaintzea" geure ardura da.**



Iñazio Irizar liburuaren aurkezpen ekitaldian, astelehenean, Garaia Berrikuntza Gunean. GOIENKARIA

**Noiz hasi zinen liburuarekin, eta zer dela-eta?**

Joan zen urtean, uztailaren 20an, hasi nintzen liburuarekin. Aurretik material asko jasota neukan; izan ere, hau da Arrasateko kooperatiben inguruan argitaratzen dudan laugarren liburua. Lagun kanadar bat daukat, Greg MacLeod, katedratikoa, erretiratuta dagoena. Hark eskatu zidan liburua idazteko. Helburua zen liburu dibulgatiboa izatea. Ameriketako finantza krisiak eragin du gutxi batzuk milioidun bihurtzea, oso aberats bihurtzea; baina, era berean, 25 milioi langabetu. Eta berak esaten zuen hori kooperatibetan ezin zitekeela gerta, kooperatibak daudelako oso lotuta komunitatera.

Finantzarioek egiten dutena da hiru hilabetetik behin kobratu, helburuak betetzen badituzte, eta ez zaie asko inporta 2.000 pertsona kaleratzea. Bakarrik interesatzen zaizkie epe motzeko etekinak.

**Adierazi gura izan duzue badaudela modelo ekonomikoak ez daudenak lau finantzarioen mendean.**

MacLeod-ek liburu bat idatzita dauka *From Mondragón to America*. Gura zuen adierazi badaudela modelo ekonomikoak ez daudenak lau finantzarioen mendean. Komunitateari lotuta dauden eredu ekonomikoak iraunkorragoak dira besteak baino. Horren mendean bazaude dirua dago gaur hemen eta hurrengoan Txinan, eta gainera ez zaie inporta langabezia sortu edo ez. Wall Streetekoei ez zaie inporta Chicagon zer gertatzen den, inporta zaien bakarra da gaur ze kobratuko duten.

***Ezagutzaren Kudeaketan* 2009ko Europako hamar enpresa onenen artean izendatu dute Mondragon. Horrek zer esan gura du?**

Bai, bigarren aldiz izendatu dute. Kanpoko jendeak garapen iraunkorreko ereduak azaltzen dituenean, azaltzen dute, adibidez, Arrasate, Toyota, Pixar… Guk pentsatu genuen liburu dibulgatibo bat egitea azaltzeko zela funtzionatzen duen Mondragon korporazioak.

**Mondragon taldearen 32 gako aipatzen dituzu.**

Enpresen bikaintasuna neurtzeko Europan dago EFQM eredua, eta antzerakoa dago AEBetan, Malcolm Baldrige. Liburuko 32 gakoak idazteko eredu horiek jarraitu ditugu, ez dugu ezer asmatu. Horiek dute zortzi arlo, eta arlo bakoitzak hainbat gako. Arlo bakoitzeko lau gako hartu ditugu eta horregatik dira 32 gako. Eredu horiek hartu eta horiek garatu ditugu ahalik eta ulerkorrena izateko. Saiatu gara gako bakoitza argi azaltzen.

**Laburbilduz, zein esango zenuke dela Mondragon taldearen gako garrantzitsuena?**

Elkarrizketaren batean esan izan dut munduan lehiatzeko denean ona izan behar dela. Nik uste dut apur bat hobeagoak direla Mondragonekoak aliantzetan. Nik uste dut kooperatibak horretan nahiko onak direla, beste batzuk baino hobeak. Beste arlo batzuetan japoniarrak hobeak izango dira, edo amerikarrak.

Baina denean izan behar duzu ona eta nonbaiten bereizi. Aliantzak izan daitezke arlo askotan: pertsonalean, edo dirua mugitzerakoan… Horrelako gauzetan nik uste dut eredu honek daukala garapen maila handiagoa beste eredu batzuk baino.

**Kooperatibismoaren balioak aldatu egin dira azkenaldian?**

Bai aldatu dira, lehengo gizartea eta oraingoa ez direlako berdinak. Gizartearekin batera aldatu dira. Dena doa aldatzen. Nik ez diot kooperatibismoari berezitasunik ikusten.

**Enpresa gazteek komunitate izaera dute, baina heltzean printzipio horiei eustea zaila dela diote batzuek –Henry Mintzberg - Harvard Business Review, USA–. Horrela dela uste duzu?**

Hori gertatzen da gauza askorekin. Gauza berri bat egitera zoazenean oso pozik zaude baina hortik bi urtera gauza berriak gura dituzu. Normala da hori, gauza guztietan gertatzen da. Beti egon behar duzu dinamika baten, aldaketan eta eguneratzen.

On Jose Mariak hori adierazteko zeukan oso gauza polita eta nik 32. gakoan sartu dut hori. Esaten zuen ezin garela gelditu, beti izan behar dugula esperientzia kooperatiboa.

**Helburu soziala sustatzea ezinbestekoa da, baita giza garapena ere. Kontuan hartzen dute gaur egun enpresek giza garapena?**

Beste batzuk baino gehiago bai. Ezaugarri bat da bazkideak direla ugazabak; hortaz, beti daude lotuta inguruko komunitateari. Gainera, mozkinak daudenean zati bat ematen zaio kanpoko gizarteari. Hortaz, kooperatiba bat ondo doanean doa ondo eramaten duelako dirua etxera; ematen diolako zerga mordoa bai udalari eta baita foru aldundiari ere; eta, doa ondo zati bat doalako GKE bati edo beste nonbaitera. Hortaz, diru iturri zati handi bat gizartera doa. Eta izango balitz enpresa kapitalista petopeto bat, amerikarrena, mozkin denak hara joango lirateke. Hemen geratuko lirateke bakarrik soldataren zergak eta mozkinen zergak. Baina irabazi guztiak hara joango lirateke. Kooperatiben kasuan %100 geratzen da hemen.

**Zeintzuk dira Debagoieneko enpresen erronka nagusiak?**

Lehiakorrak izatea. Merkatua oso gaizki dago eta nahi eta nahiez egin behar dituzu gauzak oso ondo kalitate, prezio eta zerbitzu aldetik. Horretarako egin behar da lana asko eta ondo. Merkatuak ipintzen zaitu zure lekuan, zuk uste arren ez dakit zer zarela. Sektore batzuk daude oso ukituta: eraikuntza, adibidez.

Norbaitek nonbaiten lanpostu bat sortuko balu liburuko ideia batekin konforme geratuko ginateke. Batez ere gazteak enplegatzeko balio badu, konforme. Guk aukerak izan genituen; orain, erantzukizuna dugu gazteei aukerak emateko.

ETEKINAK

**"Kooperatiba bat ondo doanean inguruko gizarte dena ere ondo doa"**

GAKOA

**"Nire ustez Mondragon taldekoak besteak baino hobeak dira aliantzetan"**

FINANTZARIOAK

**"Finantzarioek egiten dutena da hiru hilabetetik behin kobratu"**

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

## kale inkesta

# Dagoeneko uda sasoian bete-betean sartuta gaude. Zer da udatik gehien gustatzen zaizuna?



**Maria Jesus Elorriaga**
Langilea
Bergara

Udatik gehien gustatzen zaidana da oporrak hartzea. Beti egiten dugu irteeraren bat eta hemen inguruan ere ibiltzen gara. Eguraldi ona eginez gero, hobeto. Laster hartuko ditut oporrak, eta deseatzen nago.



**Gorka Markez**
Ikaslea
Bergara

Hondartzara joatea, igerilekura... Hori da udatik gehien gustatzen zaidana. Baita lagunekin egon eta kirol asko egitea ere. Gainera, udan ez dugu eskolarik izaten; hortaz, lagunekin egoteko denbora gehiago izaten dugu.



**Martin Alonso**
Ikaslea
Bergara

Igerilekura joatea asko gustatzen zait udan; azken finean, lagunekin jolas egitea eta kirola egitea. Baina etxeko lanetarako ere hartu behar izaten dugu denbora, eskolarik ez izan arren lana jartzen digute-eta.



**Raul Lozano**
Langilea
Bergara

Neskak arropa gutxirekin, hori da udatik gehien gustatzen zaidana. Baita eguraldi ona ere, eguzkia. Uda sasoia aprobetxatzen dut aire librean kirola egiteko, hori ere oso gustuko dut. Eta, nola ez, oporrak hartzea!

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ELGETA

**> Medikuaren kontsultaren sarreran zergatik jarri dituzte eskailerak?**

Hori da elgetar batek galdetzen duena. Medikuaren kontsultako sarreran, irisgarritasun lanak direla-eta, arrapala bat jarri dute. Arrapala horrek, baina, alde batean eskailerak ditu. Irakurleak ez du ulertzen zergatik jarri dituzten eskailera horiek. Bere ustez, dena izan beharko litzateke arrapala.

BERGARA

**> Labegaraietako espaloia egoera oso txarrean dago eta, gainera, belarrak espaloiaren zati bat jaten du**

Bergarako Labegaraietan lan egiten duen lagun batek idatzi digu. Errepide alboan dagoen espaloia oso egoera txarrean dagoela dio: "Baldosa asko apurtuta daude eta euria egiten duenean urez betetzen dira". Gaineratu du belarrek espaloiaren zati bat "jan" egin dutela; hala, espaloian "ez dira bi lagun sartzen".

BERGARA

**> 'Ehun miliak' proban laguntzen ibili direnak zoriondu gura itu irakurle batek**

Gorla gainean izan zen oñatiar batek deitu digu. "*Ehun miliak* proba ikusten egon nintzen eta antolakuntza ikaragarri ona zela iruditu zitzaidan". Gaineratu du: "Gorlako Altzasu elkartean lanean ibili zirenak zoriondu gura ditut: salda, kafea, frutak... denetarik izan zuten korrikalariek, eta giroa, aparta!".

## usteak uste

**Arantzazu Ezkibel**

# Eta, zuk zer egin dozu?

Egubakoitzian, arratsaldeko seitan urten neben lanetik. Etxera fan, eta Getarixa aldera hartu geben. Afai pasaria egin eta autora, lotara. Zapatuan itsas ertzian iratzarri eta Zumaixan gosaldu ostian, Arrasatera lanera. Arratsaldian Antzuolara fatia tokau xaten. Alardia ikusi neben, lehenengoz –zorionak antzuolar danoiri!–. Ilunkaran Aloña Mendiko karpan bueltatxo bat emun eta etxera lotara.

Domekan, Arrasate aldera, berriro be lanera. Antzuolatik beste buelta bat emun jaixak zela doiazen ikusteko, eta Oñatira, familixako bazkaira. Bazkaitik gura baino lehenau urten neben, lanian jarraiketako; badakizue, zuek gaur esku artian GOIENKARIXA izateko.

Eta, denbora guzti horretan, batzuk mendixan korrika! Morala bihar da gero! Animo, eta zorionak parte hartu dozuen danoiri!

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Obretan

"Hasi dituzte Euskal Herriko Unibertsitateko campusa eta Leioa ibar ezkerrarekin lotuko dituen tranbiaren lanak. Iñaki Arriola Garraio sailburuak, Hezkuntza sailburu Isabel Celaak eta Leioa, Sestao eta Barakaldoko alkateek –Eneko Arruebarrena, Jose Luis Marcos Merino eta Tontxu Rodriguezek, hurrenez hurren– gaur jarri dute EHUko campusa eta Leioa ibar ezkerrarekin lotuko dituen tranbiaren garaje eta tailerretako lehen harria."



**El Correo, 10-7-16.**
*http://www.elcorreo.com/vizcaya/20100716/local*

Nire herkide Iñaki Arriola Garraio sailburu ipintzea, hiru urteko haur bati akuarelak eman, eta horma margotu berriko etxe batean bakarrik lagatzea baino arriskutsuagoa da. Umeek hondartzako arearekin tunelak eta eraikinak egitea maite dute. Arriolak porlanarekin eta diru publiko kopuru izugarri batekin tunelak eta errepideak egitea maite du. Krisiak krisi, Arriolak, ginbeharrak aurpegian sortzen dion gozamena ezkutatu ezinik, Jaurlaritzaren babesean, obra publikoari ekin dio inolako murrizketa barik. Zeren gutxitu dituzte kulturako aurrekontuak, moztu dituzte baliabideak hezkuntzan, mugatu nahi dituzte sosak Osakidetzan, baina obra publikoak kenketarik gabe beti iraunen du zutik.

Eta aurrekontuetan moztu gabe segitzen dute Abiadura Handiko Trenarekin, eta orain hasi dira ibar ezkerreko metroarekin, laster Donostialdeko metroarekin jarraitzeko, jakinda beti-beti betetzen den teoria sasi-zientifiko baten poderioz, obra publikoaren aurrekontua beti hazten dela gutxienez aurreikusitakoaren %20aren gainetik.

**"Obra publikoak kenketarik gabe beti iraunen du zutik"**

**"Obrok hiriburu eta aldirietan egiten dihardute"**

Baina nahikoa da zutabeak betetzetik bizi garenon zorrozkeria eta zazpikikeria! Ahaztu dezagun nahi dugun garapen motaren gaineko eztabaida, izan gaitezen positibo eta ikus dezagun *Vaya Semanita* gehiago. Obra publikoak onura ekar dezake krisi garaian, horrela kontatu ziguten gertatu zela USAn 1929an New Deal-arekin. Obra publikoak langileentzako lanpostuak sortzen ditu, ekonomian mugimendua eragiten du eta ona da herri osoaren garapena bultzatzeko. Herri oso-osoarena? Obrok hiriburuetan eta aldirietan egiten dihardute. Komunikazioak hiriburu inguruetan hobetzen dira, eta erdigune horietatik hogei kilometro baino gehiagotara bizi garenok, ager zoriontsuko kashero batzuk baino ez gara. Esan zuen Jaurlaritzak tranbia ez zela Debagoienera iritsiko. Autobusa badaukagula-eta, zerbitzuak ez bikoiztearren. Eta kasherook, lurraldeko edozein puntutara mugitzeko denbora eta diru gehiago xahutu behar dugunok, zerbitzuak bikoiztu behar ez direla ohartu gabe, hortxe gabiltza gure zergekin bai Foru Aldundiaren eta bai Jaurlaritzaren Garraio sailak elikatzen. Gu bai positiboak!

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Goiatz Arana **Erredakzioa** Arantzazu Ezkibel, Maider Arregi, Larraitz Zeberio eta Ander Monedero **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Iturriotz izena nondik etor daitekeen erakusten duten iturri-aska baten aztarnak aurkitu dituzte **> 14**



**> BERGARA**
Hasi dituzte Errege Seminarioa txukuntzeko lanak; aldamiatu dute eraikina **> 17**



**> OÑATI**
Surf festa, musika eta akrobaziak jaso dituzte *Kalean 2010* egitarauaren barruan **> 18**



Repsol Gas etxeak Elgetako Pagatza industrialdean duen gas biltegia. LARRAITZ ZEBERIO

**ELGETA** > AZPIEGITURAK

# Gasa eta zuntz optikoa Elgetaraino igotzeko aukerarekin lanean

**ESTRATEGIKOA**
Ur-zikinen kanalizazio lanak herrira gasa eta zuntz optikoa igotzeko baliatu nahi ditu Udalak

**ZAILTASUNAK**
Finantziazioa eta herriko gas hoditeriaren kudeaketa, tartean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urte amaierarako idatzita nahi dute Elgetako ur-zikinen kanalizazioaren proiektua. "Proiektua idazten ari direla jakinda, proposatu dugu exekuzio hori baliatzeko herrira gasa eta zuntz optikoa ere igotzeko", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Gasa eta zuntz optikoa herriak dituen beharrak dira, eta ur-zikinen proiektuan sartzea kostuak aurreztea ekarriko luke. Zailtasunak zailtasun, proiektu horretan sartu behar ditugu".

**FINANTZIAZIOA**

Udal ordezkariek dagoeneko egin dituzte zenbait bilera Gas Natural eta Euskaltel etxeetako arduradunekin, eta lehenengo zailtasunak agertu dira. Bi dira nagusiki: herrian gaur egun dagoen gas hoditeriaren kudeaketa, eta proiekturako finantziazioa. "Prestutasuna ikusten dugu bai Euskaltelen bai Gas Naturalen finantziazioan parte hartzeko, baina lehenengo eta behin gasa eta zuntz optikoa Bergarako San Juan auzotik Elgetara igotzea proiektuan sartzea lortu behar dugu", adierazi du alkateak.

**GAS HODITERIAREN ERABILERA**

Beste zailtasuna da Repsol Gas etxearen eskuetan dagoela, zati handi baten, herrian gasa banatzeko dagoen hoditeria sarearen kudeaketa. "Aurreko agintaldietan, Repsol Gasekin sinatuta dagoen hitzarmen baten bidez, Elgetan hainbat lan egin ziren, tartean herriko etxeetara gasa eramateko hoditeria sarea. Orduan ontzat jo zen hitzarmenak, baina, lotuta dauka orain Udala, izan ere, gaur egun hoditeria hori ez da herriarena", azaldu du Erostarbek. Horrek esan gura du, beraz, Gas Naturalek ezingo lukeela momentuan hoditeria hori erabili. "Bagabiltza hori bideratzeko ahalegintan", azaldu du Oxel Erostarbek. "Azkenaldian herrian egin ditugun lan guztietan, esaterako, gasaren hoditeriak herriaren jabetzakoak egin ditugu", esan du.

EGUNGO EGOERA

## Zailtasunak zailtasun, estrategikotzat jotzen du Udalak gasa eta zuntz optikoa igotzea

Sestotik aurrera errekara doaz Elgetako ur-zikinak. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia da ur-zikin horien kanalizazioa egitea, eta kanalizazio hori San Juan errekan dagoen sarearekin konektatzea. Proiektu horren barruan sartzen dira baita ere Arantzeta zearra eta Olei, esaterako. Natur Gasen hoditeria, berriz, San Juan auzora arte dago eginda eta ez da Elgetaraino iristen. Repsol Gas etxeak du herrian gasaren banaketaren monopolioa, eta berak hornitzen ditu Elgetako etxeak. Pagatza industrialdean dauka gas biltegia, eta herriko gas hoditeriaren zati handiena ere bere kudeaketaren esku dago. Azkenik, zuntz optikoaren bitartez eta lurrazpiko kable bidez, hainbat zerbitzu eskainiko lituzke Euskaltelek; hala nola, Internet konexioa, telefonoa edo kable bidezko telebista.

**ANTZUOLA** > HERRIKO JAIAK

# Txinpartekin hasi eta bizitasu

Zapatuko herri afaria jendetsua izan zen; baita, hainbat motatako musika ekitaldiak ere

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Izugarriak eta ikusgarriak. Horrelakoak izan dira Antzuolako jaiak. Batez ere, berrikuntzak izan dira ikusgarriak.

Jaien hasieran izan zuten antzuolarrek aho zabalik geratzeko lehenengo aukera: hontzaren jaitsierarekin, hain zuzen: "Hontzaren jaitsiera egiten orain dela lau bat urte hasi ginen. Orain arte txinparta batzuk ateratzen zituen beheko plataformak; baina, aurten Valen Moñuxen laguntzarekin aldatu egin dugu sistema eta ikusgarria izan da. Udaletxeko balkoitik plazako oholtzara jaistean txinpartak bota ditu hontzak, denak aho zabalik utziz", dio Patxi Olaberria zinegotziak.

Eguena, nolabait esatearren, antzuolarren eguna izaten da. Hala, jendeak giro ona aprobetxatu zuen parranda ederra egiteko.

**TRIKITXARANGA, KALEAN**

Egueneko parrandaren ondoren, egubakoitzeko gisatu lehiaketan ohi baino gazte gutxiagok parte hartu zuten. "Goizeko bederatzietan hasi behar zen-eta gisatua prestatzen...", azaldu du Olaberriak.

Arratsalde partean, gaztetxeak antolatutako Trikitxaranga txarangak dantzan jarri zituen antzuolarrak. Giro ezin hobea sortu zen kalean eta antzuolarrek ederto pasa zuten jada "koadrila eguna" bilakatu den egunean.

**JOSELU ANAIEN ZALEAK POZIK**

Zapatua euritsu esnatu zen arren, antzuolarrek jakin zuten eguneko onena aprobetxatzen. Alde batetik, arratsalde partean Mairuaren Alardea izan zuten. Plazan bildutako herritarren berbetan, ikusgarria izan zen alardea: batez ere dantzak, eta mairuaren segizioa –musika eta guzti–.

Zapatuan 180 lagun inguru batu ziren herri afarian Zurrategin; eta, ilunkaran Joselu anaiek dantza jarri zuten herria. "Azken urteotan domekan jo dute eta jende gutxiago egon da, baina aurten zapatua izanda, jende mordoa egon da dantzan", azaldu du Olaberria zinegotziak.

**SALDA, JOTAK ETA PINTXOAK**

Erretiratuek salda banatzen zuten bitartean, eta jendeak gerizpea bilatzen zuen bitartean, Acordes Navarros taldeak jotak kanta zituen atzo. Nafarrek erakutsi zuten bizitasun ederra dutela; barrea eragin zuten ikusleen artean musikariek.

Jaiak amaitzeko, Anelkarrek pintxo solidarioak banatu zituen. Beti bezala, arrakasta izan zuen ekimenak. Izan ere, jatea eta edatea denon gustukoa da... Datorren urtean, gehiago eta hobeto!


Mairuaren segizioa, musika banda eta guzti.


Alardeko Generala eta haren konpainia. GOIENKARIA

ALARDEA

## Aurten egin dituzten berrikuntzekin Alardea biziagoa eta alaiagoa izan da

"Hi, mairu, jaitsi hadi zaldi gainetik", esanez hasi zuen diskurtsoa Generalak, Joseba Iparragirrek. Azken urteetako ohitura jarraituz, Generalak Mairua bere gain hartu zuen Antzuolako Herriko Plazan. Hala ere, aurtengoa ez da azken urteetako alarde berdina izan. Alaiago, biziagoa izan da aurtengoa. Berrikuntzak izan ditu, eta herritarrek gustura hartu dituzte berrikuntzok. Mairuak, esaterako, bere banda izan du aurten.

**DANTZAK ALARDEAN SARTU DITUZTE**

Alde batetik, dantzak alardean sartu dituzte. Alardea goiko eta beheko auzoetara joan zen bitartean, dantzariek makila-txiki, arku-dantza eta zinta dantzak egin zituzten plazan. Alardea plazara iritsi zenean, ostera, neskek egin zuten dantza. Hori izan zen berrikuntzetako bat. Nesken dantza berria izan da; eta, baita Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Antzuolako mairuaren martxa* ere. Bestalde, iaz *Antzuolako doinuak* lana estreinatu zuen Bergarako Udal Bandak; bada, aurten Antzuolako txistulari taldeak eta metal taldeak jo du aipatutako doinua.

**GONZALEZ CHIRLAQUE OMENDU ZUTEN**

Alarde amaieran Gonzalez Chirlaque omendu zuten. Antzuolako mairuaren martxako partitura eman zioten, eta baita jaietako zapia ere.

GASTRONOMIA LEHIAKETA

## Gisatuaren sekretua: poliki-poliki egitea

Egaña ahizpena eta Garrastazu koinatarena izan zen gisatu onena. Antzuolako III. Gastronomia lehiaketan 10 taldek parte hartu dute, guztira 26 lagunek. Goizeko bederatzietan hasita, gaztetxe aurrealdea "sukalde" bilakatu zuten. Giro onean ibili ziren lapikoen bueltan. Epaimahaikideak izan ziren: Juango Jauregi, Javier San Sebastian eta Juan Tena. Esan behar da, aurten epaimahaia nobedadea izan dela. Orain arte kanpotik ekarri dituzte epaileak.

"Okela ondo gorritu behar da, eta gero berdura guztiak polikipoliki egin", azaldu ziguten irabazleek. Gaineratu ziguten: "Olioa, gutxi bota behar da, beharrezkoa bakarrik".


**Joseba Iparragirre**
Antzuola

"Hamaikagarren urtea da General papera egiten dudala, eta hala ere urduri egoten naiz. Gaur, gainera, arazo txiki bat izan dut mikrofonoarekin. Hala ere, uste dut oso polita izan dela, eta jendea gustura geratu dela alardeak izan dituen aldaketekin. Niretzat, gaur hasten dira benetako jaiak... Alarde egunera arte nire burua zaindu behar izaten dut-eta".


**Ainhoa eta Irati**
Antzuola

"Asko gustatu zaigu gaurko alardea; gehien gustatu zaiguna alardean irten diren zaldiak izan dira. Egia esan, bukaerako abestia ez dugu abestu... Bestalde, jaiak oso ondo doaz. Guri gehien gustatzen zaiguna barraketan ibiltzea da. Orain arte asko ibili gara barraketan eta oraindik gehiago ibiliko gara!".


**Kontxi**
Elgoibar

"Lehenengo aldia da alardea ikusten dugula, eta asko gustatu zaigu. Esan dute beste urte batzuetan baino alaiagoa izan dela aurtengoa".

# narekin amaitu dute

DATUA

**20**

**LITRO SALDA**

Domeka goizean banatu zuten salda; hain zuzen, 20 litro. Erretiratuen elkarteak antolatzen du; azken hiru urteetan Florentiano Lamariano arduratu da salda egiteaz eta banatzeaz.

**53**

**KILO JAKI**

40 kilo hirugihar eta 13 kilo txistorra banatu zituen Anelkar Gobernuz Kanpoko Erakundeak atzo, domeka; batutako dirua Kongoko eta Senegaleko proiektuetarako izango da.


Anelkarrek pintxo solidarioak banatu zituen atzo arratsaldean.


Zurrategin, mutila zezentxoari errekortea egiten.


Nafarroako jota abeslaria.


Suzko zezenak ilunkara girotu zuen.


Joselu anaiek herria dantzan jarri zuten.


Alfredo Gonzalez Chirlaquek esker ona jaso zuen.


Mutikoa, jolasean.


Gisatu lehiaketako irabazleak.

ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL ETA ARANTZAZU EZKIBEL



**Maialen, Jon eta Gurutze**
Legorreta eta Zumarraga

Zumarragako Maialeni dantzak asko gustatu zitzaizkion, eta gaineratu zigun oraindik ez zuela barraketan bueltarik eman. Legorretako Jon, bestalde, alardea ikusi eta parranda egitera etorri zen Antzuolara: “Urtero etortzen gara. Alardea ikusi eta gero afaria izaten dugu. Aurten oso polita iruditu zait alardea, dantza eta guzti”, esan zuen Jonek.



**Juli**
Antzuola

"Jaietako politena alardea izaten da, baina aurten ez dut ikusi umezain egon naizelako. Bestalde, dantzak ere politak izaten dira. Lasai ibili naiz jaietan".



**Agustin**
Antzuola

"Gehien gustatu zait mairuak eraman duen segizioa. Aurten, oso polita izan da alardea. Bestalde, esan behar da jende asko ibiltzen dela lanean alardea egiteko".



**Juan Carlos Gomez**
Antzuola

"Oso ondo joan da dena; aurten bigarren urtea izan da eta lasaiago egon naiz. Beharra zegoen dantzak alarde barruan sartzeko, alaiagoa izateko".

**ARRASATE** > OSPAKIZUNA

# Uarkape frontoia dar-darka 'Harristi'-ren urtebetetze-festan

Jendetza elkartu zen zapatu eguerdian Uarkapen, 'Harristi'-ren 50. urtebetetzea ospatzeko bazkarian

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

Uztailaren 13an bete zituen 50 urte Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k. Eta nor da, bada, *Harristi*? Batek daki! Baina badu zerbait, 50 urte bete dituela-eta antolatutako bazkarian 400 pertsona bildu direnerako! Eskoriatza du lo-leku, baina Arrasate bizi-leku. Gutxi izango dira 700 gramorekin jaio eta 130 kilo harrapatu dituen gizon bizardun eta betaurrekoduna ezagutzen ez dutenak! Azken 30 bat urtetan herrigintzan eta parrandan atseden hartu barik jardundakoak lagunak ditu non nahi eta horietako asko Uarkapen bildu ziren zapatuan.

**BAZKALOSTEA: SORPRESAZ BETEA**

Bazkariko mokadu eta trago artean giroa berotzen joan zen eta kafearekin sorpresak heldu ziren: txistulariak harmailetatik behera, *Zorionak* abestia, argazki muntaia... San Ferminak Iruñean pasatzea amets-eta, datorren urterako asteburu bat ere oparitu zioten Tres Reyes hotelean! Baina jaso bakarrik ez, eman ere egin zuen: lore sorta bana eskaini zien duela lau urte galdu zuen aitari, Joxepa Arregiri eta Joseba Iglesiasi, eta bertsoak kantatu zizkien, eskuak eta ahotsa dardarka. Txikienak ere inguruan izan zituen, eurentzako eramandako gozoki poltsak noiz banatuko. Erredakziora bueltan, erromerian utzi genituen, dantzan!



Giroa ezin hobea izan zen: jendea behin eta berriz zutitu zen eta txaloak etengabeak izan ziren. J.A.

LAGUN ETA SENITARTEKOEN ESANAK



**Iban Herrarte**
Arrasateko laguna

"Bazkaltzera gonbidatu gaitu eta hemen gaude. Gizon jatorra da, denen laguna. Nik parrandan ezagutu dut gehienbat, baina bestela ere lan asko egin du".



**Julian Gurrutxaga**
*Harristi*-ren anaia zaharrena

"Gaurkoa ikusgarria izan da eta sorpresa handia familiakoentzat ere; ez genuen espero. *Harristi*-k merezi du, maitagarria da etxean eta kalean, dena ematen du beti".



**Mikel Arregi**
AGAKOko kidea

"Azken 30 urteotan lan asko egin du Arrasateko herrigintzan eta denbora tarte horretako generazio denak ezagutu ditu. Bitxia bezain normala da hori, bera ezagututa".



G.A.

**Iñaki Gurrutxaga 'Harristi'**
> Protagonista

## "400 pertsona batzea zoragarria izan da; eskerrik asko denoi!"

**G.A.** > ARRASATE

**Jaso eta eman, eman eta jaso... luze joan zen zapatuko bazkalostea. Ez zen erraza izan protagonista harrapatzea, baina *Harristi*-k hartu zuen guri ere hitz batzuk esateko tartea.**

**50 urte betetzean herri bazkaria antolatzea. Ideia bitxia zurea...**

Bitxia bai, eta asmoa aurrera eramateko jende askok egin du lan.

**Asko ematen duzula diote; gaur jasotzea egokitu zaizu.**

Bai. Bazkarian 400 pertsona batzea izugarria izan da, ez nuen espero. Eta opari pila jaso dut gero; Joseba Iglesias zenaren gurasoei, bereziki, eskerrak eman gura dizkiet lore sortarengatik.

**Nongotarra sentitzen zara?**

Ez dut ezer eskoriatzarren kontra, baina arrasatearra sentitzen naiz. 36 urte egin ditut egunero herrira etortzen, ia hutsik egin barik. Jendea da hemendik gehien gustatzen zaidana.

**Ametsik bai?**

Zoriontsu nintzateke Euskal Herrirako bakea lortu eta euskal preso politiko eta errefuxiatu denak etxean izanez gero.

**OÑATI** > GARAGARDO JAIA

# Aurten egindako aldaketekin asmatu egin dute Aloñkoek

Igeriketa sailekoek hainbat lagun omendu zituzten zapatuan; tartean, Xabier Infante *Hartza*

**LARRAITZ ZEBERIO** > OÑATI

Karpa handiagoa ipini dute aurten eta, igeriketa sailaren 25. urteurrenarekin bat egiteko, bi asteburu atzeratu dute garagardo jaia. "Leku gehiago izan dugu, jendea ibili da eta igeriketakoen zapatuko bazkaria oso hunkigarria izan zen. *Hartza* bera ere, den modukoa izanda, bigundu egin zen!", esan du Aloñako presidente Anton Intzak. "Babesleak, laguntzaileak... balore seguruak ditugu", gaineratu du. "Horrelako jendearekin zernahi egin daiteke. Eskerrik asko guztioi!".




Xabier Infante 'Hartza', egubakoitzean, garagardo karpan lanean. JOSETXO ARANTZABAL



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**INDUSKETAK** > GAZTELUONDOKO MAGALEAN

# Iturriotz izena nondik etor daitekeen erakusten duen iturria

Gazteluondoren magalean iturri-aska baten aztarnak aurkitu dituzte; Aranzadiko aditua gonbidatu dute iturriaren datazioa zehazteko



Jose Angel Barrutiabengoa, iturriaren arkuaren azpian, Gazteluondon. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Iturriotz kalearen izena, duda barik, iturri berbatik dator. Aldiz, Iturriotz kalean sekula ez da iturriren baten berririk izan.

Orain arte.

Iturri baten aztarnak aurkitu dituzte orain, Gazteluondoren magalean dagoen antzinako arkuaren barrenean. Eta aurkikuntza egin dutenek uste dute hori izan daitekeela kaleari izena ematen dion iturria.

**LURPEAN, OBREK JANDA**

Kalearen mailatik metro erdi azpira dago iturburua; ondo ezkutatuta, urtetan gainean eraiki den guztiarengatik. Adibidez, barrura sartzeko, oraingo espaloia apurtu egin behar izan dute.

Indusketak egin dituzte horretarako. Hiru lagunen artean egin ere: Jose Angel Barrutiabengoa (Arrasate, 1951) Aranzadiko kide eta indusketazaleak abiarazi zuen ekimena eta Arrasate espeleologia taldeko beste bi kidek lagundu diote, borondatez guztiek, Udalak utzitako erremintekin.

Deigarria da, adibidez, ura ateratzen hasi zaiola orain iturburuari: "Arkutik fondoraino lau metro daude. Bi aska aurkitu ditugu, edo, hobe esanda, bat, handia, bitan banatuta. Ura, filtrazio bitartez, hasierako askan batzen da, eta aska horrek gainezka egiten duenean aska txikira dator. Uste dugu egongo zirela eskaileratxo batzuk jendeak ura aska txikitik har zezan. Orain arte guztiz siku egon da ingurua. Industen hasi garenean hasi da ura ateratzen, harriak izerdi egingo balu bezala. Orain aska hustuko bagenu, bihar goizerako oraingo maila berean egongo litzateke ura", kontatu du Barrutiabengoak.

**ITURRIA BERRESKURATU GURA**

Iturriaren indusketa bukatuta, Barrutiabengoak Udalari proposatu dio iturria bistaratzea: "Txukundu eta berreskuratzea. Eskaileratxoak bistan utzi… Udal teknikariek erabaki beharko dute; baina, gutxienez, ikusaraztea".

**KALEAREN IZENAREN JATORRI**

Hala ere, bere benetako nahia litzateke erakustea iturri hori dela Iturriotz kaleari izena ematen diona.

Eta eduki baditu arrazoiak hori pentsatzeko: "Hemendik pasatzen zen Errege Bidea. Portaloian hasi eta Erdiko kaletik gora ikastetxeraino iristen zen, gero ezkerrera hartzen zuen, beste arku bat gurutzatzen zuen (gaur egun eraikitzen dabiltzan etxe inguruan), gurutzadurara joan eta Gasteizerako bidearekin bat egiten zuen. Kontuan hartuta oso antzinako iturria dagoela eta Iturriotz kalearen izena 1400. urterako aipatzen zutela, ba, izena iturri honetatik etor daitekeela uste dut".

**ARANZADIKO ADITUA ETORRIKO DA**

Izan ere, iturria antzinakoa dela badaki Barrutiabengoak: "Harriaren kalitateak eta formazioak Arbolapetako arkuarekin antzekotasun handia dauka. Badakigu Arbolapetako arkua harresiaren zati zela, eta harresia urte askoren buruan eraiki zuten, 1260a ezkero dago horren gaineko dokumentazioa, eta, akaso, iturri horio garai berekoa izan daiteke, baina norbait behar dut hori horrela den edo ez konfirmatzeko".

Eta horretarako, Aranzadiko aditu baten bisitaren zain dago: "Lagun diezadan, eraikuntzaren ezaugarrien, harri motaren eta bestelakoen arabera, eraikuntzaren datarekin".

Dena den, eta Aranzadiko aditua etorri artean, Barrutiabengoa bera dabil muturra antzinako dokumentutan sartzen, Udal Artxiboan, besteak beste.

**INKOGNITA ARGITUTA**

Jose Angel Barrutiabengoak aitortu du aspaldiko urtetan zeukan jakin-mina argitzeko proposatu eta egin dituela iturriaren indusketak: "Beti ibili izan naiz Aranzadin, indusketetan laguntzen. Eta erretiro aurreratua hartu dudanean, lehenengo gauza hauxe egin dut; izan ere, inkognita hori neukan. Gure ama Gazteluondon jaiotakoa da, 91 urte ditu eta hark beti esan izan du arku hori beti estalita izan dela, ez dela egon ezer; jende oso nagusiak ez du jakin zer zegoen hor… Eta beti pentsatu izan dut: hori begiratu egin behar da, begiratu egin behar da… orain arte".

INDUSKETA GEHIAGO

## Arrasateko gurutzadura izan daitekeena

Iturriko indusketak bukatuta, berriak erabakita ditu Barrutiabengoak, horiek ere Gazteluondon, Arrasateko gurutzadura izan zitekeena aurkitu guran, Letona historialari ezagunaren bideari jarraiki: "Badaude harri handi ezohiko batzuk, baina sekula ez da jakin zer diren. Jose Letonak esan zidan: "Hori ez da ukitu behar, Arrasateko aztarna oso inportanteak dira". Are gehiago, harriok babesteko zementuzko lauza batzuk eraikitzea agindu zuen Letonak. Bestalde, frantsesen Arrasateko inbasioaren gaineko lana egin genuenean, Parisen aurkitu genuen Arrasateko plano bat, 1811koa. Planoan puntu hau gurutze batekin markatuta dago: Errege Bidea eta Arrasate pasealekuaren arteko bidegurutzean. Uste dugu gurutzadura dela, badakigu-eta Arrasaten bazegoela gurutzadura bat. Eta harri mota honek erakusten du lan artifiziala zela. Alkateari proposatu nion hemen ere indusketa egitea; baietz esan zidan, baina etorri nintzenean guztia apurtuta aurkitu nuen, guztiz apurtuta. Norbait gogor ibili da hau apurtzen. Orain nire helburua da indusketak egitea lehenbailehen". Gurutzadura zer den ere azaldu du: "Zigorrak ezartzeko puntuak, juramentu solemneak egiten ziren lekuak. Herriaren sarrera ere seinalatzen zuen. Esaten da 1200ean Gipuzkoa Nafarroako Erresumari borondatez emateko zina hemen egin zutela".



Ustezko gurutzaduraren aztarna. U.M.

**GIZARTEA**

# Sinadurak batzen, bus zerbitzua eskatzeko

Gasteizera joateko autobus goiztiarragoa eskatu gura dute

**U.M.** > ARRASATE

Lurraldebus/Pesari autobus zerbitzu berria eskatzeko sinadurak batzen dabiltza Arrasaten. Gasteizera joan beharra daukatenak dira, batzuk unibertsitatera, beste batzuk beste zeregin batzuetara; guztiek behar dute, baina, goizean goiz Gasteizen egon. Bada, gaur egungo zerbitzuarekin berandu iristen dira: "Autobusa 06:15ean ateratzen da Eibartik, eta, herri guztiak zeharkatu ostean, 19:05ean iristen da Arrasatera. Ondorioz, Gasteizera iristen denerako 08:00ak pasata dira. 20-25 bat minutu berandu iristen da, eta unibertsitateko ikasleek, esaterako, 08:00etan hasten dituzte eskolak", azaldu du Juan Migelek. Hala, gurako luketena da "ordu laurden edo hogei minutu" aurreratzea Arrasatetik Gasteizerako autobusa.

**NON SINATU**

Eta eskaera hori egiteko sinadurak batzen hasi dira Arrasaten, baina ingurukoei ere zabaldu diete deia. "Aretxabaleta eta Eskoriatzakoei ere egiten diegu sinatzeko deialdia, pentsatzen dugu-eta han ere egongo direla ikasleak edo bestelakoak". Sinatu gura duenak telefonoz deitu behar dio Juan Migeli: 685 72 14 33.

> ELKARTASUNA

### Asteon egingo diete harrera Udaleko kideek sahararrei

Oraingo asteko eguenean, uztailaren 22an, egingo diete ongietorri ofiziala Arrasatera uda pasatzera etorri diren Saharako kanpalekuetan errefuxiatuta bizi diren gazteei. Bederatzi neska-mutiko gonbidatu dituzte ekitaldira, baita haiek hartu dituzten guraso arrasatearrak ere.

Ohi bezala, saharar gazteei harrera egiten udal ordezkariak izango dira. 17:30erako egin dute hitzordua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Oporrak Bakean egitasmoari esker etorritako sahararrak dira horiek; uztailaren hasieran iritsi dira Arrasate eta Aretxabaletara eta uda bukatu artean egongo dira gure artean.

**GAZTEAK** > GAZTETXEA

# Agertoki gaineko sabaia zergatik jausi den jakin guran

Gaztetxeko sabai faltsuko pladurrezko hamar plaka jausi egin dira; zergatia ikertzen ari dira

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Gaztetxeko sabaia behera etorri da. Gaztetxean dagoen pladurrezko sabai faltsuan hamar plaka inguru jausi egin dira, agertoki gainaldean kokatuta daudenak. Hala, ekintza larregi egon ez arren ezbeharrak erabat baldintzatzen du gaztetxeko jarduna.

Blanca Jauregi Gazteria Sailetik adierazi duenez, aztertzen ari dira erorketaren zergatia: "Teknikariak egon dira bertan, baina oraindik ez dakite esaten zergatik etorri den behera sabaia. Aztertzen ari dira, ondo begiratu beharreko kontua daeta".

**GAZTE TXOKOETAKOEI ERAGIN DIE**

Eskerrak uztailean izan dela, AGAKOk herriari begira ekintza larregi antolatzen ez dituenean. Izan ere, udan barrurako lanak: konponketak egiteko garaia da.

Ezbeharrak Txatxilipurdiren Udaixe programan izango du eragina. Gaur, hilak 19, gaztetxea barrutik ezagutzeko asmoa zuten gazte txokoetakoek; bertan bazkaltzea zen asmoa. Hala ere, ez dute bertan behera utziko: barrura sartzerik izango ez dutenez, gaztetxearen kanpoaldea ezagutuko dute. Badago-eta zer ikusi: ortua eta rokodromoa –eskalatzeko aukera izango dute–, esaterako.





Gazte bat zulatutako sabaiari begira; agertoki gainera erori dira pladurrezko plakak. JOKIN BEREZIARTUA



TXATXILIPURDI

## Surfa egiteko aukera izan zuten gaztetxoek

Uztaila aurrera doa, eta Txatxilipurdiren Udaixe programa azken txanpan ari da sartzen. Gazte arrasatearrak Zarautzera joan ziren joan den eguaztenean, Udaero ekimenean parte hartzen dutenekin batera. Hala, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko 29 gaztek hartu zuten parte surf ikastaroan, Zarauzko Surf Eskolaren eskutik. Egun osoa eman zuten Zarautzen: goizean surfa egin, hondartzan bazkaldu eta arratsaldean hondartzan lasai egon ostean, 19:00etarako bueltatu ziren.

**txaloak eta txistuak**



J.B.

## Pozik, "behingoz" zubia konponduko dutelako

Munar auzoko zubia itxita dago joan den eguena ezkero. Hainbat herritarrek erabiltzen dute zubia eta horietako batek jakinarazi duenez, zubia "oso egoera txarrean" zegoen: "Neguan, euriarekin eta izotzarekin oso arriskutsu jartzen da, eta pozik nago behingoz konponduko dutelako". Datozen egunotan, beraz, zubia ez da erabiltzeko moduan egongo.

**ZERBITZUAK**

## Bulegotik kalera, informatzea helburu

Gazte Bulegoa eta Sexologia Zerbitzua kalera irtengo dira gaur, eguenera arte

**J.B.** > ARRASATE

Bulegotik kalera irten, herriari zerbitzuen berri eman eta zerbitzu hori herritarrei modu eraginkorragoan helarazteko helburuarekin. Horretarako irtengo dira kalera Gazte Bulegoa eta Sexologia Zerbitzua gaurtik eguenera arte; hilaren 19tik 22ra arte.

Goizez informazio mahaiak kanpora aterako dituzte, Biteri plazara. Horrez gain, musikaz girotuko dute kalea. Arratsaldez, bestalde, Sexmetraiako film laburrak, bidaiak eta Arrasateko musika taldeen musika eta irudiak ikusteko aukera izango da Biterin.

**INFORMAZIO ERABILGARRIA**

Gazte Bulegoak eskainiko duen informazioa ezin da egokiagoa izan oporretarako: aterpetxe eta ikasle txartelak, ostatuak, garraiobide merkeak, interraila, aholkuak, bidaia aseguruak... Hala, Gazte Bulegokoek oporrak prestatzen dabiltzan gazte arrasatearrei deialdia egin die bertara daitezen, bertan topa dezaketelako laguntza eta informazio interesgarria. Bestalde, Sexologia Zerbitzuko informazio eskuorriak ere kontsultatu ahalko dira.

> PRESOAK

### Txus Goikoetxea arrasatearrak gose greban jarraitzen du

Txus Goikoetxea preso arrasatearra gose greban dago joan den domeka ezkero, haren senideek jakitera eman dutenez. Puertoko (Cadiz, Espainia) espetxean dago Goikoetxea. "Etengabeko tratu txarrak" salatzeko ekin zion gose grebari senideek diotenez. "Bost aldiz miatu" diote ziega azken egunotan. Azken miaketa joan den domekan izan zen: senideekin aurrez aurreko bisita izan ostean ziegara itzuli eta "hankaz gora" topatu zuen guztia. "Uko egin zion sartzeari, eta horregatik bakartu egin zuten". Astelehenean atera zuten bakartze gelatik, baina gose greban jarraitzen duela esan dute senideek.

> ZINEMA

### Egubakoitzean 'Que se mueran los feos' filma Monterronen

Monterron parkeko zinema emanaldiak aurrera doaz, dagoeneko bi film eman dituzte. Hala, egubakoitzean *Que se mueran los feos* komedia espainiarraren txanda izango da. Ordua, ohikoa: 22:30.

Filma 2010eko apirilean estreinatu zen. Javier Camara –*7 vidas* telesaileko protagonista– eta Carmen Machi –*Aida* telesailekoa– dira Nacho Garcia zuzendari duen filmeko protagonista nagusiak. Horiez gain, aktore zerrenda Espainiako beste hainbat aktore ospetsuk osatzen dute: besteak beste, Hugo Silva eta Tristan Ulloak. Amodioa eta umorea uztartzen ditu filmak eta denetariko kritikak jaso ditu.

**KULTURA** > DANTZA

# Buriatiako folklorea ikusteko aukera uztailaren 23an San Martin plazan

Errusiako errepublika horretako Baikalskie Volni taldeak egingo du emanaldia

Portugaleteko folklore jaialdira doa taldea eta handik etorriko da Bergarara


Baikalskie Volni dantza taldea. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Ulan-Ude hiriko, Buriatiako hiriburuko –Errusia siberiarra– Baikalskie Volni dantza taldeak emanaldia egingo du herrian datorren zapatuan, hilak 24, 20:30ean, San Martin plazan. Portugaleteko 36. Folklore Jaialdian izango da dantza taldea eta handik Bergarara etortzera gonbidatu du Udaleko Kultura Sailak.

Baikal laku ezagunetik hartu du izena dantza taldeak; *Baikaleko olatuak* da itzulpena.

Maila handiko dantza taldea da. Buriatiako Errepublikako eta Errusiako dantza talde ezagunenetarikoa da eta ibilbide luzea du; hain justu ere, 1961ean sortu zuten.

Gaur egun 40 lagunek osatzen dute taldea, dantzariak, musikariak, arte zuzendaria eta koreografoa kontuan hartuta.

Taldearen dantza errepertorioan daude Buriatiako folklorean oinarritutako hainbat koreografia eta horietako batzuk dira Lyudmila Ovchinnikova arte zuzendariak egindako koreografiak.

Esan beharra dago Baikalskie Volni taldearen dantzak oso erakargarriak direla; eta oso ederrak dira, baita ere, emanaldietan erabiltzen dituzten jantzi erregionalak.

**GAZTEAK**

## Surf ikastarorako izenematea zabalik

Hilaren 28an izango da, Zarautzen, hango Surf Eskolaren eskutik

**M.B.** > BERGARA
Gazteendako Udalak antolatutako udako azken irteera uztailaren 28an izango da. Hain justu ere, Zarauzko hondartzara irteera antolatu du Udaleko Gazteria Sailak eta irteera horretan surf ikastaroa egiteko aukera izango dute gazteek. Ikastaroa emango dute Zarauzko Surf Eskolako irakasleek.

Irteerak 14 euro balio du eta dagoeneko eman daiteke izena. Horretarako azken eguna da uztailaren 21a, kultura etxean (Errotalde jauregia).

Uztailaren 28an, eguaztenean, irteera izango da 10:00etan autobus geltokitik eta itzulera, berriz, 20:30 alderako aurreikusi dute. Informazio gehiagorako deitu 943 77 91 60 telefono zenbakira.


MONIKA BELASTEGI

## Patinen gainean herri osoa zeharkatzen dute gaztetxook

Kirol Zerbitzuak uztailerako antolatutako ekintzen artean patinaje ikastaroa dago. Hamabost eguneko bi txandatan banatuta, herriko hainbat gaztetxok esku hartu dute ikastaro horretan. Lehenengo txanda bukatuta, orain bigarren txandako gaztetxoak ari dira ikastaroan: hamabost bat gaztetxo, argazkian ikus daitekeen moduan. Hain justu ere, Ozaetako bidegurutzean harrapatu genituen, Labegaraietara bidean.

Ikastaroan oso ondo pasatzen dutela aitortu zuten 9 eta 13 urte bitarteko gaztetxoak eta patinen gainean herri osoan barrena kilometroak egiten dituztela ere bai.

> KULTURA

### Nevermind People taldearen kontzertua barikuan Espoloian

Nevermind People taldeak itxiko ditu hilaren 23an *Ostiral musikalak,* ohi bezala, 22:30ean, Espoloian.

Nirvanaren jarraitzaileendako hitzordua da, talde haren kantuak dituzte-eta oinarri. Hain justu, jazzaren hizkuntzara ekarri dituzte Nirvanaren kantu ezagunenak, eta horiek entzuteko aukera egongo da egubakoitzeko emanaldian.

> KULTURA

### Isabel Diez San Vicenteren argazkiak Aroztegi aretoan

Egubakoitzean beste erakusketa bat zabalduko dute Aroztegi aretoan: Isabel Diez San Vicente argazkilari bilbotarraren erakusketa. Batik bat, natura argazkietan oinarritzen da haren lana.

Erakusketa hori egongo da ikusgai abuztuaren 15era bitartean, martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.



Errege Seminarioa aldamiatuta. MONIKA BELASTEGI

HIRIGINTZA > OBRAK

# Hasi dituzte Errege Seminarioa txukuntzeko lanak

Teilatu eta leiho berriak egingo dizkiote, fatxada garbitu eta irisgarritasuna bermatu

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Dagoeneko hasi dira Errege Semiarioa egokitzeko lanak. Dagoeneko aldamiatu egin dute eraikina eta laster ekingo diete zaharberritze lanei, UNEDeko Patronatuak apirilean egindako batzarrean –permuta atzeratzea erabaki zen batzarrean– adostutako moduan.

Egiturari dagokionez, teilatu osoa konponduko dute eta baita teilatupea egonkortu ere. Horrez gain, igogailua jarriko dute eraikin barruan –solairu guztietan geratuko da–; fatxada eraberrituko dute –garbitu eta egonkortu egingo dute beharrezkoa den lekuetan zatitxorik erori ez dadin–; eraikin guztiko leihoen itxiturak berrituko dituzte eta komunak ere berriak egingo dituzte, UNEDeko ikasleendako. Lanon hasierako aurrekontua 1,6 milioi euro ingurukoa da –BEZa barne– eta horren kargu egingo dira Aldundia (%63), Kutxa (%27) eta Bergarako Udala (%10). Bestalde, lanok egiteko sei hilabeteko epea zehaztu dute.

**TEILATUPEA, EGOERA KASKARREAN**

Lanon proiektua Ina Aspiazu arkitektoak egin du, eta, proiektu horretan jasotzen duen moduan, lanok berehala egitea komeni da; izan ere, teilatupea osatzen duten solibak erortzeko arriskuan daude, paretara lotzen diren soliben buruak ustelduta daude-eta.



Roldanen margolan bat. GOIENKARIA

ERAKUSKETA

# Montse Roldanen erakusketa Nahikarin

M.B. > BERGARA

Montse Roldan arrasatearrak margo erakusketa du Nahikari tabernan uztailean. Hainbat formatutako 16 oliok osatzen dute eta, batik bat, paisaia urbanoa erakusten dute. Roldan Luis Laskurainen ikaslea da, eta Arrasateko Margo Taldeko kide. Hain justu, talde horrekin hainbat erakusketa egin ditu; Nahikarikoa da bakarka egiten duen lehena.

## 300 umek dihardu udaleku irekietan

Uztaileko udaleku irekietan 300 ume inguruk dihardu eta horietako batzuk –3-4 urteko txikitxoak– igerilekuan ikusi ditugu asteon. Bainua hartu eta gero elkartu ginen eurekin, ondo-ondo sikatu eta begiraleen laguntzarekin jantzen ari zirela. Igerilekura joatea oso gustuko duten arren, batzuek aitortu zuten uretatik irten eta gero hotz pixka bat izaten dutela. Adinaren araberako 29 taldetan dihardute aurten umeek. Udalekuen azken eguna egubakoitza izango da, hilak 23.



MONIKA BELASTEGI

oharrak

IKASTAROAK

**> Gaur da azken eguna umeen igeriketa ikastaroan izena emateko**

Udalko Kirol Zerbitzuak 2010-2011 ikasturterako antolatu dituen umeendako igeriketa ikastaroetarako izenemate epea gaur, astelehenean, bukatuko da. Talde eta ordutegiak antolatzen hastear daude eta horretarako uztailean egingo dute zozketa. Hain justu ere, 22an izango da eta behin betiko zerrendak 23an emango dituzte aditzera.

ZERBITZUAK

**> Baserri ingurunean sortutako plastikoa hilaren 27an batuko dute**

Plastikoa laga behar da Ugarrixan, granja parean; Murinondon, trenbide ondoan; eta San Juanen, eliza aurreko plazatxoan. Batze lekuetako bat aldatzeko, deitu 943 76 25 47 zenbakira.

IKASTAROA

**> Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak uztailerako**

Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardunek uztailaren 26an hasi eta 30era bitartean. Pello Muxika bergarararrak emango ditu eskolak eta guztira 10 ordu izango dira, 19:00-21:00 ordutegian. Izenematea zabalik dago eta horretarako Jardunek kultura etxean duen bulegora jo behar da edo 943 76 36 61 zenbakira deitu. Prezioari dagokionez: 18 euro euskara elkarteko bazkideendako eta 20 gainerakoendako. Izena emateko azken eguna eguaztena da, hilak 21.

IZENEMATEA

**> San Martinetako bi txosnak hartzeko deialdia zabaldu du Udalak**

San Martin jaietan San Martin plazan eta Seminarioko jolaslekuan jarriko diren bi txosnak esleitzeko izenematea epea zabaldu du Udalak. Plazako txosna irailaren 11n, 12an, 15ean eta 16an egongo da jarrita eta haren helburua da, plaza girotzeaz batera, feria egunean herriko harategiek bertako odolosteak ezagutzera emateko debalde emango dieten odolosteak saltzea. Seminariokoa irailaren 11n bakarrik egongo da eta taloak banatzea izango da helburua. Bietan ala bietan eskaerak aurkezteko epea hilaren 27ko 12:00etan bukatuko da, udaletxean.

BERTSO BAZKARIA

**> Basalgoko jaietako bertso bazkarirako txartelak salgai daude**

Egubakoitza da azken eguna txartelak erosteko Basalgokoak elkartean edo Iraho tabernan.

**AISIALDIA** > EKITALDIAK

# Surf festa, musika eta akrobaziak 'Kalean 2010' egitarauaren barruan

Pablo Maez bakarlariak kontzertua egingo du hilaren 31n eta Tianjin Acrobatic Troupe taldeak emanaldia, abuztuaren 29an



Tianjin Acrobatic Troupe taldeko kide gazteenak; abuztuaren 29an Oñatin egingo dute emanaldia. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oporretara joan aurretik, eta oporren ondoren herriko kaleak girotzeko, beste behin, *Kalean 2010* egitaraua osatu dute gaztelekuko arduradunek. Lau dira ekitaldi nagusiak: surf festa eta Pablo Maezen kontzertua, uztailaren 30ean eta 31n; Tianjin Acrobatic Troupe taldearen ikuskizuna abuztuaren 29an; eta Oñatiko bi musika talderen kontzertua, Atzeko kaleko jaietan.

**SARDINAK ETA MUSIKA**

Uztaileko azken aste bukaeran surfaren olatuak Oñatira heldukodira. Hain zuzen ere, surf festa egingo dute hilaren 30ean: sardinak izango dira protagonista arratsaldean, eta musika iluntzean. San Anton plazatxoan egingo dute festa. Sardinak erre eta salgai jarriko dituzte. Ondoren, DJ Makalak jarriko du musika Kale Zaharra girotzeko. Bestalde, *Txo* musikariak askotariko bideoak ipiniko ditu. Surfa izango da musikaren eta bideoen ardatz nagusia.

**MUSIKARIA, MURTZIATIK**

Hilaren 31n Pablo Maezek zuzenekoa egingo du San Anton plazatxoan, 22:30ean. Murtziako abeslariak 1960ko eta 1970eko hamarkadetako ukituak dituzten kantuak eskainiko ditu, bere taldearen laguntzarekin. AEBetako folka du oinarri Maezen musikak. Baina ugariak dira bere erreferente, Amos Lee, Jose Gonzalez, Ray Lamontagne, Iron and Wine, Ben Harper, Stevie Wonder eta Radiohead ditu erreferente.



Pablo Maezek kantaldia egingo du hilaren 31n. GOIENKARIA

**ABUZTUAN ETA IRAILEAN**

*Kalean 2010* programak abuzturako duen ekitaldia Txinako Tianjin Acrobatic Troupe taldeak egingo du. Hain justu ere, abuztuaren 29an, 19:00etan, emanaldia egingo dute plazan. Hirugarren urtez akrobazia ikuskizuna egingo ditu, hainbat sari lortu dituen taldeak. Helduek eta umeek osatzen duten Tianjin Acrobatic Troupe taldea.

Azkenik, Oñatiko bi musika taldek kontzertua egingo dute Atzeko kaleko jaietan, irailean. Dena den, oraindik ez dute zehaztu zein talde izango diren, eta ze egunetan egingo duten zuzenekoa.

BESTE EKINTZA BATZUK

## 'Batetik bestera' argazki lehiaketa

Gaztelekuak, urtero moduan, *Batetik bestera* argazki lehiaketako deialdia egin du, oporretara joan aurretik. 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutikoendako lehiaketa da. Irailean entregatu beharko dira erretratuak. Bi sari banatuko dituzte: lehenak 150 euro irabaziko ditu eta bigarrenak 100 euro.

Aurkeztutako erretratuekin erakusketa egingo dute, eta ikusleek, boto bidez, aukeratuko dituzte bi argazki onenak.

## Edorta Jimenezekin Bermeora bidaia

Egubakoitzerako irteera berezia antolatu dute: Bermeora joango dira. Han itsasontzia hartu eta Mundakara joango dira Edorta Jimenez idazlearen laguntzarekin. Askotariko istorioak kontatuko ditu; besteak beste, arrantzaleak eta piratak izango dira protagonista. Bermeora itzuli ondoren, autobusa hartu eta Gaztelugatxera joango dira bazkaltzera.

Eguna borobiltzeko, bazkaldu ondoren, Lagako hondartzara joango dira arratsalde-pasa.

## oharrak

JAIAK

**> Trianako jaietako zenbaki sarituak aditzera eman dituzte**

Trianako Jai batzordeak egindako zozketan bi zenbaki saritu dituzte; hain justu ere, 386 (Odriozola harategiko produktuekin osatutako saskia); eta 1.390 (Urtiagain jatetxean bi pertsonarendako afaria).

DEIALDIA

**> Dantzariendako eta danbor-joleendako izenematea zabalik**

Irailaren 28an nagusien danborradan parte hartu gura duten dantzariek (1993an jaiotakoak) eta danbor-joleek hilaren 29ra arte eman dezakete izena kultura etxean eta gaztelekuko informazio puntuan.

OSPAKIZUNA

**> 1964an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute uztailean**

1964an jaiotakoek Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailaren 24an. Parte hartu gura dutenek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035000531005l041678 zenbakian, lehenbailehen.

> KULTURA

## San Frantzisko Borjakoaren gaineko liburua eguenean aurkeztuko dute Madalenako ermitan

San Frantzisko Borjakoak Madalenan egindako egonaldiaren gaineko liburua eguenean, hilaren 22an, aurkeztuko dute Santxolopeztegiko ermitan, 11:00etan. Jose Antonio Azpiazuk idatzi du liburua. Jerardo Elortzak euskarazko bertsioaren moldaketa egin du. Bestalde, maketazioa Jabier Arriaranek egin du, eta argazkiak Joxe Fernandezenak dira. Auzotarrek dirua ipini dute liburu egiteko. Hori horrela, ale bana jasoko dute doan. Gainerakoak turismo bulegoan eta liburu-dendetan jarriko dituzte salgai.

ESKORIATZA/ARETXABALETA > GAZTEAK

# Udaero egitasmoaren azken ekitaldiak dituzte astean

Talde politak osatu dituzte orain arte egindako ekitaldietan

Gaur azken jaia egingo dute Aretxabaletako gaztelekuan

Getarian lau egun pasatzeko izenemate epea zabalik dago


Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko gazteek osatutako koadrila Deguria aldeko laino artean, joan den eguenean. TXATXILIPURDI

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Eskoriatza eta Aretxabaletako Gazteria Zerbitzuek gaztelekuekin batera abian jarritako Udaero egitasmoa azken astean sartu da. Irteera asko egin dituzte orain arteko bi asteetan, baina oraindik bukaera ematea geratzen zaie: azken festa gaur eta kostaldera irteera aste bukaeran.

**HEGAZTIRIK EZ**
Talde politak osatu dira orain arte egindakoetan, 12 eta 16 urte arteko gazteen gustuko ekintzak antolatu dituzte-eta: Gamarrako igerilekura joan dira (31 lagun eskoriatzar eta aretxabaletarren artean); eskalada egitera Egaña eta Araotzera (10 lagun); paintballean jolastu Lasturren eta gero Debako hondartzara (23 lagun); surfean ikastera Zarautzera (21 lagun); eta joan den eguenetik egubakoitzera bitartean Degurian izan dira "mila izarretako hotelean" (12 lagun). Ekintza horietako batzuetan arrasatearrak izan dituzte lagun taldeak osatzeko.

Baina oraindik ez da bukatu Udaero. Gaur, hilak 19, azken jaia egingo dute Aretxabaletako gaztelekuan. Kontzertua egongo da lehenengo The Conbicts taldearekin eta afari merienda egingo dute gero elkartutakoek.

Eta hilaren 22tik 25era bitartean, hau da, eguenetik domekara irteera egingo dute kostaldera. Getariako Askizura joango dira lau egunok pasatzera eta izenemate epea oraindik zabalik daukate. Interesatuek eta argibide gehiago gura dutenek bi herriotako Gazteria Zerbitzuetara edo gaztelekuetara jo dezatela.

ESKORIATZA > OSPAKIZUNA

# Carmen Aranburuzabalak 101 urte bete ditu osasun onarekin

Tantaia ikusteko ilusioarekin zegoen Udalaren eta erretiratuen omenaldia jaso aurretik


Carmen Aranburuzabala senide, erretiratu eta Udal ordezkarien artean. M.A.

**M.A.** > ESKORIATZA
Joan den egubakoitzean, Karmengo amabirjinaren egunean bete zituen 101 urte Carmen Aranburuzabala Azkoaga eskoriatzarrak. Omenalditxoa jaso zuen Udalak eta Olazar erretiratuen elkarteak eskainita eta tartari jarritako kandelak itzali zituen lore sorten artean.

**KALERA GUTXI**
Etxean bizi da Carmen eta gutxi joaten da kalera, ile-apaindegira eta medikuarengana bakarrik, eta iazko negura arte hilabete hasiera guztietan joaten zela kobratzera diote senideek. Osasun ezin hobea dauka, azken 30 urteotan ez da gaixotu, eta argi eta garbi esan zuen urtebetetze gehiago ospatu gura dituela. Plazan oraindik jarrita dagoen tantaia ikustea zuen ilusio eta argazkiak atera zituen bertan.

Herrian lau lagun daude 100 urte beteta, nagusiena Andres Agiriano da 103 urterekin.

**80 URTETIK GORAKOEN AFARIA**
Erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorako bazkideak omenduko ditu eguaztenean. Afari-merienda egingo dute Elixoste elkartean (19:00). 60 lagunek eman dute izena, baina guztira 132 bazkide dira 80tik gorakoak.

ARETXABALETA > LORAMENDI ELKARTEA

# Elkarteen arteko olinpiaden azken jaia egubakoitzean

Sari banaketa ekitaldia egingo dute Urbaltzen eta patata tortilla mokadutxoa eskaini

**M.A.** > ARETXABALETA
Gastronomi elkarteen arteko olinpiadak egin dituzte hainbat hilabetetan Loramendi Elkarteak antolatuta. Olinpiada horiei bukaera emateko azken jaia egingo dute egubakoitzean, Urbaltz elkartean. Sari banaketa ekitaldia ere orduantxe izango da.

**TXIKITEOA ETA MOKADUTXOA**
Muru Alde, Uratz Alde eta Urbaltz elkarteek jardun dute norgehiagokan eta hainbat proba egin dituzte: berakatz sopa; krisi menua; bolo txapelketa… Egubakoitzean jakinaraziko dute zein den irabazlea. Eta azken jai hori girotzeko trikiti doinuek lagundutako txikiteoa egingo dute lehenengo eta hiru elkarteek gertatutako patata tortilla mokadutxoa jan gero Urbaltzen.

Loramendiko kideak pozik daude lehenengoz antolatutako olinpiadek izandako erantzunarekin, nahiz eta hiru elkartek bakarrik hartu parte: "Errepikatuko dugun ekimena delakoan nago eta ea hurrengoan gehiago animatzen diren", dio Nerea Lete dinamizatzaileak. Probarik arrakastatsuena bolo txapelketa izan zen, gazte eta heldu, herritar asko elkartu zirelako.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



San Martin ikastetxeko ikasle talde bat parkean jolasean. GOIENKARIA

# 90 neska-mutiko ibili dira aurtengo udalekuetan

## Bihar, martitzena, izango dute azken eguna; hamar begiraleren ardurapean 3 eta 12 urte bitarteko 90 gaztetxok jardun dute edizio horretan

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Bihar, martitzena, azken eguna izango dute Aramaioko udalekuetan ibili diren neska-mutikoek. Ikasturteari agur esateko ordua iritsi da, beraz. Eskolak ekainean amaitu zituzten eta udalekuak bihar agurtuko dituzte, umeetako askok pena puntu batez; izan ere, primeran ibili dira gaztetxoak elkarrekin.

Aurten, 3 eta 12 urte bitarteko 90 neska-mutikok jardun dute udalekuetan, adinaren arabera banatuta. Parkean elkartu dira goizero, 10:00etan, eta 13:00ak bitartean hainbat ekintza izan dituzte egunero: auzoetara irteerak, ogia egitera, jolasak, kirol jarduerak, Otxandioko igerilekuetara irteerak eta beste hainbat.

Ana Muñoa ludotekako arduradunak eraman du udalekuen koordinazioa eta hamar begirale izan dira lanean umeekin azken asteotan. Auzoetan bizi direnek autobusa izan dute joan-etorria egiteko.

Bestetik, eguenean, Zuiako Koadrilak antolatuta Euskararen Eguna ospatuko dute Legution Zuiako 12 urtera bitarteko neska-mutikoek. Aramaiori dagokionez, barikuan amaitu zen izena emateko epea, eta, Euskara Zerbitzutik adierazi digutenez, ez da inor apuntatu.

**TXIRRITOLA: POSTAL LEHIAKETA**

Oporrei begira, Txirritola euskara elkarteak udako postalen V. lehiaketa deitu du. Bereziki hilabeteotan kanpora joaten direnei zuzenduta dago lehiaketa. Sari bakarra izango da: bi lagunendako afaria Aramaioko jatetxe baten. Epaimahaiak originaltasuna eta euskara maila izango ditu kontuan irabazlea erabakitzeko orduan. Irailaren 15era arte jasoko dituzte postalak. Posta arruntez bidali behar dira ondoko helbidera: Txirritola euskara elkartea; kultura etxea; 01160; Aramaio. Txirritolak dei egiten die herritarrei lehiaketan parte har dezaten.

**ANTZUOLA** > LEHIAKETA

# Jaso dituzte sariak balkoi politenen jabeek

Bi sari banatu dituzte, biak 90 eurokoak. Irabazleak izan dira: Buztinzuri kaleko Soraia Alonso, eta Mañarieta 9, 10, 11, 12 eta 13ko bizilagunak – Estitxu Otaegi, Iñigo Alonso, Goretti Igarza, Naiara Cuevas eta Izar Urteaga–.

Egubakoitzean banatu zituzten sariak, jaien barruan. Patxi Olabarria zinegotziak eman zizkien sariak. Irabazitakoa jasotzera joan ziren Pakita, Soraia Alonsoren amaginarreba, eta Mañarieta auzoko umeak. Aurten lehenengoz banatu dira sariak herriko jaietan.



A.E.

**ELGETA** > IBILGAILUAK

# Salbador eta Lasao kaleko bizilagunekin batzarrak

## Udalak hil bukaerarako nahi du abian ibilgailuen arautegia; egutegi bat zehaztu du bizilagunekin batzarrak egiteko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Hainbat aldaketa ekarriko ditu Udalbatzak onartu berri duen oinezko kaleetako arautegiak. Agintariek martxan nahi dute hil amaierarako. Piboteak altxatu eta bizilagunek mandoekin funtzionatzen hastea nahiko lukete egoera berriak ekar lituzkeen arazoak edo zailtasunak lehenbailehen detektatzeko. Informazioa batzarrak egingo dituzte atariz atari.

**BATZARRAK, BI ASTEOTAN**

Gaur, astelehena, Salbador kaleko merkatariekin bildutako dira udal ordezkariak, baita kale horretako 32. atariko bizilagunekin ere. Hemendik abiatuta, bi asteotan 32 batzar egitea aurreikusten du Udalak.

Bestetik, arautegi berriaren gaineko eskuorria etxez etxe banatuko dute, herritar guztiak informatuta egon daitezen.



Arautegi berriarekin ezingo da Lasao kalean aparkatu. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > TASAK

# Edateko ura eta estolderia ordaintzeko epea zabalik

## Herritarrek ordaindu beharreko tasa eta zergen berri du jasota Udalak webgunean

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Etxebizitzetara doan edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren gaineko tasaren errolda onartu du Udalak, eta ordaintzeko epea zabaldu joan den astean. Bigarren hiruhilabeteari dagokion tasa da orain ordaindu beharrekoa eta eskura egiten dutenek irailaren 13a bitartean izango dute epea zabalik. Udaletxetik pasatu beharko dute horiek. Helbideratutako ordainagirien kasuan, herritarrek ez daukate ezer egin beharrik, kontu zenbakitik kobratuko dietelako.

Herritarren bat ez badago konforme ordaindu beharrekoarekin, hilabete dauka desadostasun hori adierazteko.

Udalak herritarrei kobratzen dizkien tasa eta zergek igoerarik ez izatea erabaki zuen udalbatzak iazko azaroan onartutako ordenantza fiskaletan. Ur kontsortzioak, ostera, igararri zuen %3,96ko igoera aplikatuko zuela 2010ean ematen duen zerbitzuagatik. Hori dela eta, Udalak erabaki zuen bere gain hartzea igoera hori, iritzita egoera ekonomikoa kontuan hartuta halakorik ez dutela behar gatzagarrek.

**APARTEKO TASAK**

Herritarrek ordaindu beharreko tasa eta zerga guztien berri dauka jasota webgunean –*www.leintzgatzaga.com*– Udalak –batzuk eguneratzeko daude–, tartean ondasun higiezinen gainekoa eta ibilgailuena.

Horiekin batera aparteko tasak daude, uda sasoian ostalari eta merkatariek kalera ateratzen dituzten mahai eta aulkiengatik ordaindu beharrekoa, esaterako.



**> ARETO FUTBOLA**
Doble cero garaile Zaldibarko 24 orduko txapelketan **> 22-23**



**> TRIATLOIA**
Debagoieneko triatloi taldeetako kideak pozik egindako urtearekin **> 24**



**> MENDIA**
Alberto Iñurrategik Broad Peakeko hiru gailurrak egin ditu jarraian **> 25**

# Ugalde: "Amezketan, proba uztera behartu gintuzten"

**ARRISKUTSUA** Eguraldi kaxkarrak 'Ehun miliak' proba are zailagoa egin zuen

**BERTAN BEHERA** Korrikalarien segurtasuna bermatzeko, proba utzi erazi zieten askori



Iker Agirrebalzategi eta Xabier Iñurritegi oñatiarrak lehen kilometroak egiten, bariku arratsaldean. 'EHUN MILIAK'

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Euskal Herriko lehen ultratrail proba gogorra izango zela bazekiten lasterkariek. Baina euriak, behe lainoak eta tenperatura baxuek latzagoa egin dute lasterketa. 260 partehartzaile abiatu ziren bariku arratsaldean Beasaindik eta erdiek bertan behera utzi behar izan dute proba, askok antolatzaileek behartuta. 168 kilometro eta 23 mila metroko desnibela, guztira. Bihurrituak, zaintiratuak, babak, zauriak, muskuluen gain karga, nekea eta adorea izan dira protagonista.

Jende asko batu zen bariku gauean Gorlako Altzasu elkartean, lasterkariek bertan zuten-eta jan eta edateko lehen anoa postua. Xabier Lijo Debagoieneko koordinatzailearen arabera, "Gorlan nahiko fresko ikusi genituen korrikalariak. Batzuk larregiko azkar, beste asko –buruarekin– lasaiago zihoazen".

Gorlara heltzen lehena, Iker Karrera amezketarra, 20:55ak inguruan. Karrerak sekulako aldea atera zien atzetik zetozen Aleson eta Albizuri suhiltzaileei: Gorlan, 30 minutuko aldea eta Etxegarate inguruan bi orduko aldea ere bazeukan Karrerak. Zalantzarik gabe faboritoa zen proba irabazteko. Ikusitakoak ikusita, espero baino pare bat ordu lehenago helmugaratuko zela ere pentsatu zuten antolatzaileek. Tamalez, 18 ordu lasterketan emanda, erretiratu egin behar izan zen. "Muskuluak ezin zituen luzatu, koadrizepsa guztiz kargatuta eta muskulu-espasmoa zeukan", azaldu dute fisioterapeutek. Hala, Imanol Aleson azkoitiarrak irabazi zuen proba (25:14:18).

Debagoieneko lehena Gorlan, Argider Isasti oñatiarra izan zen. Eskarmentudun kirolaria da Isasti eta badaki iraupen luzeko lasterketetan primeran moldatzen. Atzerago, Xabier Iñurritegi eta Iker Agirrebalzategi oñatiarrak elkarrekin iritsi ziren. "Erritmo onean eta momentuz ondo ikusten dugu gure burua. Lasterketa hasi besterik ez da egin, orain dator gogorrena", kontatu ziguten oñatiarrek indarrak hartzen ari zirela Altsasun. Aipatutako hiru oñatiarrek osatu dute Debagoieneko lasterkarien podiuma.

Kontrolera iristean, txalo zaparrada handiak jaso zituena Jose Inazio Balentziaga bergararra izan zen. Jendearen animoek eta berotasunak, gau umela goxatzea lortu zuen. Gaua aurrera zihoan bitartean, kataluniarrak eta portugesak ere pixkanaka iristen hasi ziren; ikusmina sortu zuen husky arrazako txakurraz lasterka iritsi zen kataluniarrak.

Azkenak, portugesak; lasai-lasai, kontroletik azken maxima egiteko bi minutu falta zirela, goizaldeko ordu batak eta erdi inguru pasa ziren Gorlatik.

## Sailkapena

| | DENBORA |
|---|---|
| **LEHENENGO GIZONEZKOAK** | |
| Imanol Aleson | 25:14:18 |
| Iker Urizar | 26:03:09 |
| Joxelu Albizuri | 26:04:54 |
| **LEHENENGO EMAKUMEZKOAK** | |
| Nerea Martinez | 29:26:18 |
| Jaione Sasieta | 39:04:45 |
| Jone Pelaez | 41:32:44 |
| **LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK** | |
| Argider Isasti | 31:18:43 |
| Iker Agirrebalzategi | 36:53:28 |
| Xabier Iñurritegi | 37:20:08 |

ITURRIA: XABIER LIJO KOORDINATZAILEA



Jose Inazio Balentziaga bergararra txalo artean jaso zuten Gorlan. JOSETXO ARANTZABAL

**BIGARREN ZATIA, GOGORRENA**

Puntu zailenak Txindokiko tontorra eta jaitsiera izan zirela azaldu dute lasterkariek. Inguru batzuetatik ezin zela pasa diote. Hain zuzen ere, lasterketaren une horretan utzi zuten proba gehienek. Argider Isasti oñatiarrari, berriz, Ernio egin zitzaion gogorrena: "Bakarrik eta gauez pasa nuen Ernio, euri eta behe lainoaz. Ordu asko bakarrik eginda, gogorra egin zitzaidan. Bukaerako zatia, azken 10 kilometroak, izan ziren niretzako latzenak. Ez genekien noiz amaituko zen. Askok uste genuen igo eta jaitsi zela, baina, buelta asko eman behar ziren, erdi mariatu gintuen pixka bat".

Oñatiarra pozik, lehen debagoiendarra izan baita 31 ordu eta 18 minutuko denbora eginda. Eguraldia erabakiorra izan da eta hanka azpiak "xehetuta" dituela kontatu digu Isastik: "Une oro hankak bustita eta egosita izan ditut proban zehar". Orain, Isastik Mont Blanck-eko proba egingo du abuztuan Iker Agirrebazategi oñatiarrarekin batera.

**LASTERKETA BERTAN BEHERA**

Arrasatearrek ez dute zorte onik izan. Izan ere, Amezketan lasterketa eten egin zuten antolakuntzakoek. "Txindoki oso arriskutsu zegoen eta gure segurtasuna bermatzeko lasterketa bertan behera utzi behar izan genuen goizeko bostetan". Penatuta hitz egin digu Ander Ugaldek, izan ere, bere burua oso ondo ikusten zuen: "Jendea galduta eta hipotermiaz zegoen eta bidea oso arriskutsu; zoritxarrez, uztera behartu gintuzten taldean gindoazen hiru arrasatearroi. Bukatzeko gai sentitzen ginen; pena izan da lasterketa utzi behar izatea".

Lehen emakumea helmugaratzen Nerea Martinez madrildarra izan zen 29 ordu eta 26 minutuko denborarekin. Martinez hasieratik jarri zen aurretik lasterketan eta Gorlara iristen ere lehen emakumezkoa izan zen.

**ARETO FUTBOLA** > ZALDIBARKO 24 ORDUKO TXAPELKETA

# Doble cero aurten nagusi, 24 orduko txapelketan

## Txapelketan estreinatu eta 2-1 irabazi diote finalean Gazteluondo 4A taldeari

### Inoiz baino jende gehiagok jarraitu du txapelketa antolatzaileen esanetan



Doble cero taldeko kideak, finalaren ostean, garaipena ospatzen.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketari sei ordu falta izan zaizkio aurten 24 ordukoa izateko. Txapelketa zapatu goizean hasi zen, 09:00etan, eta domeka goizaldean, 03:15ak aldera amaitu zen. Aurreikusitako ordutegiak bete egin dituzte aurten, eta hori ez da gauza erraza. Finala 02:30ean hastea zen asmoa eta minutu batzuk pasata eman zioten hasiera. Trofeo guztiak banatuta zeuden 03:15ak alderako.

**TALDE BERRIA, TXAPELDUN**

Txapelketan lehen aldiz parte hartu duen Doble cero taldea nagusitu da aurten. "18 bat urteko jokalariak ditu gehienbat eta pare bat beterano", adierazi digute antolatzaileek. Finala Gazteluondo 4A talde beteranoaren aurka jokatu zuen; Zaldibarren jokatzen du aspaldian HLB izenarekin.

Finala borrokatua izan zen, oso intentsua. Gazteluondokoek sartu zuten lehenengo gola, eta Doble cerokoek berdintzea lortu zuten penalti bikoitz baten bitartez. Bost falta baino gehiago egin zituzten beteranoek eta penalti puntuaren distantzia bikoitzetik jaurtiketa eginda lortu zuten banako berdinketa Doble cero taldekoek. 25 minutukoa izan zen finala eta denbora horretan beste gauza asko ikusteko aukera izan zen. Epaileak talde bakoitzeko jokalari bana kaleratu zuen, eta Doble cerokoek bigarren gola ere egin zuten. Lehia dezente areagotu zuen horrek. Penalti bikoitzeko bi jaurtiketaren bitartez Gazteluondokoek berdintzea izan zuten, baina huts egin zuten. Jaurtiketa bat Doble ceroko atezainak gelditu zuen, eta bestea desbideratu egin zitzaien. Finaleko emaitza, beraz: 2-1.

Finala irabazita pozik ziren Doble cero taldeko kideak. Haiek ikustera hurbildutako guraso mordoa ere bai, noski. Garaikurra eta bildotsa eraman zituzten.

**NESKA BAT TXAPELKETAN**

Antolatzaileek kalkulatzen dute 20 taldetan banatuta 200-230 lagun inguruk jokatu dutela aurten Zaldibarko 24 orduko txapelketan. Guztiak mutilak, eta denen artean emakume bat: Ane Herrero. Basati taberna taldearekin jokatu du Anek eta gola sartzera ere heldu zen. Jakin dugu min hartuta amaitu zuela txapelketa, baina saria ere jaso zuen. Hainbeste mutilen artean jokatzeko ausardia erakutsi izanagatik jokalari onenaren saria merezi zuela erabaki zuten antolakuntzakoek.

**LEKUZ KANPOKO JARRERAK**

Txapelketaren aurtengo edizioak emandakoarekin gustura azaldu dira antolatzaileak. "Iaz baino lau talde gehiago izan dira txapelketan, eta esango nuke inoiz baino jende gehiago egon dela norgehiagokak ikusten", adierazi du antolatzaileen taldeko Gorka Bergaretxek. "Joko maila ere oso altua izan da. Nabaritu egiten da futbolean aritzen diren pertsonak, federatuak, daudela. Oporretan daude eta Zaldibarren jokatzen dute. Fisiko oso ona dute". Puntu ilun bakarra izan du aurtengo edizioak antolatzaileen esanetan: "Azken zortzireneko bi partidutan tentsio une oso gogorrak egon dira". Ez da ezer larririk gertatu, baina herri mailako txapelketa batean jarrera horiek lekuz kanpokoak direla uste dute antolatzaileek.



Zenbaitek, jokatzeaz gain, epaile lanak ere egin zituzten txandaka. L.Z.

INKESTA



**Ander, Oxel eta Lier**
Ikusleak

Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa oso ondo dagoela uste dute hiru gazte hauek. "Oso jokalari onak daude eta asko gustatzen zaigu hona etortzea", diote. Esan ziguten ezin izango zutela txapelketa guztia ikusi, baina ahal zuten denbora gehien egoten saiatuko zirela. Ezagunak ere bazituzten jokalarien artean: Lierrek kiroletako maisua, esaterako. Hirurek dute argi egunen baten txapelketan jokatuko dutela. "Bai, gustatuko litzaiguke", esan ziguten.



**Aitor Urtubi**
Abokajarro taldekoa

"Maila handia dago eta talde asko daude. Horregatik dago hain ondo txapelketa hau", esan zigun. Aurten, gainera, gauza oso orekatuta ikusi du. "Eta taberna inguruan sortzen den giroa oso ona da".



**Mikel Gonzalez**
Doble Cero taldekoa

"Lehen aldia dut txapelketa honetan", esan zigun Mikelek. "Gogorra izan da, baina oso ondo pasatu dut. Lagunartean egiten den txapelketa da honakoa eta jende gaztea gara gehienbat. Giro bikaina dagoela uste dut".



**Patxi Orobengoa**
Steaua Grifo taldekoa

"Herriko jende asko elkartzen gara txapelketa honetan eta giro polita sortzen da. Barre batzuk botatzen ditugu lagunartean". Lehen aldia izan du Patxik 24 ordukoan. "Zaldibarren askotan jokatu dut, eta aurrenekoz".



MIKEL VIGUERA



Zaldibar frontoiko hormak, batzuetan, bere eragina du jokoan. JOSETXO ARANTZABAL



Aldaketak emateko gertu daudenak, sufritzen. L.Z.

## Emaitzak

**LEHENENGO FASEA**

| | |
|---|---|
| > Carboneros-Intermitentes | 0-1 |
| > Schalke temeto-Doble cero | 0-3 |
| > Gary Cooper-Basati taberna | 2-0 |
| > Jabulani-Gazteluondo 4A | 1-4 |
| > Aboka-Las aguilas tropicales | 3-2 |
| > Aurten bai THC-Aldapa | 0-2 |
| > Kajoi taberna-Txus United | 3-1 |
| > Txuntxuneroak SC-Lasagabaster | 1-2 |
| > Carboneros-OCB | 1-3 |
| > Gazteluondo 4A-Txus United | 3-2 |
| > Doble cero-20 Paka | 4-2 |
| > Las Aguilas tropicales-Steaua grifo | 1-1 |
| > Gary Cooper-America | 2-0 |
| > Jabulani-Kajoi taberna | 1-5 |
| > Aurten bai THC-Txuntxuneroak SC | 1-1 |
| > Aldapa-Lasagabaster | 0-3 |
| > Intermitentes-OCB | 1-1 |
| > Shalke Temeto-20 Paka | 5-2 |
| > Aboka-Steaua grifo | 1-4 |
| > Basati taberna-America | 7-4 |
| > Jabulani-Txus United | 1-6 |
| > Aurten bai THC-Lasagabaster | 1-3 |
| > Kajoi taberna-Gazteluondo 4A | 0-4 |
| > Txuntxuneroak SC-Aldapa | 1-4 |

**FINAL ZORTZIRENAK**

| | |
|---|---|
| > Gazteluondo 4A-Carboneros | 3-1 |
| > Lasagabaster-20 Paka | 2-2 |
| > Kajoi taberna-Aboka | 4-2 |
| > Aldapa-Basati taberna | 1-3 |
| > OCD-Las Aguilas tropicales | 5-1 |
| > Doble cero-America | 3-2 |
| > Intermitentes-Steaua grifo | 5-1 |
| > Shalke Temeto-Gary Cooper | 1-1 |

**FINAL LAURDENAK**

| | |
|---|---|
| > Gazteluondo 4A-Lasagabaster | 3-0 |
| > Kajoi taberna-Basati taberna | 1-3 |
| > OCD-Doble cero | 1-4 |
| > Intermitentes-Schalke temeto | 3-3 |

**FINALERDIAK**

| | |
|---|---|
| > Gazteluondo 4A-Basati taberna | 2-1 |
| > Doble cero-Intermitentes | 4-2 |

**FINALA**

| | |
|---|---|
| > Doble cero-Gazteluondo 4A | 2-1 |



| Nº | hora | taldea | taldea | golak | | taldea | arbitraje |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 9:00 | D Taldea | CARBONEROS | 0 | 1 | INTER MITENTES | DOBLE CERO |
| 2 | 9:25 | E Taldea | SCHALKE TEMETO | 0 | 3 | DOBLE CERO | CARBONEROS |
| 3 | 9:50 | G Taldea | GARY COOPER | 2 | 0 | BASATI TABERNA | |
| 4 | 10:15 | A Taldea | JABULANI | 1 | 4 | GAZTELUONDO 4 | |
| 5 | 10:40 | F Taldea | ABOKA | 3 | 2 | LA | |
| 6 | 11:05 | B Taldea | AURTEN BAI THC | | | ALDAPA | |
| 7 | 11:30 | A Taldea | KAJOI TABERNA | | | TXUS UNITED | |
| 8 | 11:55 | B Taldea | TXUNTXUNEROAK SC | | | LASAGABASTER | |
| 9 | 12:20 | D Taldea | CARBONEROS | | | O.C.B. | |
| 10 | 12:45 | A Taldea | GAZTELUONDO 4A | | | TXUS UNITED | |

Emaitza guztiak fin-fin jasotzen dituzte horretarako prestatutako tauletan. J.A.



Jende andana Zaldibar frontoian, arratsaldeko partiduak ikusten. L.Z.

INKESTA



**Hamid**

America taldeko jarraitzailea

"Donostiatik etorri naiz America taldeko lagunak animatzera. Oso polita iruditzen zait txapelketa hau. Talde asko daude eta jokatzeko aukera ematen dute. Nik ere jokatuko nuke ahalko banu, baina urruti bizi naiz".



**Mikel Antxia**

Ikuslea

"Zaldibarko txapelketa ezaguna dut, baina lehen aldia da 24 ordukoa ikusten dudala. Oso aberatsa iruditzen zait herriko jende gaztea batzen duen txapelketa hau. Gainera, maila ona ikusten dut; nire aldean denak dira onak".



**Enrique eta Oihane**

Jokalaria eta ikuslea

Enrique norgehiagoka aurreko beroketa lanetan aurkitu genuen gainerako taldekideekin batera. Animoak emateko Oihana zuen ondoan. Esan zigun behin baino gehiagotan izan dela Zaldibarko 24 orduko txapelketan bere taldearekin. "Asko gustatzen zait hemen jokatzea. Emozio handiko txapelketa da eta ondo sentitzen naiz hemen jokatzen dudanean". Oihane Enrique eta bere taldea animatzen aritu zen. "Ez naiz futbol zalea, baina bera oso gustura etortzen da eta ikustera etortzen naiz ni".



**Gorka Bergaretxe**

Antolatzaileetako bat

"Jende asko etorri da txapelketa ikustera", esan digu. "Norgehiagoka asko dira, batzuk gauez... horrek bere xarma dauka. Gero, egun bakar baten jokatzen da. Noraino heltzen zaren egunean bertan jakiten duzu".



Antxintxika triatloi taldeko mutilak Hondarribiko proba amaituta. Bigarren postua eskuratu zuten taldekako Euskadiko txapelketan. ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEA

**ELKARTEAK** > URTEKO BALORAZIOA

# Debagoieneko triatloi taldeetako kideak pozik azaldu dira egindako urtearekin

## Kirolarien esfortzuak eta ahaleginak merezi izan du; ibarreko triatletek aurten lortutako emaitzek argi erakusten dute

## Harrobia sendoa da, 23 urtez azpiko kirolariek ere Euskadiko txapela jantzi dute-eta

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Aurtengoa urte emankorra izan da Antxintxika triatloi taldearendako. Inoiz baino titulu gehiago batu ditu eta Aitor Rementeria lehendakari ordea pozik azaldu da emaitzarekin: "Ia hamar urte daramatzagu eta hau izan da urterik onena guretzat. Gazte asko animatu da eta taldea hazi egin da. Zaletasuna goraka doa eta dagoeneko 55 kide ditugu".

Harrobi oso sendoa datorrela azaldu digu Rementeriak: "Duatloi eta triatloietan 23 urtez azpikoek izan duten gorakada eta erakutsitako maila bikaina guztiz azpimarragarria da. Txikitatik dabiltza gurekin txapelketatan; ikasketak eta kirola uztartzeko gai izan dira".

Makina bat titulu lortu dute Antxintxika taldekoek aurten. Duatloiei dagokienez, Euskadiko eta Nafarroako duatloi zirkuituko taldekako sailkapenean lehenak izan dira. Horrez gain, taldeko Alex Agirretxe izan da Euskadiko txapelduna duatloi luzean. Gurutz Larrea, berriz, 23 urtez azpikoen Euskadiko duatloiko zirkuituko txapelduna izan da. Neguko txapelketari dagokionez, Juan Martin Elexpuruk Euskadiko txapela eskuratu du neguko duatloian, eskiekin egindako proban. Triatloian, Mikel Mujika da Euskadiko txapelduna 23 urtez azpikoen mailan.Taldeka ere primeran moldatzen dira. Euskadiko txapelketan bigarrenak izan ziren Hondarribin; Zarautzen, aldiz, hirugarrenak, Euskadiko doble olinpiko mailan.

Lorpenak lorpen, probak antolatzen ere badabiltza: Soraluze-Bergara krosa azaroaren 6rako.



Iban Isasti Oñatiko triatloi taldeko kidea *Inferno triatlon* proba gogorra egiten 2008ko irailean. GOIENKARIA

ESANAK

**"Inoiz baino titulu gehiago batu ditugu; denboraldiaren balorazio positiboa egiten dugu"**

**Aitor Rementeria** > Antxintxika

**OÑATIKO TRIATLOIA OSASUNTSU**

Oñatiko triatloi taldeak ere urteko balorazio ona egin du. Jesus Cantero taldeko kideak taldeka egindako bi txapelketa azpimarratu nahi izan ditu: Senperekoa eta Hondarribikoa. "Beste lasterketetara baino jende gehiago joan gara Senpere eta Hondarribikoetara: 10-15 bat kide jai giroan eta disfrutatzeko helburuarekin".

Datorren urtean Oñatiko duatloi txapelketa hogeigarrenez egingo da. Edizio gehien dituen txapelketa da Oñatikoa. "Txapelketak oihartzuna izatea lortu dugu eta geroz eta parte-hartzaile gehiago ditugu; beti 300 baino gehiago", dio Canterok.

Une honetan Oñatiko taldeak 30 kide ditu. "Gure helburua da aurpegi berriak izatea; igeriketa edota bestelako kirolen bat egiten dutenak animatzea. Hutsetik hasi nahi dutenek ere badute tokia". Une honetan Miriam Odriozola da taldeko emakume bakarra. Odriozolak urte polita egin du: "Miriamek aurten pare bat triatloi egin ditu eta oso ondo ikusi du bere burua. Neska gehiago nahi ditugu taldea osatzeko". Canterok lasterkariek egindako lana ere nabarmendu nahi izan du: "Iñaki Pelayok Zarautzeko proba bikain egin zuen. Eta 23 urtez azpikoetan, Gorka Anduaga eta Iban Perez bikain ibili dira". Beteranoen artean, aipamena merezi dute Jabier Zelaiak eta Jesus Canterok: Zelaiak distantzia luzeko probetan maila bikaina azaldu du; Canterok, berriz, taldekakoetan. "Azpimarratzeko modukoa da Unai Pedregalek Donostiako sprintean egindako lana. Ondoren istripua izan zuen eta ezin izan zuen Donostiako proba olinpikoa egin. Taldekideon partetik animuak eman nahi dizkiogu. Zorionez, pixkanaka hobera doa eta laster errekuperatzea espero dugu".

ESANAK

**"Oñatiko duatloiaren XX. edizioa egingo da datorren urtean; euskal probarik jendetsuenetakoa da"**

**J. Cantero** > Oñatiko triatloi taldea

Oñatiko triatloi taldeko kide Julen Kortabarriak ere denboraldi ona egin du. Herrian egiten duten duatloi probaren gainean hitz onak baino ez ditu: "Gero eta jende gehiagok kontuan hartzen duen hitzordua da. Gainera, oso proba konpletoa da. Triatloiak egiten dituzten askok Oñatiko proba egin nahi izaten dute". Herrian maila polita dagoela ere azaldu digu. "Gogorra da askotan, baina esfortzuak merezi du". Kortabarriarendako, ordea, urtea ez da amaitu. Abuztuaren 1ean, Iron Man proba latza egitera joango da Erresuma Batura. Entrenamendutan buru-belarri dihardu Kortabarriak. Bergaran bizi den zornotzar batekin joango da Iron Man probari aurre egitera. Zorte on!

**SELEKZIOA** > ALDARRIA

## ESAITen mendi martxa Elgetara iritsiko da

### Abuztuaren 4an iritsiko dira parte-hartzaileak Elgetara; egun osoko jaia antolatu dute

**A.E.** > ELGETA
ESAITek antolatzen duen Euskal Herriko selekzioen aldeko martxa Ustaritzen hasiko da uztailaren 31n eta Trebiñon amaitu abuztuaren 8an. Abuztuaren 3ko etapa Maulen bukatuko da, eta hurrengo egunean parte-hartzaileak Elgetara etorriko dira autobusez. Egun osoko jaia egingo dute bertan; herri kirol jaialdia eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste.

Elgetako Udalak aho batez onartu du ESAITen mozioa eta herrian atxikimenduak lortzeko ekimena martxan jarri du. Antolatzaileek gogora erazi dute zabalik dagoela martxa horretan izena emateko epea eta 100 laguneko muga ipini dutela. Parte hartu gura duenak 200 euro ordaindu beharko ditu. Izena emateko deitu 615004202 –Txiki– edo 617168968 –Asier– telefonoetara.

**ATLETISMOA** > PERTIKA

## Maialen Axpe zazpigarrena izan da Espainiako lehian

**A.E.** > ARRASATE
Maialen Axpe arrasatearrak lan bikaina egin du Avilesen jokatu den Espainiako txapelketa absolutuan. Pertika jauzian zazpigarren postua eskuratu du Bedoñako gazteak, 3,65 metroko jauzia eginda.

Zapatuan jokatutako finalean Naroa Agirre izan zen onena: donostiarrak 4,15eko jauziarekin eskuratu zuen urrezko domina. Bigarrena, Anna Maria Pinero izan zen, eta hirugarrena Marta Casanova.

**GAZTE MAILAKO ATLETA**

Axpe gazte mailako atleta da; hala ere, Espainiako hamar pertika jauzilari onenen artean dago. Arrasatearraren marka onena 3,70 metrokoa da, baina zapatuan ezin izan zuen marka horretara iritsi.

> FUTBOLA

### Aitor Fernandez arrasatearra Espainiako 19 urtez azpikoen selekzioarekin dago Frantzian

Caenen jokatzen dabiltzan Europako txapelketan dago Aitor Fernandez Athleticeko atezaina. Arrasatearra Luis Millak osatu duen taldean dago; hala, eguenean hasi zen eta uztailaren 30ean bukatuko den txapelketan izango da Fernandez.

Gaur egun, Athleticeko atezaina da Fernandez. Athleticeko harrobian hasitako jokalaria da eta, 2009-2010 denboraldiaz geroztik, talde nagusiko laugarren atezain moduan dihardu.




Alberto Iñurrategi aretxabaletarra espedizioko kide batekin Broad Peakeko Erdiko gailurrean. BAT BASQUE TEAM

**ALPINISMOA** > NATURGAS BROAD PEAK 2010

# Iñurrategi Broad Peakeko hiru gailurretan jarraian

### Lorpen handia da; hirurak jarraian zapaltzen dituen seigarren mendizalea da munduan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE
Naturgas Broad Peak espedizioa emankorra izan da. Alberto Iñurrategik atzo historia egitea lortu zuen. Aretxabalatarrak Pakinstango Karakorumen dagoen Broad Peak mendiko hiru gailurrak zapaldu ditu, jarraian. Lorpen garrantzitsua da, izan ere ordura arte bost lagunek bakarrik zuten marka hori.

Atzo, domeka, lortu zuen Iñurrategik gailur nagusia egitea (8.047 metro). Aurretik, baina, lan asko eginda zegoen. Barikuan, Iparreko gailurra (7.550 metro) egin zuen espedizioko kide Vallejorekin eta Zabaltzarekin batera. Aurreko astean beraiek zabaldutako bidetik egin zuten gora. Lorpen garrantzitsua da: izan ere, lehenengo aldia da euskal espedizio batek zortzimilako batean bidea zabaltzen duela.

Biharamunean, zapatuan, Broad Peakeko bigarren gailurra, Erdiko gailurra deritzona (8.013 metro), egin zuten espedizioko kideek. Egun luzea eta neketsua izan zen; 17 orduko lana izan zen. Estilo alpinoan egin zuten igoera eta oso nekatuta iritsi ziren. Elikagai barik egin zuten, gainera, azken txanpa.

**BAKARRIK ABIATU ZEN**

Zailtasunak-zailtasun Iñurrategik hirugarren tontorra egiteko prestutasuna zuen eta atzo, domeka, bakarrik abiatu zen kanpalekutik goizaldeko 03:00etan. "Lehenengo ordubetean nahiko gorputzaldi ona izan dut eta desnibel nahiko polita egin dut. Baina gosaria berehala etorri zait hankapera eta gero martirio bat izan da", adierazi du aretxabaletarrak kanpalekura iritsi ostean. "Ez neukan indarrik. Bi egun neramatzan ezer solidorik jan gabe, eta oso gutxi edanda. Gorputzak ez zeukan erreserbarik".

Asko sufrituta egin zuen aurrera Iñurrategik eta adierazi du oso lagungarria egin zaiola bidea zabalik aurkitu izana. "Eskertu behar dut aurreko egunean beste mendizale batzuk egindako lana. Gailurreraino elurra oso baldintza onetan aurkitu dut, arrastoa eginda".

## Bergarako zikloturistak Lodosara joan ziren bizikletan

Bergarako zikloturistek urtero egiten dute egun osoko irteera bat; aurten, Lodosara joan dira.

Bergarako San Martin plazatik irten ziren 7:00etan 24 lagun. Arlabanetik gora egin, eta Maeztura joan ziren bergarararrak. Han, hamarretakoa egiteko geratu ziren. 13:15ean iritsi ziren Lodosara ziklistak. El Medianil kirol elkarteko atean argazkia atera ondoren, igerilekuan dutxatu ziren bergarararrak. Ondoren, bazkari ederra izan zuten. Autobusean itzuli ziren etxera, egun ezin hobea pasa ondoren.




JESUS MARI OLABERRIA




# Antzuolako jaiak

**ANTZUOLAKO JAIEN JARRAIPENA** ***MAGAZINEA*-N**

Gaur, astelehena, 19:45, 21:45 eta 23:15ean

Goitb
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

Jon Rivero > Txirrindularia

# "Mendikoa bakarkako lana da eta errepidekoa, ostera, taldekakoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Lokatza taldeko Jon Riverok Euskadiko txapelketako txapela irabazi zuen Heredian joan den astean. Hala, Bartzelonan izan da Espainiako txapelketa jokatzen; hara joan aurretik izan gara Riverorekin.**



Jon Rivero Euskadiko txapeldunaren maillotarekin, Bergaran.

A.E.

**Zorionak, Euskadiko mendi bizikleta txapelketan lortutako emaitzarengatik!**

Eskerrik asko! Oso pozgarria izan da txapelketa irabaztea.

**Espero zenuen?**

Ez nuen inondik inora espero txapela irabaztea. Egun horretarako ondo entrenatuta nengoen. Egun bateko lasterketa izan zen; hasieratik egin nuen ihes eta gainontzekoekiko tartea mantentzea lortu nuen helmugara iritsi arte.

Sorpresa izan zen irabaztea, orain arte mendi bizikletan egin dudan postu onena laugarrena izan da-eta.

**Abenduan ziklo-krosean Gipuzkoako azpi-txapeldun geratu zinen. Nola gogoratzen duzu lorpen hura?**

Azpi-txapeldun titulua ere sorpresa izan zen. Oso pozik geratu nintzen eta esan daiteke aurten maila onean nabilela.

Errepidean bi laugarren postu egin ditut eta hirugarren postu bat ere bai. Orain arte egindako lan guztiak emandako fruituak dira lortutako emaitza horiek.

**Orain, Bartzelonara zoaz Espainiako txapelketatan parte hartzera.**

Bai, mendi bizikleta txapelketa da. Hiru egunetan jokatuko dira lasterketak eta nire saioa igandean izango da.

Lasterketa bakarra egingo dugu. Zirkuitu baten hainbat itzuli egin beharko ditugu. Ni gazte mailako bigarren urtekoa naiz.

**Mendi bizikletan eta errepidean ibiltzen zara. Zer gurago duzu?**

Bakoitzak berea du, alde onak eta txarrak. Ez nuke jakingo esaten zer nahiago dudan, biak ditut eta gustuko.

Negu partean ziklo-krosa eta errepidea egiten ditut eta uda partean mendi bizikletarekin hasten naiz.

Ziklo-krosa eta mendi bizikleta modalitate ezberdinak dira, eta bizikleta ere ezberdina da.

**Ze alde dago mendia eta errepidearen artean?**

Bizikleta bera ere diferentea da. Bestalde, teknika ezberdina behar da. Mendikoa, batez ere, bakarkako lana da; aldiz, errepidean, askotan taldeko lana egiten dugu: besteei laguntzen, esaterako.

**Irabazi duzun lasterketen artean zein duzu gustukoen? Eta, zein irabaztea gustatuko litzaizuke?**

Adibidez, Herediako zirkuitua asko gustatu zitzaidan. Aurreko egubakoitzean ibili nintzen entrenatzen eta gustura egin nuen gero lasterketa.

Errepidean, edozein lasterketa irabaztea gustatuko litzaidake. Datorren urtean, Bergarako edo Bergara inguruko lasterketaren bat irabaztea oso polita izango litzateke.

**18 urte besterik ez dituzu. Nora iristea gustatuko litzaizuke?**

Profesionala izatea gustatuko litzaiguke denoi. Baina badakigu hori zaila dela, asko entrenatu eta sufritu behar delako.

Gainera, konpetentzia handia dago ziklisten artean, maila handia dagoelako momentu honetan.

**Lokatza lan ona egiten dabil: zu zeu, Mikel Aristi... ezin ukatu emaitza onak lortzen zabiltzaten txirrindulariak zaretenik.**

SORPRESA

**"Ez nuen inondik inora espero txapela irabaztea Heredian jokatutako lasterketan"**

ETORKIZUNA

**"Badakigu profesionala izatea zaila dela, asko entrenatu eta sufritu behar delako"**

TOURRA

**"Tourmaletera joango gara mendiko etapak ikustera; ea Euskaltelek zerbait irabazten duen"**

Bai, aurtengo neguan oso entrenamendu onak egin ditugu eta orain emaitzak jasotzen gabiltza. Mikel Aristi ondo dabil eta beste guztiak ere bai.

Gainera, taldeka ere lan ona egiten gabiltza. Gipuzkoan hirugarren taldea izan gara eta lasterketa bat baino gehiagotan taldekako saria irabazi dugu.

**Esan daiteke neguan ondo entrenatzean dagoela denboraldi ona egiteko gakoa?**

Bai, neguan ondo entrenatu behar da urte guztian zehar ondo ibiltzeko. Iker Sanchez da gure entrenatzailea eta oso lan ona egiten dabil.

**Txirrindularitza kirol sakrifikatua da. Badaude ziklismoagatik alde batera utzi dituzun beste gauza batzuk?**

Beste kirol batzuekin alderatuta, oso sakrifikatua da txirrindularitza. Lagunekin irteterako orduan, edo parrandara joaterako orduan beste kirol batzuetan askoz libreago ibiltzen dira. Gu askotan ezin gara irten, hurrengo egunean entrenatu egin behar dugulako edo lasterketa dugulako. Azken finean, zaindu egin behar ditugu gure buruak.

Oraindik gaztea naiz, hortaz ikasten nabil, eta aurrera begira ere ikasten jarraituko dut. Uste dut oso garrantzitsua dela hori.

**Txirrindularitza oso zikinduta dagoen kirola da azkenaldian. Zer iritzi duzu polemika horren inguruan?**

Dopinga dela-eta neurri gogorrak hartu dituzte eta ez da modu horretan ekiditen den. Egia esan, pena ematen du horrelako kirol polita era horretan zikintzeak.

**Frantziako Tourra jokatzen dabiltza orain. Jarraitzen duzu? Eta, baduzu faboritorik?**

Bai, batez ere, mendiko etapak gustatzen zaizkit. Gainera, Pirinioetara joango gara Oñatikoekin –Tourmaletera– eta Euskalteleko lagunak animatuko ditugu. Niri gustatuko litzaidake Euskalteleko norbaitek etaparen bat irabaztea, eta faborito nagusia Alberto Contador da.

**HEZIKETA** > HARREMANAK

# Gurasoen eta umeen arteko loturak modu enpirikoan ikusita

AEBetako Mary Ainsworth eta Mary Main ikerlariek 'Egoera arrotzaren testa' erabili dute; ondorio nagusiak ekarri dizkigu Rafael Cristobalek


Umea jolasean gurasoaren zaintzapean. MIREIA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Zein da haurraren erreakzioa gurasoak testuinguru ezezagun baten uzten duenean? Arizmendi ikastolako guraso eskolako zuzendari Rafael Cristobalek interesgarritzat jotzen ditu ikerketa horren ondorioak.

**LAU LOTURA MOTA**

*Lotura segurua* du erantzun bizia duen umeak. Banaketak min egin dio, baina gurasoa itzultzen denean lasaitu egiten da. Bazekien itzuliko zela. Haur segurua, baketsua eta soziala izango da.

*Saihesteko lotura* du erreakziorik ez duen umeak. Askotan deitu dio gurasoari, baina ez du erantzunik jaso. Itxurazkoa da bere axolagabetasuna; bihotz taupadak azkartu egin zaizkio. Esploratzaile bizia izango da, baina porrot erreakzioak izango ditu. Adiskide zapaltzailea eta harremanetarako hotza izango da.

*Lotura anbibalentea* du banaketa drama bihurtzen duen umeak. Gurasoak ez dira konstanteak izan erantzunean eta haurrak ez daki itzuliko diren. Esploratzaile txarra eta pertsona posesiboa izango da. Azkenik, *ordena bako loturak* dituzten umeak daude. Desegituratutako ingurunean hazitakoak umeak dira.

Bada, antzerako gaiak jorratuko dituzte urritik aurrera Arizmendiko Guraso Eskolan.

**HEZIKETA** > HASERREAK

## Jokaera tiranikoen aurrean guraso irmoak behar dira

Maitasunaren izenean seme-alabei guztia onartzea ez da egokia; jokaera tiranikoak dituen haurra egingo dugu

**L.Z.** > ARRASATE

Gurasoek seme-alabei jokabide-kode bat irakatsi behar diete eta sistematikoak behar dute ahalegin horretan. *Consumer* aldizkarian Alicia Banderas psikologoak dio gurasoak bi muturren artean dabiltzala. "Edo eskakizunez itotzen dituzte haurrak edo dena libre uzten diete. Arazoa da gurasoaren autoritarismoa bost minutukoa izaten dela". Psikologoaren esanetan, heziketa-zereginak alboratu egin ditugu. "Errieta egin behar zaie gaizki jokatzen dutenean; norbait iraindu badu, eskutik heldu eta barkamena eskatzera eraman behar dugu; kasketa hartzen badu eta min hartzeko arriskurik ez badago, ez zaio arretarik jarri behar; eta baten bat jotzen badu irmotasunez jokatu behar dute gurasoek, eskuekin gogor eutsi eta gaizki egin duela jakin behar du".

**TINKOTASUNA, EZINBESTEKOA**

Sistematikoak izan behar dute gurasoek. Adituaren ustez, bost minutu irauten duen autoritarismoak ez du ezertarako balio. "Gurasoek batzuetan ezin izaten dute gehiago jasan, eta laxatu egiten dute soka, eta koktel horretatik zernahi atera liteke". Umeek indartsu gaudela ikusi behar dute. Baina neurrian. Ez da komeni itsutzea eta gaizki egiten duen hori soilik ikustea; jokabide onak bilatu behar dira".

Jarrera tiranikoak garaiz zuzentzen ez badira, nerabezaroan areagotu egin daitezke. Arazoa agertzen bada, eta beharrezkoa ikusten bada, laguntza profesionala eskatu behar da.

**ELIKADURA** > IZOZKIAK

## Ez da komeni izozki ugari eta maiz-maiz jatea

**L.Z.** > ARRASATE

Izozkiak gozoki edo litxarreriatzat hartu izan dira, baina hori baino gehiago dira. Jakitzat hartu beharra dago, *Consumer* aldizkariko elikadura adituen esanetan. "Izozkiek kaloria askotxo eta azukre ugari dauzkate. Gainera, gantz asko izaten dute, eta gehiena saturatua".


Umea, pozik, ur-izozkia jaten. HOLACOMOVAI

**KALORIA ASKO**

*Consumer* aldizkariko elikadura-adituen esanetan, ez da komeni izozki ugari eta maiz-maiz jatea, kaloria asko ematen dituzte-eta; azukreak ere asko izaten dituzte, eta gantza ere bai (saturatua, gehienbat, osasunari kalte handien egiten diotenetakoa).

**UR-IZOZKIEK EZ DUTE GANTZIK**

Ur-izozkiek ez dute gantzik izaten, eta ia ez dute ematen kaloriarik, eta berdin gertatzen da light erakoekin: gantz gutxi izaten dute, eta gozagarri ez-kalorikoz hornituta egoten dira. Merkatuan, bestalde, badira fruktosaz egindako izozkiak, diabetikoek jateko modukoak, eta badira, halaber, azukrearen ordez gozagarri artifizialak dituztenak ere, batere kaloriarik ematen ez dutenak ia, eta egokiak, beraz, argaltzeko dietak egiten ari direnentzat. Elikadura-adituek gomendatzen dute izozkiaren osaeraren eta osagaien berri ematen duen etiketa ondo irakurtzeko; hor ageri da noiz iraungitzen den, nola kontserbatu behar den eta zer osagai dituen.

**OSASUNA** > ERREDURAK

## Eguzkitako krema bi orduan behin eman behar da

**L.Z.** > ARRASATE

Ume txikiek ezin dute eguzkirik hartu eta argi izan behar dugu txarra dela edonorendako denbora luzez eguzkitan egotea. Ez da hartu behar gehien jotzen duen orduetan: 12:00etatik 16:00etara.

**KREMAK, EZINBESTEKOAK**

Urtebetetik aurrera umeendako bereziak diren kremak eman behar zaizkie. Asko koloredunak dira, gurasoek non eman duten eta non ez jakiteko. Babes-faktore handiko krema erabili behar dira; umeen kasuan 50etik gorakoak. Krema ikusi egin behar da azalean (bi miligramo zentimetro koadroko) eta gutxienez bi orduan begin berritu behar da, baita bereziki uretarako egokiak diren kremak ere. Alergikoak direnendako pantailak saltzen dituzte farmazietan.


Umea hondartzan jolasean. SABANNA

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



**> ARITZETA ABESBATZA**
Juan Kruz Mendizabal parrokoa omendu du Santa Marinan > 30



**> ANTZERKIA**
200 lagun Eskoriatzako Ausartak taldearen debutean > 30



**> GURE TALDEAK**
Bi urteko lana Hardflip bergararren lehen diskoan: *Ke Kereis* > 32

# Oñatiko Makalenakoen antzerki berria: 'Lizargarateko Txamao'

**ESTREINALDIA**
Irailaren 29an egingo dute lehen emanaldia unibertsitate aurrean

**APIRILETIK**
Olaitturri kultura taldekoek apirilean hasi zituzten entseguak



Ezkerretik eskuinera, Ixidro Palazin, Irati Lete, Jabier Altube, Karmen Biain eta Julen Kortabarria. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko Makalena elkartearen barruan sortutako Olaitturri kultura taldeak antzezlan berria du esku artean: hain justu ere, *Lizargarateko Txamao* estreinatuko du irailaren 29an. Inazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak idatzi dute lana, eta Oñatiko unibertsitatean gertatutako istorioa kontatuko dute. Antzezlanak bi istorio ditu: bikote batek ezkondu edo ez erabakitzeko duen auzia, bata; eta unibertsitateko ikasleen eta herritarren arteko desafioa, bestea. Protagonista nagusia *Txamao* izango da, benetako pertsonaia izandakoa; Julen Kortabarria izango da *Txamao*.

Antzezlanaren gaineko informazio zabala eta testuak *olaitturri.blogspot.com* helbidean jarri dituzte.

**GAZTEEN PARTE-HARTZEA**

Antzezlan berriaren aurkezpena egiteko prentsaurrekoa egin zuten eguenean Makalena elkartean; Ixidro Palazin, Karmen Biain, Jabier Altube, Irati Lete eta Julen Kortabarria egon ziren ekitaldian.

Azpimarratu zuten esku artean duten antzezlanean elkarteko gazte askok parte hartuko dutela. "Hori da aldaketa nabarmenena. Lan honetako pertsonaia nagusienen artean bost neska-mutil gazteak dira. Bertsolari gehienak ere gazteak dira. Makalena elkarteko bazkideen semealabak dira", esan zuen aurkezpenean Jabi Altubek.

Entseguak apirilean hasi zituzten. Eguenero biltzen dira Txantxiku ikastolako jolastokian, 19:00etatik 20:30era.

**1760. URTEAN**

*Lizargarateko Txamao* 1760. urtean kokatzen da. Oñatiko Unibertsitatea Euskal Herriko bakarra zen. 230 bat ikasle zituen, gehienak herrian bizi ziren kanpotarrak ziren. Batez ere, Zuzenbidea eta Medikuntza ikasten zuten. Elkarren artean –ikasleen eta herritarren artean– gertatuko istorioa kontatuko dute Makalenakoek. Antzezlana unibertsitate aurrean egingo dute eta ordubete iraungo du.

Orain arte moduan, sarrera doan izango da. Dena den, sarreran kutxak jarriko dituzte Argentinarako diru biltzeko. "Hermansoloñakoak egongo dira sarreran eta batutako dirua Argentinara bidaliko dute", esan zuten aurkezpenean.

**LIBURUA, IRAILEAN**

Makalenakoek Olaitturri kultura elkartea sortu zutenetik bi antzezlan egin dituzte:*Oñatiko hitzarmena* iaz eta *Lizargarateko Txamao* aurten. Bi lan horien gaineko liburua idazten dihardute Inazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak. Aurkezpena egingo dute irailean, baina ez dute eguna zehaztu oraindik.

DATUAK

**21**
**PERTSONAIA**
Horiek dira *Lizargarateko Txamao* antzezlaneko pertsonaiak. Besteak beste, ikasleak, herritarrak, lekukoak, bikotea eta *Txamao* igoko dira oholtzara ordubeteko antzerkia egiteko.

**15**
**BERTSOLARI**
Aktoreekin batera bertsolariek garrantzia dute lan berrian. 15 bertsolarik jardundo dute, banaka, binaka, hirunaka eta launaka. Guztira, 25 bertso kantatuko dituzte.

MAKALENAKOEK EGINDAKO ANTZERKIAK



*Oñatiko hitzarmena* antzezlana egin zuten Herriko Plazan, iaz. MIREIA BIKUÑA

| ANTZEZLANA | ANTZEZLEKUA |
|---|---|
| *Herri ezteia* | Kalerik kale |
| *Kondearena 1500* | Herriko Plazan |
| *Unibertsitatea 1760* | klaustroan |
| *Oñati Gipuzkoa 1845* | Herriko Plazan |

| ANTZEZLANA | ANTZEZLEKUA |
|---|---|
| *Agirreren Garoa 1912* | Zubikoan |
| *Bustinzurietako Amaia 1845* | Herriko Plazan |
| *Anexiñua 1845* | Zubikoan eta plazan |
| *Oñatiko hitzarmena* | Herriko Plazan eta Santa Anan |

**MUSIKA** > ABESBATZA

# Abestuz alaitu zuen Aritzetak Santa Marina

**NON:** Bergarako Santa Marina elizan.
**EGUNA:** Zapatua, uztailak 17.
**ZENBAT JENDE:** 250-300 lagun.
**IRAUPENA:** Berrogei minutu inguru.

**ANDER MONEDERO** > BERGARA

Ia bete egin zen Bergarako Santa Marinako parrokia herriko Aritzeta abesbatzak eskainitako emanaldian. Oporren aurretik eskainiko duen azkeneko kontzertua izan zen zapatukoa.

Urtero egiten dute emanaldia Santa Marina egunaren bueltan eta izandako harrerarekin pozik agertu dira abesbatzako kideak. Imanol Urzelai zuzendariaren eskutik, zazpi abestiz osatutako emanaldia eskaini zuten; horietatik bi, gainera, lehen aldiz abestu zituzten: Randall Thompsonen *Alleluia* eta Josu Elberdinen *Segalariak*.

Emanaldia 19:45ean hasi zen eta Santa Marinako parrokia bete ez bazen ere, 250-300 pertsonek jarraitu zuten Bergarako abesbatzaren kontzertua. Izandako harrerarekin gustura agertu dira.

**PARROKOARI OMENALDIA**

Zapatuko emanaldia Juan Kruz Mendizabali eskainitako omenaldia ere izan zen. Donostiako Gotzain Jose Ignacio Munillak bikario izendatu ondoren, Bergarako parrokia uzteko erabakia hartu zuen Mendizabalek, erantzukizun berriei behar bezala aurre egin ahal izateko. Bergarako parroko izan den urteetan eskainitako laguntza eskertu nahi izan zioten Aritzetako partaideek. Horregatik, seigarren abestia bukatu ondoren, bere lana goraipatu zuten eta, ondoren, Eñaut Uriartek bi bertso bota zizkion.

Omenaldia bukatuta, azkeneko abestia kantatzeari ekin zioten. Bukatzerakoan, txalo zaparrada polita jaso zuten abeslariek. Bezpera bazen ere, Santa Marina egunari hasiera emateko ekitaldi hunkigarria izan zen.

Abesbatzaren hurrengo agerraldia San Martin jaietako danborradan izango da. Hortik aurrera, Gabonak arte itxaron beharko dugu abesbatzaren beste emanaldi bat ikusi ahal izateko.



Aritzeta abesbatza emanaldiaren ostean. IBON GARITANO

**ANTZERKIA** > 'LA CENICIENTA QUE NO QUERIA COMER PERDICES'

# Ausartekin, Huheziko aretoa leporaino

**NON:** Eskoriatzako Huheziko aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, uztailak 17.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun baino gehiago.
**IRAUPENA:** Berrogei minutu inguru.

**A.M.** > ESKORIATZA

Gaueko hamar t'erdiak aldera igo ziren Ausartak taldeko antzezlariak Huheziko oholtza gainera. Ordu horretarako aretoak dituen 120 aulkiak beteta zeuden eta 80 pertsona inguruk emanaldi osoa zutik ikusi behar izan zuten. Aretoaren barruan izan ziren 200 lagunen artean askotariko herritarrak zeuden; antzezleen lagun eta senitartekoak tartean.

Gaueko protagonistak Eva, Mari Karmen, Emi, Caty, Elvi, Pakita, Josefina eta Nieves izan ziren, eta beraien lana oso ondo bete zuten: Nunila Lopezek idatzitako *La cenicienta que no quería comer perdices* ipuinaren pertsonaiei bizitza ematea.

**ANTZEZLEAK POZIK**

Izandako harrerarekin eta jasotako txalo zaparradarekin pozik geratu dira Ausartak taldeko kideak. Zapatukoa lehenengo emanaldia izan zen, baina ez azkena; izan ere, irailetik aurrera, antzezlana beste herri batzuetara eramateko asmoa dutela kontatu digute.



Ausartak *La cenicienta que no quiería comer percices* antzezten. JOSETXO ARANZABAL

> MUSIKA

### Skate eta pintxo artean aurkeztuko du Azkaiter Peloxek disko berria

Eguen arratsaldean Bergarako Laino skate parkean izango da *Azkaiter Pelox & The Road Band Zuzenean!* izeneko diskoaren aurkezpena.

Azkaiter Peloxek hilabete hasieratik dihardu lan berria zuzenean aurkezten eta eguenekoa uztailean emango duen azken kontzertua izango da.

Emanaldian ez da musika bakarrik izango; argazkiak erakutsi eta martxoan bertan grabatutako bideoa proiektatuko du.

Kontzertua bukatzearekin ez da jaia amaituko: DJak eta pintxoak egongo dira bertara gerturatzen direnentzat.





# UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***



**PARADISUAREN BIDEA.** Argazki hau Conil de la Frontera (Cadiz) aterata dago. Hondartzara eramaten duen paradisuaren bidea. /Argazkia: Nuria Gomez /Arrasate



**GAZTELUGATXE.** Argazkia pasa den uztailaren 6an aterata dago Gaztelugatxeko DoneJakuen, Bermeon. Gaztelugatxeko arroka eta ermita agertzen dira itsasoaren erdian. /Argazkia: Gurutz Odriozola Biain /Oñati



**LAGA HONDARTZAKO KOADROA.** Aurtengo udan Lagan ateratako argazkia da hau: hondartzaren koadroa ikusi daiteke lehen planoan, eta hondartza bera atzean. /Argazkia: Beatriz Agirre /Bergara



**ISPILUAREN AURREAN.** Arantza da argazkiko neska, ikasgelako lagun bat. Udako eguzkiarekin berotuta, busti eta freskatu du adatsa. /Argazkia: Lara Gonzalez Gomez /Arrasate

## Oinarriak:

- **Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  **– Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  **– Harremanetarako telefonoa.**
  **– Argazkia noiz eta nongoa den.**
  **– Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztaila - irailaren 17a.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-O-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

## Sariak:

- **1. saria: Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



## Laguntzaileak:

Arrasate Bidaiak · Gure Ametsa Jatetxea · kb photoestudio www.kbphotoestudio.com · Canon · Goienkaria · Goiena.net · Goienkaria · Goitb · Arrasate Irratia

GURE TALDEAK

# Hardflip



Ezkerretik eskuinera, *Txitxo*, Raul (bateria-jotzailea, atzean), *Kuinbo* eta Mugu, Bergarako gaztetxean egindako kontzertuan. GOIENKARIA

# "Lehen diskoan bi urteko lana laburtu dugu 30 minutuan"

Hardflip bergararrek 'Ke kereis' izeneko diskoa kaleratu dute, eta Kaliforniako skate-punka oinarri hartuta bederatzi kantu grabatu dituzte

Entsegu gutxirekin oholtza gainera igo ziren: diskoa aurkezteko zuzenekoa egin zuten orain dela bi aste Bergarako gaztetxean

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Txapa Irratiak grabatutako *Txaparrada musikala* diskoan parte hartu ondoren, diskoa grabatu du Hardflip taldeak. Eurek ekoiztu dute lana. *Kuinbo*, *Txitxo*, Mugu eta Raul dira taldeko kideak. Haiekin egin dugu berba.**

**Disko berria kaleratu duzue, *Ke kereis* izenekoa. Zer nahi duzue zuek?**

Ez dakigu ziur zer gura dugun. Jendeak asko hitz egiten du eta ahoa betetzen zaio bere burua engainatuz eta bere kontzientzia lasaituz. Eta guztiek berdin pentsatzen dutenean, joera oso kutsakorra da. Lehenengo diskoaren leloa erabili dugu kritiken aurrean zer nahi dugun galdetzeko.

**Gustura emaitzarekin?**

Bi urteko lanaren laburpena da 30 minutuan. Lehenengo grabazioa izanik oso aberasgarria izan da guretzat. Gauza asko ikasi ditugu, eta ez teknikoki bakarrik. Ikasi dugu zerbait gura duzunean beti dagoela jendea laguntzeko prest, eta gogo apur batekin gauza politak egin daitezkeela.

**Bederatzi kantu grabatu dituzue. Zeri buruzkoak dira?**

Kantuak idazterakoan saiatzen gara topikoak alde batera uzten. Letra ez ohikoak egiten ahalegindu gara. Gure izateko eraren ondorio dira: eskolak ez zaizkigu asko gustatzen, banketxeak eta komunikabideak ere ez... Beti haserre gaudela dirudien arren, oso positiboak gara, eta kantu alaiak egiten ditugu.

**Zer moduz grabazioa?**

Diskoa DB Uhinak estudioetan eta Bergarako gaztetxean grabatu genuen Aimarrekin eta *Xarti*-rekin. Dena berria zen guretzat. Hori horrela, gure lana ahalik eta ondoen egiten saiatu ginen. Teknikariek asko lagundu ziguten. Uste dugu soinu naturala lortu dugula.

**Zuek ekoiztu duzue diskoa.**

Nork bestela? Ezin ginen diskoetxe baten zain egon. Egun, guztion eskura dago teknologia, zirkuitu alternatiboak eta lizentzia libreak. Guk diskoa grabatu gura genuen eta egin dugu.

**Kaliforniako skate-punk doinuak abiapuntu dituzuela esan daiteke?**

Bai, eta Hardflip izena hortik dator. Skate munduan egiten den akrobazia zail baten izena da. Hasieran, Nofx, Peniwise, Suicidal Tendencies eta Lagwagon taldeak izan genituen erreferentzia. Baina ahots indartsuekin eta erritmo azkarrekin hardcore estilora hurbildu gara apurka-apurka. Dena den, 1990eko hamarkadako punk amerikarraren ukituari eusten ahalegintzen gara.

**Orain dela hiru aste egin zenuten diskoaren aurkezpena Bergarako gaztetxean. Zer moduz?**

Entsegu gutxirekin igo ginen agertokira, baina barruko grina azaleratu genuen eta ikusleek ondo erantzun zuten. Zuzeneko berezia izan zen, lagun askoren laguntzarekin. Oso intentsua izan zen, eta barrua husteko balio izan zigun.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Agresiboak eta dinamikoak gara. Oholtza gainean ezin gara geldirik egon, eta ikusleak mugiarazten saiatzen gara.

**Noiz sortu zenuten taldea?**

Orain dela bi urte egin genuen lehen kontzertua, Txapa Irratiak grabatutako *Txaparrada musikala* diskorako. Dena den, serio hasi ginen Mugu taldean sartu zenean.

**Nortzuengana heldu gura duzue?**

Batez ere, gure musika gustuko dutenengana.




## Punka eta hardcorea, iturri eta emaitza

Begarako talde horren izena skate jauzi batetik dator; izan ere, bi taldekide skatearen zaleak dira. Gaztetxea da taldearen kokagune naturala eta han grabatu dute diskoa.

Estilo askotarikoak dira taldekideen gustuak eta halakoa da kantutegia: hardcore melodikoa, metaleroagoa, punk-rocka, ska ukituak, punk azkarragoa eta beste.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez abesten dute, abestiek eskatzen dienaren arabera, eta gogotsu daude.

Iker Barandiaran


www.danbaka.com
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA**DEBAGOIENA**DURANGALDEA
PARTE HARTU NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago:
**www.danbaka.com**
irailak 17
izena emateko azken eguna

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Abadiño-zelaietan etxebizitza salgai, 124 m2, 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garajea eta ganbara. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 691-73 10 75

**Altsasu.** Hiru logela, egongela bat, sukalde handia, trastelekua, balkoi bat aurrealdera eta bestea atzealdera, bajera eta kamarotea edo ganbara. Hornituta. Ekonomikoa. Telefonoa: 948-46 09 08.

**Aramaio.** 92 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. 30 metro koadroko ganbararekin. Berritu beharra du. 99.000 euro. Jaione. 615-73 85 77

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659-64 67 38

**Aretxabaleta.** Apartamentua salgai, garajearekin. Bi logela, komuna, sukalde-egongela eta bi balkoi. Etxeak 55 metro koadro dauzka eta garajeak 25. 646-06 86 29

**Beasain.** Pisua salgai Beasainen, Nafarroa etorbidean. 105 metro, dena kanpoaldera eta sukaldea, komona, egongela eta lau logela ditu. Eguzkitsua da. Konponketak behar ditu. Deitu: 978-92 92 21

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubieta kalean. Eraikuntza berrian. Eguzkitsua. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Erdi jantzia. 174.300 euro negoziagarri. 629-71 12 26 edo 650 10 34 93

**Bergara.** 70 metro koadroko etxea salgai Artekalen. Ganbara eta guzti. Eguzkitsua. Prezio oso interesgarria. 675-70 79 54 edo 943-76 14 01

**Durango.** Etxebizitza salgai Durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita) trastelekuagaz eta balkoiagaz, eta komuna. Oso eguzkitsua da eta etxe osoak kanpora ematen du. Bi kotxerentzako garajea aukeran. Prezio onean. Telefonoa: 656-76 46 73

**Durango.** Durangon etxebizitza salgai. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpora ematen du; oso argitsua da. Pisu altua 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro. Telefonoa: 696-255 083

**Etxarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636-15 85 35 (Bitori)

**Guardamar del Segura (Alacant).** Aukera bikaina. Apartamentua salgai. Egongela, terraza, logela bat, amerikar sukaldea, bainugela, trastelekua, aire girotua. Guztiz jantzia eta ekipatua. Oso berria eta gutxi erabilia. 85.000 euro. 655-60 12 52

**Laruns.** Oubisque inguruan, Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 5 pertsonendako egokia. Telefonoa: 637-41 97 14

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro. Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04

**Oñati.** Duplex ederra salgai erdialdean. 116 metro koadro. Aukera-aukeran orain, 276.465 euroan. 635 71 41 39

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19

**Tolosa.** Tolosako Alde Zaharrean atiko argitsua. 50 m2. Egoera onean. Prezioa 153.260 euro (25.500.000 pta). Interesatuek deitu 943-43 00 20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi). Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazko salmenta. 658-72 92 88

**Zestoa.** Etxebizitza salgai Zestoan. 85m2, 3 logela, 2 komun, sala handia, sukaldea, trasteroa (13m2) eta garaje itxia (18m2). Eguzkitsua eta oso egoera onean. Mugikorra: 679-80 91 90 eta628-06 94 12

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Telefonoa: 695-70 18 58

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Ibarra 47 $m^2$. Berritua.
- Martoko. Eraikuntza berria. 135 $m^2$. Prezio ona.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 80 $m^2$. Berritua.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. 649-55 48 10

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Udala plazan. Hiru plaza, egongela eta bainugela bi. 619-42 14 85

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribarri etorbidean. Eskolatik bi minutura. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 635-72 27 81

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Malvinetan, unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun.Ikasleak nahiago. 943-79 70 07 edo 687-60 51 24

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean ikasleentzat. Hiru logela dauzka. 628-09 64 44

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. 676-74 99 57

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erguinen, unibertsitatetik gertu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Hiru logela. 943 79 83 48 edo 636 60 79 60

**Arrasate.** Hiru logela, komuna, sukaldea eta egongela zabaleko etxebizitza errentan prezio onean. Balkoia, igogailua eta berogailu zentralarekin. Erdialdetik 5 minutura oinez. 610 94 22 28

**Iruñea.** Hurrengo ikasturterako pisu bat alokatzen da Iruñean, ikasleendako. Telefonoa: 948-46 08 02.

**Irurtzun.** 3 logela, bista ederrak eta herri erdian. Interesatuek 600-38 74 00 telefonora deitu.

**Laredo (Kantabria).** Etxebizitza adosatua ematen da errentan abuztuko bigarren hamabostaldirako. 649-07 97 90

**Laruns.** Mobil homea uztaila eta abuztuan errentan emateko. Etxe mugikorra Frantzian dago, Laruns herrian, Aubisqueren magalean. Bost pertsonarentzako etxea, bi logela; bat hiru umeentzat eta bestea bi pertsonentzat egokia. Bi komun, batean dutxa eta bestean komuna. Sukaldea, egongela eta terraza dauka. 637-41 97 14

**Loredo (Kantabria).** Etxebizitza adosatua ematen da errentan abuztuko bigarren hamabostaldirako. 649 07 97 90

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. 616 45 23 99

**Ordizia.** Etxebizitza alokatzen da Ordizian. Erdialdean, altzariekin eta igogailuarekin. Deitu: 943-88 95 80.

**Osintxu.** Etxebizitza ematen da errentan. Etxe berria. Eguzkitsua eta terrazarekin. Irune. 670 02 31 90

**Peñiscola (Valentzia).** Apartamendua alokatzen da Peñiscolan, uztailean, abuztuan eta irailean. Telefonoa: 686-56 20 18

**Salou (Tarragona).** Apartamentua alokairuan Salou herrian. Igerilekuarekin eta aparkalekuarekin. Ondo hornitua. Telefonoa: 600-38 74 00

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Martoko. Duplex berria. Prezio onean.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ELGETA
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 € ordain ditzaket hilean. 699 66 33 63.

**Durango.** Errentan hartzeko etxebizitza bila gabilz. Harremanetan jartzeko: 685-71 74 39 eta 94-681 07 72 (Oihana).

**Donostian etxe bila.** Langile oñatiar bat naiz eta irailetik aurrera Donostian bizi ahal izateko etxe bila nabil. Telefonoa: 675 00 87 58.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Telefonoa: 619-78 63 41

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Arrasatearra pisukide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro gastuak barne. 606-74 42 37

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztailaren erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653-71 44 57

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxebizitza handia, kalefakzioa eta elektrotresna guztiekin. Langileak nahiago dira. 657-72 51 65

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko logela daukat. Arrasatearra naiz. Telefonoa: 688-60 86 33

**Arrasate.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Udalpe kalean, unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin eta oso eguzkitsua. 646-01 36 27

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Bilbo.** Debagoieneko 2 neska pisukide baten bila gabiltza. Pisua Deustuauzoan dago, Blas de Otero kalean. 325 euro hilean, kalefazio zentralarekin. 685-76 70 82 edo 680-79 48 85

**Bilbo.** Bilbo-Abando. Gela bat alokairunan ematen dut. Armairu enpotratua, interneteko eta kable bidezko telebistarako konexioak dauzka. Bilboko zentro-zentroan dago Gran Viatik 50 metrora. Oso ondo komunikatuta. Foru Aldundiko metroko sarbidetik 50 metrora, eta Bilbo osorako autobus geltokietatik ere bai. Ozo zona lasaia da, bi enparantzen artean kokatuta dago. Parkina ondoan dauka. Sukaldea,guztiz hornituta eta jangela izateko prestatuta, erabiltzeko eskubidearekin. Igogailua. Kalefakzio zentrala.380 euro hileko gastak barne. Telefonoa: 606-25 05 84

**Debagoienean** irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitatera (HUHEZI) etorriko diren Erasmus ikasleentzako logelak behar dira. Txema. 656-77 66 32

**Donostia.** Donostian, Amaran irailetik aurrera gela bat alokatzen da urte osorako edo ikasurterako, neska batentzat, bi lagunentzako pisu konpartitu batean. Gela argia da eta ondo hornituta. Telefonoa: 943-65 16 92. Hartu ezean mezua utzi.

**Donostia.** 26 urteko mutil bat naiz. 2010-2011 ikasturterako pisu edo gela bila ari naiz Donostian. Ahal bada informatika fakultatetik hurbil. Pisukide baten bila ibiliz gero, jarri kontaktuan nirekin! Joseba (668-80 29 66)

**Donostia.** Antiguan (Lorea) alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia eskaintzen da hilean 375 eurogatik (errenta aitorpena eginez 280 euro!) uztailaren 1etik aurrera epe luzerako (urtebete gutxienez). 2 mutil langilerekin (27 eta 29 urte) partekatuko litzateke pisua. 2 bainu, egongela handia eta sukalde berri-berria. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Hots egiguzu arren lehenbailehen 626-22 92 58 zkira.

**Donostia.** Datorren ikasturterako pisukide bila gabiltzan bi neska gara. Pisua Donostiako Amara auzoan dago kokaturik eta pisua oso-oso ongi dago, berriturik. 3 logela, 2 komun, egongela,sukaldea eta gauzak uzteko gela. Ikasle giro apartean bizi nahi baduzu datorren ikasturtean deitubeldur gabe informazio gehiago lortzeko! Deitu 687-68 74 48 edo 609-37 42 58 telefono zenbakietara eta Amaiarengatik galdetu.

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650-82 83 48

**Eskoriatza.** Bi logela dauzkat etxebizitza berria osatzeko. Unibertsitatetik gertu. Erdigunean. 650-82 83 48

**Gasteiz.** Gasteizen pisua osatzeko bi lagunen bila nabil. Aldabe inguruan, alde zaharretik bi minutura. Bi gela daude libre. Jende irekia eta arduratsua bilatzen dut. Ez erretzaileak. 200 euro + gastuak. 609-59 46 37

**Gasteiz.** Logela alokagai Gasteizen. Ikaslea den neska bat bilatzen ari gara. Pisua unibertsitatetik 10 minutura dago. 217euro hilean, gehi gastuak. Logela nahikoa handia da, baita pisua ere. Ikustera etorri nahi baduzu deitu 646-84 12 06 zenbakira. Eskerrik asko!

**Iruñea.** Pertsona bat bilatzen ari gara Iruñeko Iturrama auzoko pisu bat osatzeko. Prezioa ona: 220 euro, gastuak barne. Deitu 650-71 48 58 (goizez)

**Oñati.** Pisukide bila nabil etxea osatzeko 606-15 11 47

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Durango.** Aukera handia! Txibitenan (jesuitak ikastetxearen ondoan) garaje bat saltzen dugu. Plaza irekia eta oso ona. Deitu telefono hauetara: 660 38 59 95 edo 660-38 60 43

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647-24 40 54

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai kalean. 17,5 metro koadro dauzka. Goiko solairuan. 635 75 35 29.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 103 metro koadroko lokala salgai Burdiñaten. Bulegorako edo eskolak emateko prestatua. Deitu 688 80 57 71 telefono zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranazko lokal bat alokatu, lekualdatu edo saldu egiten da. Prezioa adosteko. 628-56 47 35.

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. Deitu 657-77 97 52 telefono zenbakira.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arbizu.** Sakanako autobidearen ondoan roullotak, autokarabanak gordetzen ditugu eraikin batean. Harremanak: 680-54 67 77

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Alegia.** Neska euskalduna udan umeak zaintzeko eskaintzen da, Tolosaldean edo Goierrialdean. Esperientziaduna. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 618-17 46 36

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943-53 33 92

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. *edortamendi@yahoo.es* 617-89 41 03

**Arrasate.** Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695-75 42 45

**Arrasate.** Neska ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko gertu. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. Deitu 618-00 08 28 edo 943-79 82 43 telefono zenbakietara.

**Arrasate edo Bergara.** Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. 637-18 07 23

**Arrasate eta inguruan** emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679-73 92 66

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Mutila gertu garbiketa edo zerbitzari lanetan jarduteko. Autoa daukat. 689-88 80 23

**Arrasate.** Neska boliviarra lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo asteburutan. Legezko dokumentu guztiekin. 618-14 71 34

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699-54 17 27

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. Deitu 697-54 28 76 telefonora.

**Arrasate.** Umeak zaintzeko edo ume txikiei klase partikularrak emateko prest nago ekaina eta uztailean. 618-43 60 35 edo 943-76 32 27

**Arrasate.** Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Esperientzia handia. 680-49 11 45

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izanda nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. 680-30 24 64

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635-00 58 17

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. 619-78 63 41

**Arrasate.** Neska lanerako gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edota taberna zein jatetxeak garbitzeko. 610-12 06 73

**Arrasate.** Sukalde laguntzaile, garbiketa eta abarretan jarduteko gertu. Bi urteko esperientzia sukaldean. Autoa daukat. 666-21 88 95

**Arrasate.** Igeltsari ofizial, leunketa eta bestelako lanetan jardungo nuke. Rolando. 639-41 68 38

**Arrasate.** Debagoiena 32 urteko mutil euskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanak egiteko gertu, etxean edo baserrian. Erizaintzako modulua egiten ari naiz. Abuztuan ere bai. 619-08 40 08

**Arrasate.** Enkofratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 673-03 09 60

**Arrasate.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz. 671-99 92 70

**Arrasate.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630-20 12 03 edo 638-10 28 85

**Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaindu edo etxekolan eta garbiketak egiteko debagoienan. 678-80 11 54

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. Deitu:679-04 42 68

**Arrasate.** Emakumezko batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke. Harremanetarako telefono zenbakia:606-64 16 09

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

**Bergara.** Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest 615-76 29 25

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

**Bergara.** Neska bergarar euskalduna (magisteritza haur hezkuntzan diplomatua eta esperientziarekin) uztail arratsaldeetan haurrak zaintzeko gertu. 636-27 43 88

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943-76 28 12 edo 943-76 29 52

**Bergara.** Neska hainbat lan egiteko egiteko gertu: nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanak egin. Esperientzia dut eta erreferentzia onak ditut. Deitu 677-73 79 59 zenbakira

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Deitu 637-18 07 23 telefonora

**Debagoiena** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergaran edo Arrasaten. Interesa baduzue deitu: 650-23 34 98

**Debagoiena .** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Interesa baduzue deitu zenbakietara: 618-09 47 87 edo 943-78 15 10

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666-08 58 49

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Interesa baduzue deitu: 696-48 42 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko eta astebukaeretan lan egiteko gertu. Interesa baduzu deitu: 699-60 91 90

**Durango.** Pertsona edadetua bazara, bakarrik sentitzen bazara eta ez baduzu inor zaindu zaitzan, deitu iezadazu. 649 13 53 81

**Durango.** Gizon heldu bat adineko pertsonak zaintzeko prest dago, asteburuetan, jaiegunetan eta abuztuan hilabete osoan. Telefonoa: 690-28 60 71

**Durango.** Andre euskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... Zaintzeko prest nago. Urte askotako esperientzia daukat eta lehenbailehen hasteko prest nago. Interesatuek deitu 699-74 57 23 zenbakira.

**Durango.** Bertako neska umeak edo edadetuak zaintzeko prest. Esperientzia handia. Berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 688-67 65 88 edo 94-658 33 32

**Durango.** Arratsaldez etxeko lanak egin, eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest nago. Abuztuan goiz eta arratsaldez. Telefonoa: 673-68 97 69

**Durango.** Abuztutik aurrera marinel moduan lan egiteko prest. Ikasketak ditut, eta esperientzia ere bai. Telefonoa: 637-02 93 73

**Durango.** Garbiketa lanak egiteko prest, tailer edo tabernetan. 647-24 23 01

**Gasteiz.** Tabernako barran esperientzia duen gazte bat naiz, gazteizeko festetan kamarero bezala lan egingo nuke, interesatuak deitu zenbaki honetara: 688-63 84 18

**Oñati.** Umeak zaintzen ditut uztailean; esperientzia handia. Neska euskalduna naiz, ikaslea. 651-70 85 13

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635-70 07 92

**Zaldibar.** Neska euskaldunak uztailean, eta irailean jarraitzeko aukerarekin, umeak zaintzeko edota partikularrak emateko eskaintzen du bere burua, Lehenengo Hezkuntzatik DBHra arte; 3 urteko esperientzia daukat. Harremanetan jartzeko: 610-00 44 43.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. 658-73 08 08

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Bergara.** DBHko eskolak jasoko nituzke. (18:00etatik aurrera deitu) 605-26 24 62

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergorainoko eskolak ematen dira, udan eta ikasturtean zehar. 653-01 76 67

**Arrasate.** Neska euskaldun esperientziaduna prest ekainaren 3tik uztailaren 31ra arte 2. batxilergorarteko eskola partikularrak emateko. Joana. 669-20 63 21

**Arrasate.** Arrasateko eskolatan esperientzia duen irakaslea udan eskola partikularrak emateko prest. Edozein ikasgai. 635-75 05 26

**Arrasate.** Ingeniari teknikoa udan klase partikularrak emateko prest. DBH eta batxilergoan esperientzia. 685-70 17 09

**Arrasate.** Esperientzia handia duen irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, urte osoan eta udan. LH eta DBH. Telefonoa: 943-78 28 43

**Arrasate.** Baxu elektronikoaren teknika, eskalak eta doinuak nahi badituzu ikasi, deitu. Aitor. 617-81 38 02

**Arrasate.** Matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. DBH eta batxilergo mailak. Telefonoa: 696-38 10 07

**Bergara.** Bergaran Ingeleseko Elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 654-94 87 26

**Bergara.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak ematen ditut. 666-21 73 48

**Bergara.** Marrazketa eta pintura eskolak ematen dira uztaileko 1. Hamabostaldian, 10:00-12:00. Arrizuri 5, 1. A c. Telefonoa: 651-74 21 54

**Bergara.** Ingeniari teknikoa, udan klase partikularrak emateko prest, lehen hezkuntzatik batxilergora arte. Esperientzia DBHn eta batxilergoan. 685-70 17 09

**Bilbo.** Euskara klaseak ematen ditut errefuertzo eta gaia errekuperatzeko. Lehen Hezkuntzan DBHn eta batxilergoan baita egarako prestakuntza ere, eta mintzapraktika. Telefonoa:606-25 05 84. Bilbon uda osoan goizez zein arratsaldez.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Telefonoa: 635-74 61 76

**Durango.** Udan errefortzu klaseak emateko prest nago. 3 urteko esperientzia daukat, 22 urte ditut eta magisteritza amaituta daukat. Klaseak euskaraz edo gazteleraz ematen ditut, eta ikasgai guztietakoak. Interesa baduzu deitu 615-73 53 85 telefonora.

**Durango.** Ingeniaritza ikasten ari den neska euskalduna udan klase partikularrak emateko prest Durangon. LH, DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta, ondorengo gaien inguruan: matematikak, fisika-kimika, euskara, gaztelera, ingelesa, eta abar. Interesa baduzue deitu: 635-20 50 12.

**Durango.** Magisteritza ikasten dabilen neska gaztea, abuztuko lehen hamabostaldian umeak zaindu eta klase partikularrak emateko prest. Interesa baduzue deitu 686-74 16 76 telefonora. Amaia.

**Gernika-Lumo.** Lehen Hezkuntzan eta musika hezkuntzan diplomatua eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo euskal herriko edozein gunetan irakasle bezala lan egiteko prest. 687-95 06 05.

**Oñati.** Ingeniaritzako titulua eta irakaskuntzan esperientzia handia duen neska udan DBH eta batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Matematika, fisika, marrazketa eta abar. 678-27 27 57

## 503. BESTELAKOAK

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. 602 12 03 47.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Astra** txuria, gsi 2.0, 16 balbulakoa salgai. Deitu 652-97 45 24 telefonora.

**Elbarrituentzat egokitutako Fiat Ulysse furgoneta salgai.** Fiat Ulysse furgoneta saltzen dut, elbarrituentzat egokituta. Atzeko kajoia, ispilu elektrikoak, ABSa, kristal elektrikoak, lainoaren aurkako argiak, ITVa eguneratuta 2012ra arte, GPSa, mp3, irratia, cd-a, klimatizagailua. Egoera onean dago. Preziointeresgarria. 657-79 80 38.

**Monobolumena salgai.** Seat Alhambra. Egoera onean, azterketa guztiak eginda eta lau gurpilak berriak. 105.000 km. 2004koa. Prezioa: 14.000 euro. 653 71 04 56

**Peugeot 406 salgai.** Peugeot 406 salgai. Turbo diesel 2,1. Aleaziozko llantak. Aire girotua. Ekipamendu osoa. 1998koa. 193.000 km. Egoera onean. 2.000 euro. 619-59 16 88

**Renault Master.** Bidaiatzeko 6 plaza (dena homologatua). Eserlekuekin ohe bat egiten da: 1.25 x 1.9 m. Bigarren ohe bat 1.30 x 1.90 m furgonetaren sabaian plegatua. Ur potablea 170 l eta ur zikinerako andelak 120l. Arropetarako armairu bikoitza. Jateko mahai plegatua. 12 v iluminazioa. 2 sutako sukaldea, arraska eta armairuak. 90 litroko hotzgailua. Bateria auxiliarra. Toldoa. Bizikletak eramatekoa. Kopilotoaren aulkia birakaria. Kontaktua: Edurne. *arrieta@euskaltel.net* edo 655-72 52 52

**Seat Ibiza** salgai. Diesela.5 ate. Aire akondizionatua. 2000. urtekoa da; 270.000 km. Distribuzio korrea aldatuta. 90 cc. Egoera oso onean. Deitu 650 402 857 telefonora.

**50 cc Peugeot Eliseo maxi scooterra salgai.** 50 cc peugeot eliseo maxi scooterra salgai. 2000 urtekoa, 3.000 kilometro ditu, berri-berria dago. Motor handiagoa erostearren saltzen dut. Prezioa: 1.000 euro (negoziagarri). 675-00 88 04

**Honda Rincon ATV quad-a salgai.** Honda Rincon ATV quad-a salgai. Bost urte ditu eta berri-berria dago. 4.600 euro. Telefonoa: 675-00 88 04

**Land Rover Defender luzea salgai.** Land Rover Defender TD-5 luzea salgai; 9 plaza; 2002 urtea; 145.000km; 110 zaldi; erremolkearentzako bola; egoera ezin hobea; hobeto ikusi; 11.000 euro. 652-73 82 74 (Iker)

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Bulldog frantsesak** salgai. Bulldog frantsesak saltzen ditut prezio onean. Interesa badaukazu deitu 639-75 73 35 telefonora.

**Kanarioak saltzen dira.** Kanarioak saltzen dira prezio onean, interesatuak deitu telefono honetara:689-58 60 54

**Spaniel txakurkume arrak salgai.** Spaniel txakurkume arrak salgai. 2010eko maiatzaren 15ean jaioak. Zuri-beltzak. Arkaitz.610-36 39 94

**Setter ingeles** txakurkumeak salgai, 2010eko maiatzean jaioak. Oilagorretarako aproposak. 605 73 75 30 edo 605 73 75 30

## 703. EMAN

**Arratoi txakurkumeak.** Arratoi txakurkumea nahi baduzu deitu telefono honetara 94 682 73 69 arratsaldeko 20:30ettik aurrera.

**Artzain txakurkumea oparitzen da.** Artzaintxakurkumea oparitzen da. Hilabete pasatxo dauka. Oso polita. 626-11 38 69

**Bi katakume oparitzeko.** Katakume bi oparitzen ditut. Oso sozializatuta daude. Telefonoa: 94-622 51 88

**Cocker ingelesa ematen da opari.** Cocker ingelesa ematen da opari. Pedrigriarekin. Txertoak ipinita dauzka. Emea da eta lau urte dauzka. Beltza da. 618-00 08 28

**Txakurkumeak opari.** Txakurkumeak opari, 3 eme eta 2 ar. 2010-05-14an jaioak. Deitu 678-63 69 65 telefonora.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Arrue derby ume kotxea salgai.** Arrue derby ume kotxea salgai, txaxis, aulki eta kapazuagaz. Euritako eta guzti. Egoera onean. Prezioa 220 euro. Interesatuek deitu 692-71 85 00 telefono zenbakira.

**Baby-cook berdea.** Umeen janaria gertatzeko irakigailu eta irabiagailua. Egoera oso onean. 80 euro. Arratsaldez deitu mesedez. Telefono zenbakia: 607-06 22 20

**Bateria salgai.** Oso egoera onean dago eta ia ez du erabilpenik izan, pare bat hilabete gutxi gorabehera; eta prezio ezin hobea,merke-merke. Stagg markakoa da eta prezioa negoziagarria da. 600-71 81 15

**BMW 4 llantak (17 pulgada) salgai.** BMW 4 llantak (17 pulgada) salgai. Berriak daude. Prezio negoziagarria. 619-18 77 99

**BMX bizikleta salgai.** Ez delako erabiltzen. Oso egoera onean dago eta ez du erabilpen handirik izan. Manillar, kubierta eta freno berriekin 130 euroan. 600-71 81 15

**Bulegoko** mahai eta altzariak saltzen dira. Izkina egiten duten bi mahai eta zortzi aulki. Guztia 400 euro. Harremanetarako deitu telefono honetara: 607-61 56 37

**Egongelako altzariak.** Izkina egiten duen 5 plazako sofa, mahaia, apalak eta bitrina saltzen ditut, guztia 300 euroan. Oso egoera onean. Interesatuek deitu: 656-78 55 85

**Haurra eramateko mendiko motxila salgai.** Haurra eramateko motxila saltzen da, egoera onean. Deuter Kid Confort II plus markakoa. 90 euro. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara:696-63 98 94

**Hozkailu merkea.** 2 ateko hozkailu merkea erosiko nuke, gehienez 100 euro. *donostikojon@gmail.com.* Jon

**Ile-apaindegiko aulkiak.** Ile-apaindegiko aulkiak salgai Debagoienean. Egoera onean daude. Marian. 943-76 11 56

**Karro denda.** Inesca dakota karro denda salgai. Argazkiak ikusi nahi izanez gero posta elektronikoz bidaliko dizkizugu. 685-72 05 90 edo 655-71 33 76

**Karro-denda salgai.** Bi logelakoa eta oso egoera onean. 626-86 35 77 edo 943-76 14 35

**Labea salgai.** Oso egoera onean dagoen labea saltzen da. Fagor 5h-113b modeloa, kolore txurikoa. Sukalde aldaketagaitik saltzen da. 5 urte ditu baina oso ondo zaindua dago. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 657-79 47 32 edo 94-682 10 04

**Lowepro Primus AW salgai.** Lowepro Primus AW mendira joateko motxila oso egokia. Gutxi erabilita. Reflex argazki kamera eta zoom objektiboa (70-200 mm-raino), gainera beste bi objektibo edo flash-a ere sartzen dira. Tripodea edo mendiko bastoia eramatekoa du. 667-95 73 16

**Lurrean lo egiteko bakarrik puzten diren 2 aislante salgai.** Helduentzako lurrean lo egiteko bakarrik puzten diren 2 aislante salgai. Neurriak: 196 zm luzeran, 58 zm zabaleran, 4,5 zm lodiera. Behin bakarrik erabiliak. Decathlon etxekoak, berriak 35 euro balio ditu. Guk bi ditugu eta bakoitza 25 eurotan saltzen dugu. 686-89 77 32.

**Lursaila** salgai Angiozarren. 647 51 52 54.

**Marokora joateko aukera.** Lau hegazkin txartel salgai. 50 euro pertsonako gehi izen aldaketa gastuak. Irteera abuztuaren 5ean Madriletik Marrakechera. Itzulera abuztuaren 15ean, Madrilera. Argibide gehiagorako galdetu Eligatik zenbaki honetara deituta: 699 45 30 88

**Mikrouhin labea.** Mikrouhin labea salgai. Berria dago. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 658-74 26 44

**Motokultore** agria 2700 Diesel eta Motoaitzur agria 3000 prezio onean saltzen dira. Telefonoa: 94-682 45 90 (Luis)

**Monty aluminiozko 219 alp bizikleta salgai.** Monty aluminiozko 219 alp bizikleta salgai. Prezioa: 325 euro. 606-30 74 39

**Ohe artikulatua salgai.** Ohe artikulatua pertsona nagusientzako salgai. Urrutiko agintea du. Deitu telefono zenbaki honetara: 649-96 92 98

**Snow-taula salgai.** Us-40 markakoa da. Taula, fijazioak eta oinetakoak 100 eurotan saltzen ditut. Material guztia ondo dago eta gutxi erabilitakoa da. 671-92 06 49

**Telebista eta minikatea.** 25 hazbetekoa. LTDa. Egoera onean. 90 euro. Minikatea, CD eta MP3arekin. Erabili gabea. 45 euro. Interesa baduzue deitu: 648-13 11 51

**Umeen aulkirako patina.** Beltza. L-rossi etxekoa. Ia aulki guztiekin bateragarria. 25 euro. Arratsaldez deitu mesedez. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia:607-06 22 20

**Zinta elektrikoa.** Korrika egiteko zinta elektrikoa salgai. Segurtasun gelditzea dauka. Tolesgarria. Erroberak eta pantailadun konputagailua. 400 euro. 619-52 98 04

## 802. EROSI

**Arrasate.** Lursaila erosiko nuke Bergaran, Arrasaten edo Elgeta inguruan. Interesa baduzue deitu: 618-05 65 17

**Bizikleta estatikoa** erosi edo errentan hartuko nuke. Amaia. Interesa baduzue deitu: 616 32 75 56.

**Iurreta.** Lantzeko lursaila erosiko nuke (basoa bada ere berdin du) Iurreta eta Elorrio artean, 1 ha inguru. Deitu 605-75 04 98 ra.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

## 804. HARTU

**Baratzeko tresnak behar ditut trukean.** Zuk erabiltzen ez dituzun baratzeko tresnak behar ditut: aitzurrak, eskuarea, sardea... Trukean nire herriko gazta eta txorizoa eta Errioxako ardo kutxa bat emango dizkizut. 616-05 98 11

## 804. HARTU

**Eskaladarako harriak.** Arrasateko gaztetxean egiten ari garen rokodromorako presak behar ditugu. Hauetakorik izanez gero eta emateko prest egonez gero, bidali mezu bat *arrasatekogaztetxea@gmail.com* helbidera, mesedez.

## 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Eskumuturrekoa (pultsera) galdu nuen ekainaren 18an Pausoka eta Basabeazpi ikastetxeen artean. Aurkitu duenak udaletxera eroan dezala, mesedez.

**Aretxabaleta.** Automobileko giltza galdu dut. Renault Megane autokoa da. Harremanetan jartzeko deitu 680 60 94 74 telefono zenbakira.

**Argazki kamera.** Ekainaren 26an Urbiara bidean argazki kamera digitala galdu genuen. Lumix etxekoa da. Baten batek topatu badu, deitu, mesedez, telefono zenbaki honetara. Eskertuko da. 636 43 85 40.

**Pultsera Bergaran.** Uztailaren 13an, martitzena, eskumuturrekoa galdu nuen Bergaran. Balio sentimental handikoa da eta sarituko da. 943 76 03 73

**Txamarra Aretxabaletan.** Ekainaren 18an, eguena, arratsaldean, Aretxabaletako Iturrigorri frontoi inguruan 12-14 urteko Ternua markako txanodun txamarra gorri berria ahaztu nuen. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala. Mila esker. 697 83 36 66.

**Zapata gorria galdu nuen Aretxabaletan.** 19 zenbakia, chupetin markakoa. 649-96 07 57

**Mugikorra Arbizun.** Arbizuko san juanetan mobil bat galdu zen, funda gorri bat zuela, karrika tabernan. 948-56 70 99.

## 808. BESTELAKOAK

**Athletic-eko bazkide txartela alokatzen da.** Athletic-eko bazkide txartela alokatzen da denboraldi osorako. 679-05 81 67

**Laruns.** Mobil home-a ematen da errentan uztailean eta abuztuan. Aubisque inguruan, Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. Bost pertsonarendako egokia. Deitu 637-41 97 14 zenbakira.

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuak idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera

**Neska lasartear bat topatu nahian. Informazio eske.** Kaixo. Mezu honen bidez, Lasarten bizi den 24 urte dituen neska baten pista errekuperatu nahi da. Joan den larunbatean, uztailak 10, ezagutu ginen Hondarribiko blues festibalean. Norbaitek informazioa ematerik balu, eskertuko nioke. Informazioa emteko Txintxarri aldizkariko internet bidezko iragarki laburretatik egin mesedez. Esker mila aldez aurretik.

## 903. DEIAK

**Gasteizerako autobusa.** Leintz bailaratik joanda Gasteizen goizeko 8ak baino lehen egon behar baduzu eta autobus ordutegia dela-eta garaiz iristen ez bazara, jar zaitez gurekin harremanetan. Autobus ordutegia aurreratzea eskatu nahi dugu eta ahalik eta jende gehien bildu behar dugu horretarako. 685 72 14 33.

**Bilbo.** Egunero bilbotik donostira, antiguo-unibertsitate ingurura joateko jende bila: irten 7ak aldera; bueltan 15:00-15:30 aldera. 658-73 67 99

**Futbitorako neska bila.** 2010-2011 denboraldirako, nesken futbito talde federatua mantentzeko neska bila gabiltz. Momentuz lau gara. Animatu zaitezte. Informazioa: *www.kuru.es.*

## 904. BESTELAKOAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Zarautzera lanegunetan.** Tolosaldetik edota Goierritik Zarautzera autoz joateko jende bila. Irten, 07:00etatik 08:00etarako tartean; handik, bueltan, 15:00etatik 16:00etara. Deitu:688-60 67 15.

LAZKAO INMOBILIARIA
API 365



IDIAZABAL
bifamiliarra
ondo kokatua
4 logela
garaje eta txokoa

ATAUN
4 solairu
garaje eta txokoa
298.000 €

Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao • 943-88 37 39
www.lamylazkao.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96
www.inmosalbide.com

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. Logela bateko etxe handia. Altua eta bista ederrak. Trastelekua eta igogailua. 47.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

**Zarautz.** Kasino kalea. 3 logelako etxebizitza ikusgarria, azkeneko solairuan. Terraza eta garajearekin. Egutera.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

ALOKAIRUAN
**ALDE ZAHARRA** Ikasleak. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 800€
**AMARA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 850€
**TRINTXERPE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 575€
**GROS** Ramon Mª Lili. 2 logela, sukaldea, 2 bainugela. 1.000€
**PASAI ANTXO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 790€
**ERRENTERIA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700 €

SALMENTAN
**INTXAURRONDO.** Duplex polita. 3 logela, 2 sala, sukaldea, bainugela. 49.000.000 pta
**INTXAURRONDO**. 2 logela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 41.500.000 pta
**AMARA** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 37.050.000 pta
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora. 38.000.000 pta
**AMARA** Altua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 46.500.000 pta
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. 51.800.000 pta
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berogailua. 49.500.000 pta
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 53.600.000 pta
**PORTUAN** Kontxara. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000 pta
**ERDIALDEA** Hondarribia k/. 3 logela, sukaldea, bainugela. 12m2tako terraza Buen Pastorrera 72.000.000 pta
**ANTIGUO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 59.800.000 pta
**EGIA** Virgen Carmen. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 45.000.000 pta
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. Sartzeko. 41.600.000 pta
**GROS** Hondartzatik hurbil. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. 39.500.000 pta
**BIDEBIETA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Terraza. 29.900.000 pta
**ALTZA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 25.500.000 pta
**PASAI DONIBANE** Bistak itsasora. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 30.990.000 pta
**LEZO** Baserri etxea. 4 logela. 200m2 terreno. Bistak. Eguzkitsua. 42.500.000 pta

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | 7 | | 3 | | | | |
| 3 | | 9 | | | | 5 | | |
| 4 | 5 | | 8 | | 2 | | | |
| | 3 | | 7 | 4 | | 8 | | |
| | | 8 | 2 | | 9 | | 6 | |
| | 2 | 6 | 3 | | | 9 | | 5 |
| | | 2 | | 7 | | 4 | | |
| 6 | 7 | | | | | 2 | | |
| | | | 6 | | | | | 7 |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



- * UDAN
- Debagoieneko ataria
- Belardi
- Atomo kargadun
- Nafarroako herria
- Buruak
- Nola, zelan
- Elortzibarko herrixka
- Hobe egin
- Herri baxenabartarra
- Amorotoko auzoa
- Metal garesti
- Enborraren mami
- Neukan
- Biarnoko
- Ergeldu
- Garai, aldi
- Kasik
- Helioa
- Tantaloa
- Hurbileko, gertuko
- Barrena
- Röntgen

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Zer gertatu zaio musikari?




## hizki salda

Bost planeta.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | R | U | K | R | A | R | N | I |
| O | M | S | U | R | R | U | U | T |
| O | E | A | A | E | U | O | O | M |
| A | R | T | I | Z | A | R | R | A |
| O | K | U | R | A | N | O | S | U |
| L | U | R | R | A | S | I | N | R |
| R | R | N | L | K | O | T | A | S |
| R | I | O | N | I | A | I | U | T |
| O | O | T | U | U | Z | K | A | R |

## soluzioak



Hieroglifoa: Eten.



## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zailtasunak aste honetan harremanen arloan. Ahalegindu gauzak samurtasun osoz esaten, berba egiteko zure moduaren bitartez baten bat mindu dezakezu eta.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Bolada ona harremanetarako; lanean onura ekar diezazuketen harremanak izan daitezke eta gainera aukera berriak agertuko zaizkizu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Ona da lanean arduratsua eta zorrotza izatea, baina horrek ez du esan nahi zeure lau ideietatik ez ateratzea. Ibili arretaz gauza berriekin.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Lasaitasuna eta bakea familian. Aztoratu zaitzakeen bakarra, edukiko dituzun gastu ugariak izango dira, handiak eta ezustekoak izango dira eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zeure helburuen lorpenerako traba baino ez diren bide eta ohitura zaharrak berritu eta aldatzeko garaia. Aldatu zaitez. Oporrak behar dituzu, hartu egun batzuk zuretzat.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Geldialdian zaude, eta komenigarria litzateke une hori zure egitasmoak aztertzeko erabiliko bazenu, gerora beharrezko aldaketak egin ditzazun.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lan arloan esperantza handiak; behar gehiago eta ekoizpen handiagoa izan ditzakezu. Une egokia da indarra bildu eta aldarte onean egoteko.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Bizi zure poztasuna besteekin batera. Lehengo zure ahaleginak fruitua ematen hasi dira. Lan kontuetarako une egokia duzu.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Saiatu atseden hartzen, eta ez zaitez kezkatu gauzak erdizka uzteagatik, estresatuta baitzaude. Osasuna da garrantzitsuena. Zaindu zeure burua!

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ez izan zeurekoia izatearen beldur, zeure buruarengan besteengan baino gehiago pentsatzeagatik, horiek eramango zaituzteeta nahi duzuna lortzera.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Saiatu atsedenaldia hartzen, harremanen inguruan hausnartzeko, batez ere bikoteko harremanen inguruan, ez baitzaude gustura eta aldaketak nahi dituzu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Une goxoa eta lasaia. Gozatu. Maitasun harremana hasteko aukera. Aldaketak nahi badituzu, pentsatu ondo ezer egin aurretik. Baina ez ezazu amets askorik egin...

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Praktikak.** Europako Inbertsio Bankua (Luxenburgo). 5 hilabetetako praktikaldia Luxenburgon, finantzak, auditoriak, ekonomia eta administrazioan lan egiteko. Baldintzak: ingelesa edo frantsesa ondo jakitea. Europako integrazioan edo EIBren finantza lan eremuen inguruko ikastaroren bat egina izatea baloratuko da.Epea: ez dago epe mugarik.

**LANA**

**> Delineatzailea eta elektrizista.** Arrasateko Udala – INEM. 6 hilabeteko kontratuak betetzeko langabezian dauden pertsonak behar dira. Epea: uztailaren 19a.
**> Teknologia irakaslea.** Legazpiko Haztegi Ikastola. Legazpiko Haztegi Ikastolak teknologia irakaslea behar du hurrengo ikasturterako. Baldintzak: Inginerutza edo arkitektura lizentziaturak eta irakaskuntzarako gaitasun ziurtagiria. Epea: uztailaren 21a.
**> Hezitzaileak.** Urgatzi enpresa. Jarrera arazoak dituzten gazteak gizarteratzeko proiektu batean lan egiteko hezitzaile bat behar da. Epea: abuztuaren 31a.

**IKASTAROAK**

**> Txalaparta.** Jardun elkartea. Txalaparta ikastaroa Bergaran uztailaren 26tik 30era. Izena emateko epea: uztailaren 21a.

**LEHIAKETAK**

**> Argazkigintza.** Redjóvenes. I Argazki lehiaketa. Baldintzak: 35 urtetik beherako gazteak. Gaia: genero berdintasuna eta praktika onak. Epea: uztailaren 28a.
**> Diseinatzaileak.** Kutxa Kultur Zirkuitoa. Diseinatzaile amateurrei zuzendutako lehiaketa. Epea: uztailaren 30a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 19



**> Antzuolako jai nagusiei tarte zabala**
**19:45, 21:30**
Antzuolako jaiak ospatu dituzte; Alardea izan da ekitaldi nagusia. Jaien momentu onenak errepasatuko ditu *Magazinea*-k.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Sakonduz.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalerki: Alproja taldea.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean: Miren Amuriza.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 20



**> Hamaikabat-eko Iñaki Galdosekin solasean**
**19:45, 21:30**
*Magazinea*-ko Eneko Azkarateren elkarrizketa Hamaikabat-eko presidente Iñaki Galdos oñatiarrarekin izango da oraingo astean.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta Lur.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Eskuokin.
**17:55** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Ilunpean.
**23:15** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 21



**> Errezeta goxoak ikasteko aukera 'Onein' saioan**
**15:50**
Martinez jatetxeko Xabier Martinez-ek txerri masailak onddo eta patata purearekin eta jogurt krema mazedoniarekin egingo ditu.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean
**15:50** Onein.
**16:20** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Kanaldude.
**22:45** Kalerki: Alproja taldea.
**23:15** Sakonduz.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 22




**> Golden Apple, 'Goibel' ikuskizunaz**
**22:15**
dFeria antzerki festibalean Golden Apple Quartet laukoteak *Goibel* ikuskizuna aurkeztu zuen. Eurekin izan zen *Gipuzkoakultura* saioa.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Mendialdean bizi.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Kanaldude.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Eskuokin.
**18:00** Onein.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Animalia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:00** Erloklip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 23



**> 'Magazinea'-k ere oporrak hartuko ditu**
**19:45, 21:15**
*Goiena magazinea*-k ere oporrak hartuko ditu udan, eta gaur, egubakoitza, izango da azken saioa. Irailean bueltatuko da Goiena Telebistara.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Animalia.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur.
**15:45** Kalerki.
**16:15** Mendialdean bizi.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz: Pello Urizar.
**22:45** Kiroleroak.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Frantziako Tourra, arrasatearrek kontatuta**
Oraingo aste hasieran Tourraren gainean jardungo du Arrasate Irratiak, aparteko narratzaileekin: lasterketa ikustera joan diren arrasatearren eskutik egingo dituzte saioak. Eta giro horretan betebetean sartzeko, opari berezia zozkatuko dituzte: Euskaltelen kamisetak. Ohiko opariak ere zotz egingo ditu. 943 25 05 05 / *irratia@goiena.com*.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (GOIENKARIArekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**GOITB** > 'ILUNPEAN'

# 'Ilunpean' saioak agur esango digu martitzenean emanaldi berezi batekin

Zortzi urteotan 'Ilunpean' aurkeztu duten lau lagunak platoan izango dira, momentu onenak errepasatzen

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE
Goiena Telebistaren *Ilunpean* saioak agur esango die ikusleei, eta horretarako emanaldi berezi bat egingo du bihar, martitzena (22:30). *Ilunpean*-ek 2002. urtean hasi zenetik izan dituen lau aurkezleak –Aintzane Gardoki, Oihana Elortza, Iker Barandiaran eta Jon Berezibar– platoan izango dira eta elkarrekin berriketan egingo dute, *Ilunpean*-ek eman dituen momentu gogoangarrienak, hunkigarrienak, politenak eta berezienak komentatuaz. Horretarako, urte hauetako guztiotako hainbat momenturen irudiak emango dituzte.

Saioak hiru ordu laurden iraungo du.

**KLASIKOA**
*Ilunpean* GOITBko klasiko bihurtu zen. Euskal Herriko pertsonaia ezagunak gonbidatzen zituzten saiora. Ia dekoratu bako platoan eta estetika minimalista eta misteriotsuan oinarrituta, kazetariak gonbidatua elkarrizketatzen zuen, eta gonbidatuen alderdi gertukoena eta ezezagunena azaleratzen saiatzen zen oso tonu pertsonalean.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...**

**2010, BIODIBERTSITATEAREN URTEA**

- Biodibertsitateari buruzko argazki erakusketa, irailaren 30 arte
- BIODOMINO EFEKTUA: Haurrei zuzendutako animazio berria.




Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 012 478

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Udako ordutegia**
Astelehenetik ostiralera 10:00-20:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-20:00.

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



ARRASATE
**Txiki**
Uztailaren 12an, 42 urte. Zorionak, tio Txiki! Ederto pasatu egun berezi hau, txokomuxu potolo-potoloak loba Beñat, Maren eta etxeko guztien partetik. Tartaren zain egongo gara, *guapo*!



ESKORIATZA
**Jon Regaño**
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, Zeke! Hilabete hontan hainbeste bidaiatu ostien, mexikarrera fateko denborarik bai? Oso ondo pasatu eguna eta traguak zure kontu. Oihana, Liher eta Itziar.



ARETXABALETA
**Julen Martinez Jausoro**
Uztailaren 14an, 8 urte. Zorionak, Julen! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Aupa txapeldun!



ARRASATE
**Luis Mari Heriz**
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, osaba! Bai ondo ospatu gebela, eh? Patxo pila. Txomin eta Maider.



ESKORIATZA
**Saioa Larrañaga**
Uztailaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, izeba! Egun zoragarria pasatu. Zure gonbidapenaren zain egongo gara, eh? Gentzane eta Oinatz.



ARETXABALETA
**Ainhitz Larrinaga**
Uztailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, Ainhitz, pirata! Muxu handi-handi bat etxeko danon, eta bereziki Jokin eta Jurgiren partetik.



OÑATI
**Miren Aberasturi Galdos**
Uztailaren 18an, urtebete. Tia Mirenen partetik zorionak, prexiosa!



ARRASATE
**Onintza Langaran Galdos**
Uztailaren 18an, 22 urte. Zorionak, juergista, eta muxu handia lagunen partetik!



ARAMAIO
**Oihan Azkarate Arriolabengoa**
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, Oihantxi! Txokomarrubizko muxuak, txapeldun! Ondo pasatu, maittia! Amandria, amama, aitita, amatxo, aitatxo eta Hegoiren partetik. Maite zaitugu *cara guapa*!



OÑATI
**Amaia Axpe eta Miren Aberasturi**
Uztailaren 18an, urtebete. Zorionak, polittak! Muxutxo bat bixendako eta ondo pasatu eguna. Patxito eta muaka!



ANTZUOLA
**Aiora Legorburu Rodriguez**
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, Aiora. Atzo ondo portatu zinan baina gaurtik aurrera be txintxua izan. Amaiur eta beste danen partetik.



ARRASATE
**Ibai Ceciaga Bengoa**
Uztailaren 18an, 12 urte. Zorionak mutikote etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Beñat Larrañaga Madinabeitia**
Uztailaren 18an, 6 urte. Zorionak, Belele! Dagoeneko umetxo bat izateari utzi diozu. Ondo pasatu eguna eta ea opari mordoxka bat jasotzen duzun. Muxuak.



ESKORIATZA
**Amaiur Isasmendi Martinez**
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat familixakuen partetik, batez be aitatxo, amatxo eta Galderren partetik.



ESKORIATZA
**Oinatz Andetxaga**
Uztailaren 19an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Egun polita pasatu. Patxito potoloa Gentzane, aitatxo eta amatxoren partetik. Aupa Reala!



ARRASATE
**Laura Garcia Aguado**
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak zure guraso eta anaia Raulen partetik!



OÑATI
**Maialen Bartolome**
Uztailaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, Mai! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta ona izan, bale matraka? Muxu asko familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Markel Altube Ayesa**
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Oso-oso ondo pasatu zure egunean zure lagun eta familiaren, eta bereziki, amandria Mertxe, amama Emili eta Unaxen partetik. Patxo handi-handia.



BILBO
**Bernat Alberdi**
Uztailaren 20an, urtebetetzea. Kapitaleko gure txixontziari 31 tirakada! Are gehiago: 31 patxo. Eta hori gutxi balitz, noizko inkubadora? Zain gaude.



ARETXABALETA
**Jessica Da Silva**
Uztailaren 21ean, 23 urte. Zorionak zure urtebetetzean eta muxu handi bat zure lagunen partetik. Asko maite zaitugulako. Ez aldatu inoiz!



OÑATI
**Iban Guridi**
Uztailaren 21ean, 2 urte. Asko maite zaitugun aitatxo eta amatxoren partetik mila muxu eta beste hainbeste belarriko tirakada. Ea laster Pirritx eta Porrotx zuzenean ikusterik izaten duzun...



ARETXABALETA
**Mikel Egia Barandiaran**
Uztailaren 21ean, 10 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztion partetik. Aupa, Reala!



ARRASATE
**Julen Alcalde Ceciaga**
Uztailaren 21ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat Aretxabaletako familiaren partetik.



OÑATI
**Marta Zubiagirre**
Uztailaren 22an, 2 urte. Jaso ezazu gure familiaren izenean zorion agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula bihotz-bihotzez.



BERGARA
**Elene Albisua Moreno**
Uztailaren 22an, 4 urte. Zorionak, Elene! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat Oier eta Mararen partetik!



ESKORIATZA
**Aintzane Ortiz Simal**
Uztailaren 22an, 7 urte. Zorionak, sorgina. Zure familia guztiaren eta bereziki Aimar, Irune, Ibai eta Lauraren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna! Merendola goxoa prestatu. e? Txokolatezko muxuak.



OÑATI
**Danel Bengoa Uriarte**
Uztailaren 22an, 4 urte. Zorionak maitte, Urko, aittajuna, amandria, amatxo eta aitatxoren partetik. Ondo pasatu zure eguna! Eta badakizu, 22xan plaiara!



ARRASATE
**Danel Lorenzo**
Uztailaren 22an, urtebete. Zorionak, bihotza! Ondo pasatu eta muxutxu handi bat ama eta aitaren partetik.



ARAMAIO
**Maria Ayastuy Martinez**
Uztailaren 23an, 5 urte. Zorionak, Maria! Egun poli-politxa pasatu! Eta patxo handi bat Libe, amatxo eta aitatxoren partetik.



BERGARA
**Shere Moreno**
Uztailaren 23an, 27 urte. Zorionak eta urte askotarako polit hori! Egun ona pasatu! 27 muxu eta besarkada handia aita, ama, Iban, Yasmi eta Uxueren partetik!



ARRASATE
**Isa**
Uztailaren 23an, 40 urte. Zorionak, printzesa! Kuadrilako dendari gogokoenak urtetxoak betetzen ditu! Ederto pasatu eguna, laguntxo guztien partetik. Pote bat hartzera gonbidatuko gaituzu, ezta? Patxoak, guapa.



BERGARA
**Izar Muñoz Otaño**
Uztailaren 23an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo handi bat amatxo, aitatxo eta familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
**Josu Lanzos**
Uztailaren 25ean, 41 urte. Zorionak, aitatxo-tio Josu! Aurten be Emaldin ospatukou? Guk barbakoa gertu daukou! Tirolina prestatukozu? Mila kilo muxu. Julen, Jokin, Lander, June, Malen, Ekaitz, Nagore.



ARETXABALETA
**Anita Aretxaga**
Uztailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, amama! Eta muxu handi-handi bat etxekoen partetik; bereziki, Ainara, Maren, Uxue eta Egoitzen partetik.



ARETXABALETA
**Claudia Diaz de Mendibil Azkoitia**
Uztailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Besarkada eta muxu handi bat. Naroa, Alba ta Uxue.



BERGARA
**Sara Peñin Alberdi**
Uztailaren 25ean, 12 urte. Zorionak gure lehengusina polittari familia guztiaren partetik, eta bi muxu ttiki goxuak zure lehengusuen partetik, Gorka eta Jokin.



BERGARA
**Ignacio Peñin**
Uztailaren 27an, urtebetetzea. Zorionak, *tio Nina*! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik eta berezi-berezi bat ilobatxo rubioaren partetik.



ARETXABALETA
**Uxue Ibabe Santamaria**
Uztailaren 30ean, 3 urte. Heldu da, printzesa, zure hirugarren urtebetetzea. Zorionak eta txokomarrubizko muxu handi bat etxekoen eta bereziki Ainara, Maren eta Egoitzen partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak datorren hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## asteburuko albuma

**Jaiak.** Arrasateko Santa Marinan ondo baino hobeto ospatu dituzte auzoko jaiak aste bukaeran. Haurrek zein helduek, denek izan dituzte euren gustuko ekitaldiak eta, girotzen joateko, poteoa egin zuten egubakoitz iluntzean. Zapaturako utzi zituzten bolo-boloa, haur jokoak – puzgarri eta guzti – eta ezaugarri oso bereziak dituen bolo-palma txapelketa.





JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

**Travelling' Brothers.** Bariku gauean indar handiko emanaldia egin zuen talde bilbotarrak Bergarako Espoloian. Gitarra, baxua, teklatua, saxoa, bateria eta ahotsa... osagai horiekin boskoteak denetariko blues estiloak egiteko gauza dela erakutsi zuen, baita Euskal Herriko blues talde garrantzitsuenetarikoa zergatik den ere. Kaleratu duten *Red Hot & Blue* diskoko kantuak eskaini zituzten gehienbat. Swing, funk eta soul doinuekin bete zuten Espoloia. Gozamena, musika estilo horren jarraitzaileendako.

## jaiotakoak

**Irati Leria Iglesias**
Bergara > 3,500 kilo. Uztailaren 11n. Gurasoak: Saioa (Bergara) eta Josu (Villabona). Argazkian, Irati jaioberria, amarekin.





**Oihane Ruiz Paternain**
Bergara > 3,410 kilo. Uztailaren 10ean. Gurasoak: Maria (Bergara) eta Imanol (Bergara). Argazkian, Oihane jaioberria, sehaskan lo.



**Markel Alarcia Iturri**
Aretxabaleta > 4,210 kilo. Uztailaren 11n. Gurasoak: Iratzeder (Aretxabaleta) eta Gorka (Aretxabaleta). Argazkian, Markel jaioberria, esna.



**Egoitz Mateo Setien**
Aretxabaleta > 3,000 kilo. Uztailaren 10ean. Gurasoak: Isabel (Ermua) eta Ricardo (Aretxabaleta). Argazkian, Egoitz jaioberria, sehaskan lo.



**Markel Larrañaga Mandaluniz**
Elgeta > 3,600 kilo. Uztailaren 10ean. Gurasoak: Maite (Elgeta) eta Jabier (Elgeta). Argazkian, Markel jaioberria, sehaskan lo.



**Nora Cuesta Maltras**
Eskoriatza > 3,400 kilo. Uztailaren 10ean. Gurasoak: Marijo (Arrasate) eta Oscar (Eskoriatza). Argazkian, Nora jaioberria, sehaskan.



**Xing Ran Guo**
Arrasate > 4,220 kilo. Uztailaren 12an. Gurasoak: Wzi Ping (Txina) eta Qiang (Txina). Argazkian, Xing jaioberria, sehaskan lo.



**Luca Galdos Etxeberria**
Oñati > 2,860 kilo. Uztailaren 14an. Gurasoak: Irati (Oñati) eta Asier (Oñati). Argazkian, Luca jaioberria, esna.



**Oxel Etxenausia Arrizabalaga**
Arrasate > 3,200 kilo. Uztailaren 10ean. Gurasoak: Itziar (Oñati) eta Roberto (Arrasate). Argazkian, Oxel jaioberria, lo.



**Paule Becerra Urizar**
Durango > 4,100 kilo. Uztailaren 15ean. Gurasoak: Monika (Durango) eta Crisantos (Abadiño). Argazkian, Paule jaioberria, lo.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

EGOITZA NAGUSIA
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com


**Miren Amuriza** > Bertsolaria

# "Oso lotsatia naiz baina bertsotan beste bat naiz"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Udan indarrak hartu beharrean da Amuriza, udazkenean Bizkaiko Bertsolari Txapelketa datorkio-eta. Txapelketa Nagusian egindako lan bikaina errepikatu gurako luke. Euskal Filologiako liburuei behintzat atsedena eman die eta udalekuetan begirale dihardu Berrizen, herrian, abuztua bitartean.**

**Oholtza gainean ikusita esango al luke inork berehala lotsatzen zaren pertsona zarela?**

Ez dakit. Bertsotan hastean beste bat naiz baina txikitan beti egoten nintzen amaren ostean gordeta, lotsaz, eta orain ere asko kostatzen zait. Oso lotsatia naiz.

**Oholtzan ere pertxenta fama baduzu.**

Eta egia da. Baina egon seguru nik oholtza gainera igo baino lehenago zer jantzi pentsatzen dudan bezala, besteek ere egiten dutela. Gainera, ez nuke hau neska bertsolarietara bakarrik mugatuko, eh!

**Oholtzara igotzeaz gain, liburuak idazten, diskoak kaleratzen, iritziak ematen... ikusi ohi ditugu bertsolariak.**

Kanpora begira eginiko gauzei eman ohi zaie garrantzia: liburua, diskoa ateratzeari... baina nik uste garrantzia berdina duela herriko bertso-eskolan jarduteak edo udalekuetan begirale egoteak. Bertsolari batek egin duelako, horregatik soilik, ez du zertan garrantzitsuagoa izan.

**Kantuan, behintzat, entzun zaitugu.**

Betidanik jo izan dut trikitixa. Abestearen kontu hori Maialen Arzallusekin batera Bertso Egunean gure amei egindako omenaldia izan zen. Aitak aski ezagunak ditugu-eta! Jendeari asko gustatu zitzaion, antza. Talderik ez dugu osatuko! (barre).

**Euskal Filologia, zergatik?**

Ba, ziur esaten ez nuke asmatuko. Filologia egina duten bertsolari askok esana didate karrera bera tramite hutsa besterik ez dela, azterketak gainditzea. Gero bakoitzak bere bidea egiten du eta niri, hain zuzen, bigarren fase horretxek erakartzen nau. Ikasle denbora hau ahalik eta ondoen igarotzen saiatzen naiz ni eta, noski, ikasle bizitzaz disfrutatzen.

**Bizkaiko txapelketarako entrenatzen?**

Ez larregi, oporrak oporrak dira-eta. Aitak noizean behin jartzen dizkit zenbait ariketa eta horrela jarduten dugu elkarrekin bertsotan.

SOSLAIA

## Bertso-eskolan

Patxadarekin, zentzu betez eta argi eta garbi hitz egiten du berriztarrak. 20 urte bete berri, Bizkaiko bertsolari gazteen artean txokoa egina du Amurizak. Bertsogeneak txikitatik aktibatuak. Hala ere, oso gutxi egiten ei dute aitak eta biek elkarrekin bertsotan. 12 urterekin hasi zen Berrizko bertso eskolan eta 20rekin eskola horren arduradun gisa dihardu. Sekulako garrantzia ematen dio berak bertso-eskolako lanari. Bere herrikoa, Berrizkoa, bere amak hasi zuen.



Miren Amuriza. JONE INUNTZIAGA

## ai, ene!



### Bizikleta-giltzarrapoa

Argazkiko gazteari ez diote bizikleta hain erraz lapurtuko aurrerantzean! Giltzarrapo arruntekin aski ez-eta, bizikleta-giltzarrapoa asmatu du: palanka batekin egoera zurrun batetik moldagarrira aldatzen du bizikletaren koadroa.

http://www.nopuedocreer.com

## biharamuna

Iñigo Biain

### Ikasturtearen amaiera aldapatsua

Ikasturte honetako azken Biharamuna honetan futbolari buruz hitz egitea bururatu zait, amaitu berri den Mundiala eta **Reala** aitzakia hartuta... Baina ez dut futbolaz hitz egingo. Justiziaz idaztea ere pasatu zait burutik, **Udalbiltzaren** auzia medio, baina gai hau ere albo batera utzi dut. Ingurugiroa zen beste aukera bat, ostiralean bertan baieztatu baitzuen **BP** enpresak Mexikoko Golkoko isuria kontrolatu dutela, baina ez daukat honi buruz idazteko gogo handirik. Ekonomiaren esparruan krisia ere gai potoloa iruditu zait: langileen eskubideen murrizketak, enpresarien aldeko neurri politikoak, BEZ zergaren igoera... baina gehiegitan idatzi dut (dugu) honi buruz. Agian politikari hel niezaioke? Ba agian bai, Kataluniako estatutuaren eta oporraldia hasi aurretik ikusiko eta biziko ditugun manifestazio guztien inguruan. Uf! Baina neuronek ezetz esaten didate. Nazioartean ere bada gai interesgarririk, Argentinan onartu berri dituzten sexu berdineko bi pertsonen arteko ezkontzak, kasu, baina ez dut gorputzik gai honi heltzeko...



Tira, honez gero ohartuko zineten zein den gaurko mezua, ezta? Nik eta nire burmuinak oporrak behar ditugu!

## eguraldia

| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +30 | +16 |

Giro eguzkitsuarekin hasiko dugu astea. Tenperaturek gorako bidean jarraituko dute eta arratsaldean brisa altxatuko da.

www.euskalmet.net

Carrascal aroztegia
SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943790182
*scarrasc_1@infonegocio.com*

ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAKO RENOVE PLANA







FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA